

II.
Ataun
ztergai
Beka



Kablea Ataunen

Lourdes Altuna Jauregi

II. *Ataun Aztergai Beka*



ATAUNgo UDALA

KABLEA ATAUNEN

Lourdes Altuna Jauregi

Ataunen, 1996ko Abendua

© Antolatzailea: Ataungo Udala
Egilea: Lourdes Altuna Jauregi
Koordinatzailea: Santi Etxeberria Goikoetxea
Argazkiak: Joxe Ramon Agirre
Santi Etxeberria
Marrazkiak: Patxi Epelde
Argitaratzailea: Ataungo Udala
Testu-orratzailea: Jon Goikoetxea Mujika
Fotokonposaketa eta inprimategia: Antza S.A.L. - Lasarte-Oria

I.S.B.N.: 84-930785-0-6

L.G.: SS 426/99



LOURDES ALTUNA JAUREGI

1967ko martxoaren 16an jaioa Ataungo Otadi aldea auzoko Otadi Zelai baserrian bizi da.

O.H.O.ko ikasketak Ataungo eskolan eta batxilergoa Beasaingo Lizeo Alkartasunan egin zituen. 1985tik 1989ra Nekazal Injinari Tekniko ikasketak egin zituen, Nekazal Hustiakuntzetan espezializatuz. Harrezkero nekazal sektorearekin loturiko lanetan ibili da, Mendi Nekazaritzako egitasmo proiektuak

sakontzen, Nekazal errejistroak egiten, mendien inbentarioak, ...

Abaltzisketako Udalan 1989-1992ra bitarte Mendi Nekazaritzako egitasmo proiektu modura, Nãnarri elkarte, aztertu eta aurrera eramateko pausoak markatu zituen teknikari modura. Gero 1993-1994ra Diputazio-ko beka baten bidez Errezil sagarraren aurreselekzio lana egin zuen. Ondoren Ordiziako Nekazal bulegoan, Nekazal hustiategien errejistroak egiten jardun zen, beti ere teknikari modura.

Geroztik, Ataungo mendi publikoen inbentario lana ere bai Gasteizko I.K.T. enpresaren agindupean. Azkenik 1997tik 1998ra Ataungo Udalan lan egin du mendi publikoetako enklabatuen lokalizatze, identifikatze eta permutatze lanetan. Baita ere eremuka sailkaturik, bide eta pisten infra-estruktura azterketa lanetan.

Ataungo kablei buruzko lan hau da argitaratzen duen bere lehendabiziko lana.

A U R K I B I D E A

I ZATIA

SARRERA	9
ATAUN. DESKRIBAPEN FISIKOA ETA GEOGRAFIKOA	13
1.- LAN METODOLOGIA	15
2.- TESTUINGURU HISTORIKOA	19
3.- KABLE MOTAK	25
3. 1.- Belar kablea	25
3. 2.- Egur kablea	26
3. 3.- Harri kablea	27
4.- KABLEA ETA ELEMENTUAK	29
4.1.- Belar kablea	29
- Sistema.	29
- Elementu nagusiak.....	29
- Kablea	29
- Txirrikak	32
- Danborra	34
- Astoa	36
- Disparoa	39
- Lan amaierako seinalea	45
- Mantenimendua	45
- Sorta egiteko modua	46
4.2.- Egur kablea.	47
- Elementu nagusiak	47
- Kablea	47
- Karriloa	47
- Pilona	49
- Egurraren pilaketa kargaderoan.....	49
- Sistema	49
- Mantenimendua	51
4.3.- Harri kablea	51
5.- KABLEEN SAILKAPEN OROKORRA	53
6.- EGUNGO EGOERA	61
7.- KABLELARIAK	65
- Bixente Eskisabel Urbiztondo	65
- Jose Baztarrika Munduate	66
- Hilario Agirre Urdangarin	67
- Juan Agirre Begiristain	68
- Jose Rezola Zeberio	69
8.- LANEKO GORA-BEHERAK	71
9.- AMAIERA	75
10.- BIBLIOGRAFIA	77

II ZATIA

11.- INBENTARIOA	80
------------------------	----

SARRERA

“Kablea Ataunen” izenburua duen lan hau, nolabait ere, garai batean gure herriko baserrietako lan bizimoldean pentsatzean sortu da.

Denok dakigu duela urte gutxi arte gure baserrietan eskulanak garrantzi handia zuela, bai esan digutelako bai argazkietan ikusi dugulako edo baita zuzenean bizi izan dugulako ere. Egun, ordea, gauzak erabat aldatu dira.

Belar lanetan ere lan prozesuak aldaketa nabarmenak jasan ditu. Duela urte gutxi arte baserritarra kabaileriari sortak erantsita edota berak sortak bizkarrean hartuta ibiltzen zen. Gaur egun zaila egiten zaigu garai hartako baserriarren bizimodua bere osotasunean imajinatu eta ulertzea. Baina bizitza hura eta lan haiek benetan astunak eta neketsuak izan behar zuten inondik ere.

Hala ere, garaiak aurrera egin dute, bizimodua asko aldatu da eta lan sistematik ere erabat berritu dira. Lan sistema hauen aldaketak nekazal mundu osoan eman dira, bere iharduera desberdinetan berrikuntza eta aurrerapen nabarmenak eraginez; eta gainera, Euskal Herri osora zabaldu dira .

Ataunen ere prozesua antzekoa izan da. Baina, hala ere, bertan garatu diren nekazal lanetan izan dira elementu bitxi eta orijinal bezain garrantzitsuak; horietako bat, dudarik gabe, kablea dugu. Kablea, nekazal produktuen garraiorako erabili den eta oraindik ere erabiltzen den sistema bat da. Garraio sistema honek oso arrakasta handia izan zuen Ataunen, eta oraindik ere hemen baditugu kableek osatzen zituzten eta dituzten hainbat elementu, nolabait ere iragan haren lekuko eta desagertzeaz dagoen mundu baten azken elementuetariko baten modura, dudarik gabe.

Horregatik hartu dut garraio sistema hau nire lanaren aztergai.

Gaur egun Ataun herria iparraldetik hegoaldera edo alderantziz zeharkatzen bada, ikus daiteke errepidearen bi alboetan oraindik nekazal lanetako erabiltzen ziren zenbait kableren aztarna. Egun, hauetariko askok ez dute erabilpenik, baina garai bateko kable haiek etengabe gogorarazten ari zaizkigun objektuak ditugu oraindik, ze beraien memoria galtzen bada traste zahar hauek txatar multzo bat izatera iritsi daitezke.

Errepidean pasatzean beti begibistan eduki izanagatik, ia orain arte ez dut jakin ze erabilpen zuten eta nola funtzionatzen zuten kable hauek. Baserriko alaba izan arren, gure baserrian ez dut kablerik ezagutu, lurra etxe inguruan nahiko bilduak baititugu, eta ez nuen pentsatzen horrelako garraio sistema bat herrian genuenik.

Denbora pasa ahala, kable sistemaren erabilera, jatorria, baserriarrengan izandako eragina, etabarri buruzko jakinmina areagotzen hasi zitzaidan eta neure nekazal ikasketekin lotura zuen lan tresna bat izanik, herrian kableak orokorrean izan duen garrantzia aztertzeako asmoz, 1996ko uztailean Ataun Aztergai

Bekaren II. edizioa aprobetxatuz, “Kablea Ataunen” izenburupean Ataungo kableen zenbaketa bat egitea egokitzat jo nuen.

Lehenengo, lanak izango zituen zenbait puntu aurkeztu nituen: kablearen ezaugarriak, motak, zituzten abantaila eta desabantailak ... 1996ko urriaren hasieran eskutitz baten bidez jakinarazi zidaten “Kablea Ataunen” izenburupean aurkezturiko lanari egokitu zitzaiola beka. Beka lehiaketara lan honez gain beste bi lan ere aurkeztu ziren: “Ataundarrak Ataunen uztarri” lan proposamena eta “Ataungo Herria 2.000. urterantz” gidoi lana.

Lourdes Altuna Jauregi

Zablea Ataunen

I Zatia

ATAUN DESKRIBAPEN FISIKO ETA GEOGRAFIKOA

Kablea aztertu aurretik, derrigorrezkoa dugu Ataunen ezaugarri fisiko eta geografiko nagusienak aztertzea, garbi baitago elementu honetan lan iharduera berezi bat eta orografia bitxi bat erabat uztartzen direla.

Ataun Gipuzkoaren hego-ekialdean finkaturiko herri bat da eta Goierriko eskualdean kokaturik dago.

Beasaindik Nafarroruntz doan bidean, Lazkao iragan ondoren, Umarruko zubitik hasi eta Lizarrustiko gainerarte luzatzen da Ataungo herria.

Orografiaren arabera altura diferentzia nabaria da.

Ataun Agauntza ibaiak eta bere ibaiadarrek egin duten haran estu bat da. Bertan, oso distantzia laburrean altuera desberdintasun bortitzak deskribatzen dira. Ataun San Martinen dagoen Udaletxea 190 m.ko altueran dago eta inguruko mendiak 800 eta 900 m.ko altuera dute. Aipa ditzakegu: Arantzamendi 783 m.rekin, Atxurbi 770 m.rekin, Aitxu 968 m.rekin, e.a.

Bertako ingurunea azter-
tzerakoan hiru zati bereiz
ditzakegu: ibaiaren alde bate-
an Agauntza aldea eta Maru-
mendi eta Aitzarte bestean.
Agauntza aldean Lazkao,
Idiazabal, Araba-Gipuzkoako
partzoneria eta Nafarroako
hainbat herriekin muga egiten
du. Marumendi eta Aitzartek,
berriz, Enerio Aralar eta Zal-
dibirekin egiten dute muga.



Ataun

Ataungo biztanlegoa hiru auzo nagusietan banatzen da: San Martin, San Gregorio eta Aia. Bizigune koxkorragoak ere badaude: Arrondo, Arinberriaga, Murkondo, Lauztierreka, Ergoiena, e.a.

Nekazal lur egokienak eta lauenak ibai inguruan daude. Ibai eta errepidetik urruntzen den heinean malda agertzen hasten da, mendietako hegaletan hainbat eta hainbat baserri dauden auzo txikiak eratuz: Lauztierreka, Aitzarte, Otamots...

Orokorrean, Ataun herria, Agauntza, Aitzarte eta Marumendi mendiek osatzen duten sakanean dagoen herri bat da.

Ekonomi aldetik nagusiki nekazaritza eta basogintzan oinarritu da. Baserriko lur eremu gehienetan, nahiz aldapatsua izan edota urruti egon, laboreak eta ganaduarentzako bazka ereiten ziren. Aipagarriak dira: artoa, babarruna, garia, erre-

molatxa, patata, arbia eta, noski, betiko belardiak. Elikagai hauek baserriko bizi-
moldearen oinarri nagusia osatzen zuten.

Baserrietan familia handiak hazten ziren eta denen laguntzarekin, eskulan
ugaria aprobetxatuz, soro eta belardi sail handiak erabiltzen ziren.

Pixkanaka-pixkanaka lehen sektorea beste sektoreak bezala hurreratzen has-
ten da eta, nolabait ere, lana erraztera jotzen da; hau da, eskulana murriztera.
Baserriak transformatzen hasten dira eta espezializazio baten barnean sartzen
hasten da. Baserriko lana errazteko asmoz indartu zen lan tresna dugu
KABLEA, eta nekazal produktuen garraio sistema nagusia izatera iritsi zen
Ataunen, bertako aldapa handiak aprobetxatuz. Aipatu bezala, Ataunen baldin-
tza fisikoak eta baserriaren ustiapen sistemak ondo egokitu ziren kableari esker.

1.- LAN METODOLOGIA

Lan hau osatzeko, ahozko iturriak, iturri bibliografikoak eta dokumentalak erabili dira. Oraindik zutik dirauten kable elementuak ahaztu gabe. **Ahozko iturriak** izan dira informazio ugariena eta hoberena eskaini digutenak; izan ere, kablearen mundua zuzenean bizi izan duten protagonistak gure artean baititugu. Baina nolabait ere, informazio bilketa modu sistematiko eta egoki batean egiteko fitxa bat osatu genuen.

Kable bakoitzaren informazioa biltzeko deskribapen fitxa bat sortu genuen, bakoitzak izan edo dituen berezitasunak eta garaian izandako anekdota guztiak jasotzeko, beti ere kableen zenbaketa oso bat egiteko asmoz (ikus fitxa).

Beraz, autoan grabatzaile bat, argazki-kamera eta deskribapen-fitxa bat hartu eta baserriz baseri herri guztia zeharkatzeari ekin nion.

Bibliografiari dagokionez esan behar oso erreferentzia gutxi topatu ditugula gai honen inguruan. Jose Zufiaurre Goyak “Anuario de Eusko Folklore”n argitaratutako lana eta Lourdes Auzmendi Aierbek “Txirrika soinua Ataungo aldape-tan behera” *ARGIA aldizkarian* azaldukoak aztertu dira.

Erabili dugun dokumentazioa oso interesgarria izan da, urria bada ere. Atal honetan Gipuzkoako Artxibo Orokorra, Ataungo Artxiboa, artxibo partikularrak eta Eusko Jaurlaritzako Industri Ondare eta Herrilanaren Zenbaketa kontsultatu dira.

Lana zuzenki Ataungo herrira mugatu da, nahiz eta kanpoko beste herri batzuetan ere erabilia izan honelako lan tresna . Adibidez, Lezon.

Orokorrean, aurkitu diren kableetan belarraren garraiorako erabilitako kableak izan dira ugariak. Horrela, Ataun guztian zehar 94 baserritara jo da eta 197 kablaren zenbaketa egin da.

Nahiz eta herriko baserritarren ezagupideari jarraituz ibili, zenbaketa hau egi-tean baliteke kablaren batzuk kanpoan gelditzea, inguruko baserritarrek gazteak direlako eta ezagutarik ez dutelako edota ahaztu direlako orokorrean.

Lanak izan ditu bere zailtasunak. Handiena, fitxa osatzeko garaian izan da. Baserritar askok, puntu bakoitza zehazteko unean, zailtasun edo zalantza ugari izan baitu. Hala nola materialen deskribapena azaltzerakoan, jarritako data zehazterakoan, e.a.

Asko eta asko ez ziren gogoratzen kablearen ezaugarrietaz, euren gazte garai-ko kontua zelako, eta ezin izan dute zehaztasun handirik eman. Hala eta guztiz ere, eskerrak eman behar zaizkie baserritar guztiei eskaini duten informazio guztiagatik, eta are gehiago euren lan orduetatik elkarriketarako tarte bat hartzeagatik. Beraiek izan dira lan honen oinarri nagusia, beraiek emandako informazioa delako gaur egun kableen inguruan dagoen zuzenena. .

Egokitu eta erabili dugun fitxa honako hau izan da¹:

KABLE ZENBAKIA: ----- IZENA:-----

BASERRIA: -----

Jabareen izena: -----

Helbidea: -----

Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren: -----

KABLEA

Jarri zeneko data: -----

Nondik norakoa: -----

Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia): -----

Nolakoa zergatik? -----

Luzera: -----

Desnibela:-----

Lur eremuen izenak:-----

Nondik ekarri zen teknika: -----

Nork jarri zuen: -----

Kable elementuak

Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.

Berezitasunak: -----

Kablea nondik ekarri: -----

Nolakoa:-----

Diametroa: -----

Zuzena, angeluduna:-----

Engrasatzen zenuten: ----- Nola -----

Astoric ba al zuen: ----- Zenbat: -----

Plantxuelarik:-----

Danborra zerez egina:-----

Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak: -----

Nolakoak, materiala: -----

Zenbat txirrika erabiltzen ziren: -----

Konponketarik egin zen: -----

Noiz, nork: -----

Erabilpena

Zertarako erabiltzen zenuten: -----

Urteko ze sasoietan: -----

Zenbateko pisua jartzen zitzaion: -----

Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten: -----

Beste erabilerarik bazuen: -----

Ze abantail ekarri zuen: -----

Arazoak (suteak, istripuak..):-----

Noiz utzi zitzaion erabiltzeari: -----

Eta kablea kendu: -----

Zergatik:-----

Aztarnak

Kablearen zein elementu gelditzen dira: -----

Bakoitzaren deskribapena eta argazkia: -----

Nolakoa da: -----

Materiala: -----

Egoera: -----

Kokapena:-----

Kable osoaren egoera:-----

Martxan jartzeko modua: -----

Interesgarria: -----

Zergatik:-----

Jabearen jarrera: -----


2.- TESTUINGURU HISTORIKOA

Jose Zufiaurre Goyak² ez du data zehatz bat ematen garraio sistema hau noiz sortutakoa den argitzeko. Bere idatzian dioenez, 1924an Larratzeko Manuel Auzmendi jaunak etxe aurreko belardi maldatsu batetik etxeko ganbarara altzairuzko kable bat jarri zuen; eta lehendik basoan egurren garraiorako teknika bera ezagutzen zuen beste herritar batek lagundu ziola dio, Larratzeko etxejaunak jarraitzaile asko izan zituela gehituz.

Ondoren, kablea osatzen duten elementuak deskribatzen ditu: astoa, planxuela, disparoa, protekzioko sarea, e.a.

Lourdes Auzmedi Aierbek³ ere bere idatzian ez du data zehatzik ematen, baina baserritar batek zioenaren aipamena egiten du: "Nik Ataunen lehendabiziko kablea Lauztiberri izeneko baserrian ezagutu nuen eta gaur egun ere leku berdinean jarraitzen du. Kable horrek nik hainbat urte baditu, ni muttikoa nintzela behintzat han zegoen". Baserritar horrek adierazpen hori egin zuenean, alegia 1980. urtean, 70 urtetik gora zituen. Ezin esan Lauztiberri baserrian izan diren bi kableen artean zein zen hor aipatzen zen kable hori. Izan ere, gaur egun bertan bizi direnek jarriak ezagutu baitzituzten.

1923. urtean kable baten muntaia egiteko baimen eskaria ere aurkitu da⁴. Bertan, Juan Dorronsoro Ataungo bizilagunari baimena ematen zaio Lizarrustira dihoan errepideko 53. K.m.an kable bat jartzeko, inguruan dituen nekazal produktuak eta belarra garraia ahal izateko.



Comision I de Caminos, S. I. "acuerdo suceso a don Juan Dorronsoro, vecino de Ataun, ra colocar un cable cruzado en la carretera que se dirige a Lizarrusti, en el kilometro 53 de la misma, con objeto de transportar su casa huerba y productos de agricultura desde terreno situado en sus proximidades con sujecion a las condiciones siguientes:

1.º Para responder del tránsito, por deba del cable y a una altura minima de 5.00.

1923an Juan Dorronsorori emandako baimena.

2 ZUFIAURRE, J. "KABLEAK ATAUNEN". ANUARIO DE EUSKO FOLKLORE 37/1991 (147-158 orriak.

3 AUZMENDI, L. "Txirrika soinuwa Ataungo aldapetan behera". ZERUKO ARGIA. 1980. urtea. 881 zbkia.

4 GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA (G.A.O.) J.D. T.L. N-432 (1.923 1go hiruhilabetea).

Baimen honetan zenbait kondizio ere ezartzen zitzaizkion baserritarrari. Honako hauek aipa daitezke:

- 1.- Kablearen azpialdeko ibilguneaz arduratzeko, errepidearen altueratik 5 m.ko altuera batera defentsa bat jarriko dela behar den sostenguarekin, ezbeharririk ez gertatzearren kablean garraiatuko diren produktuak erortzea gertatuz gero.
- 2.- Defentsa, sarea, errepideko zaindaria markatzen duen leku eta arauen arabera jarri beharko dela.
- 3.- Defentsa eta kablearen kontserbazioa eta gerta daitezkeen kalteak beti ere eskatzailearen gain joango direla.
- 4.- Aipaturiko arau hauetakoren bat ez betetzeak edota kable eta sarearen aurka justifikatutako erreklamazio edo denuntziak baimena deuseztea ekar dezakela.

Inbentarioa herri mailara zabaldu denez, Udal Artxiboa ere miatu da, kablearekin erlazionaturik dagoen zerbait aurkitzearren.

Udal Artxiboan aurkitu den dokumenturik zaharrena 1934. urtekoa da. Agiri horren arabera, Frantzisko Dorronsoro jaunak pezeta bat ordaindu zuen udal zerga modura, herri lurrean kablearen elementuren bat eduki edota kablea bertatik pasatzeagatik .

Ondoren, 1950., 1951. eta 1953. urteetako dokumentuak eta 1965., 1966. eta 1973. urteetako talonario batzuk ikus daitezke.

1950., 1951. eta 1953. urteetako dokumentuetan zerga municipal modura onartutako ordenantza eta alkatearen bandoa agertzen dira, zerga hori ordaindu beharra zeukaten interesatuen zerrenda eta guzti: izen-deiturak, helbidea, zerga ordaintzen zuen lur sailaren izena eta ordaindu behar zuen kuota.

1965., 1966. eta 1973. urteetako talonarioetan izen-deiturak, lur sailaren izena eta ordaintzen zen diru kopurua agertzen dira bakarrik.

Udal Artxibotik kanpo ere aurkitu da 1921. urtean Lezon kable bat jartzeko baimen eskaria⁵. Fermin Larrea jaunak baimena eskatzen du menditik bere baserriara kablea jartzeko garoaren garraiorako.

Baserriarregandik bildutako ahozko informazioaren arabera ere urte muga jakin bat zehaztea ezinezkoa gertatzen da. Batzuen iritziz 1920 ingurukoak dira, besteak ez dira gogoratzen...

Beraz, erabili den informazioaren arabera Ataunen gai honi buruz dugun lehen notizia garbia 1923koa da, nahiz kanpoan lehen ezarritakorik izan.

Nire iritziz kablearen sorrera garbi zehaztea oso zaila da, baina esan daiteke 1920ko hamarkada inguruan hasi eta 1930eko hamarkadan zabalduriko lan tresna dela kablea.



Aurrerapen haundia izan zen.

Baserriko lana errazteko asmoz sartu zen garraio sistema da kablea. Garai haietan Ataungo mendi eta hegaletan ez zegoen biderik. Baserritarrek baserriko produktuak kabaileriaren bizkarrean edota beraien bizkar gainean garraiatzen zituzten. Lur sail handiak lantzen ziren. Gehienetan laboreak eta belarra zen nagusi. Gurdibiderik ez izatean, baserritarrak oinezko bidetik ibili behar zuten, oinez bi eta hiru ordu pasatuz zenbait lekutara iristeko. Ondoren, handik belarra, garoa edo beste edozein gauza ekarri nahi bazuten, zaldiekin ekartzen zuten. Nola bestela?

Hau dena herriak duen orografia zailari loturik dago, orografia maldatsua eta aldapatsua baita.

Baserriak mendien magalean aurkitzen zirenez eta direnez, kableak jartzeko ez zen inongo arazorik izan. Kableak duen baldintza bakarra da bota behar den tokia iritsi behar duena baino altuago



Belarra egiten.

egotea. Modu horretan, erraz garraia zitezkeen nekazal produktuak, basoko egurra, e.a.

Hasieran aipaturiko urte horietan, 1920ko hamarkadan, industriaren garapenak eta teknologiaren aurrerapenak baserri munduari sistema eta materiale berriak eskaintzen dizkie; adibidez, kablea. Baina aldi berean eskulana kentzen hasiko zaie, eta horren ondorioz, erreztasun bila, kable sistema erantzun egokia izango da eskulana murrizteko eta lana erosoago egiteko. Urte hauetatik aurrera izugarritzko kable pila jarri zen eta baita bere inguruan ofizio bat sortu ere: Kablelariarena hain zuzen ere.

Izan zen ataundar bat ospe handia hartu zuena kable munduan. Bera Artaditxulo baserriko Bixente Eskisabel izan zen. Ordurako italiarrak hasiak omen ziren kable bidez egur garraioan, baina hala eta guztiz ere, Bixente izan zen inguru hauetan lehena egurretako kableen munduan sartu zena. Irati aldean italiarrei zera esan omen zien: eurek materiala jartzen bazioten bera gai zela 14 km. luzerako kablea muntatzeko, eta horrela egin omen zuen. Denak txunditurik utzi omen zituen. Horren ondorioz, indar eta ospe handia hartu zituen. Hainbat kon-



Egur kablearen ikuspegia kargaderoan.

paini edo langilez osaturiko koadrilak izan zituen bere gain, denak basoak ateratzen kablearen bidez. Herriko zenbait mutilak ere lan egin zuten Bixenterentzat Irati aldean. Batzuek aipatzekotan, hor ditugu: Arbotonetako Jose eta Juan M^a Baztarrika anaiak, Jose Rezola, Espillako Juan Eskisabel, Mendiurkulluko Juan Agirre, Artaditxuloko Antonio

Eskisabel (bere semea) eta aipatu gabe gelditu diren beste zenbait. Denak, modu batera edo bestera, egur kableekin lan egin zuten. Batzuek muntatzen, besteak peoi, enpalmek egiten... Eta baita ikasi ere.

Industriaren garapena bortitzagoa, gogorragoa eta indartsuagoa egin zen 1950. hamarkadako “boom”aren eskutik. Baserri mundua ekonomikoki ahuldu egingo du eta bigarren maila batera pasatuko da. Horrek, baserriko lanak areagotzea eskatzen du, baserrietatik urruti gelditzen diren belardietan pinua sartzen hasten da, baserri inguruko sailetara bideak ebakitzen dira; azken batean, lana

errazago eta erosoago egiteko makineria (traktorea) sartzen da. Honek kable askoren suntsipena, kentzea edo desagertzea ekartzen du. Kasu honetan, ez da teknika batek bestea menperatzea, teknikaren eta baserriarren egoerak aurrerabide bat desagertaraztea baizik.

Kable guztiak zehatz zenbatzea erraza ez izan arren, **guztira 197 kable inguru izan dira guk zenbatu ditugunak.** eta gaur egun oraindik martxan dauden kableetatik gehienak, terrenoaren orografia txarragatik eta lursail horietan makineria sartzeko egokitze lanak oso handiak direlako daude martxan.

Esan dugu dokumentazio gutxi dagoela; eta horrela da. Baina oso kasu gutxitan topatu bada ere, datu interesgarriak eskaintzen dira. Alde batetik, Gipuzkoako Artxibo Orokorreko dokumentuek, urriak izan arren, datu fidagarri bat ematen digu kablearen hasierako urte haiei buruz. Baina Ataunen ere, gure baserrietan, bada

dokumentazio interesgaririk kableekin erlazionaturik. Adibidez, Arrendo Saletxe baserrian bi idatzi dituzte⁶. Bata 1936. urtekoa da, BELARDIAUNDIKO kablea jarri zenekoa. Foru Aldundiak baimena ematen dio Marzial Barandiaran jaunari kablea jartzeko, baina errepidearen gainean babes modura sarea jar-



Larratze baserria. Errepidearen gainean sarea.

tzeko aginduarekin. Bestea 1955. urtekoa da. Kable berari dagokio eta argi indar sare berria pasatzerakoan egokitzen jotzen dute, segurtasun aldetik, argi indar sarea lehendik dagoen kablearen gainetik pasatzea poste luzeago batzuek jarrita.

Baimen eskari hauek errepidea edo argi indarraren kablea pasatzen zuten kasuetan eskatzen ziren, eta eskabideak Foru Aldundiari edo Iberduerori zuzentzen zitzaizkien. Erantzuna, kasu horietan bezala, babes modura sarea jarraraztea izaten zen, sorta belarra erortzea gertatuz gero sarean gera zedin.

Errepidea pasatzen zuten hainbat kable izan da. Hona hemen, aipagarrienak: Arinetxeberria, Urbitarte, Arbeldiberri, Iberondobarrena, Larratze, Sariartegara-

⁶ Barandiaran - Furundarena familiaren artxiboa.

koa eta Arrondo Saletxe. Azken bi hauetan kablea oraindik kentzeko dago. Egun ez dute erabilpenik eta sarea aspaldidanik kendu zitzaien.

Larratze baserrian, aldiz, kablea erabilgarri zegoen garaiko bi argazki aurkitu dira. Argazki horietan argi eta garbi ikusten dira kablea eta errepede gainean honen protekzioarako jarritako sarea.

Udal Artxiboan, udal zerga modura udal lurren erabilera, kable bidezko okupazioa eta beste zenbait iharduera erregulatzen zituen ordenantza aurkitu da, zerga modura ordaintzen zuten baserritarren zerrenda eta guzti. Hasieratik bane-
kien, baserritarrek eurek esanda, kablearen elementuren bat herri lurretan itsatsia aurkitzen bazen, herriari hainbesteko bat ordaintzen zietela udal zerga edo kanon modura. Hor ditugu Urdangarintxikia, Uelarrain, Aldarretazpikoa, Dorronsoro, Zuga, Sariarteazpikoa eta Sariartegarakoa baserriak. Hauek denak baserritarrak esandakoak. Baina horiez gain, talonarioan agertzen dira beste zenbait baserri; hara nola Peruenezarra, Gomensaletxe, Barandiaran, Larruntza, Arbeldi, Urbirtarte, eta Aldarretagarakoa.

Beraz, eta laburtuz, kablearen fenomeno honek 1920 inguruan hasi eta 1955 urte arte izan zuen garapen nagusia. Gero teknika berriak sartzen joan ziren, egungo egoerara iritsi arte, eta gaur egun, kableak Ataungo nekazal munduan izan duen garrantzia dela eta, elementu adierazgarri bihurtu zaigu.

3.- KABLE MOTAK

Kablea, definizioz, burdin hariz osaturiko soka bat da.

Baina gure kasuan, altura diferentzia dagoen bi leku desberdinetan erantsi eta zenbait materiale edo nekazal produktuen garraiorako erabiltzen den sistema da.



Kablea

Ataunen kablea gauza askoren garraiorako erabili da, baina beti nekazal eta baso munduari lotuta. Lana egiteko orduan erosotasuna eta erraztasuna ekarri ditu. Baserritarrek kablea izan aurretik udara eta udazken garaian lan asko izaten zuten negurako ganaduarentzako jaten emateko behar zuten belar ondua eta ohe modurako hosto eta garoa etxeratzen. Belardi eta galsoroetara joaten, zenbait lekutan, bi edo hiru orduko bidea zuten eta kabaileriarekin edo zaldiekin garraiatzen zuten, aldiko bi sorta jaitsiar. Gerturago gelditzen zitzairen lekuetatik, berriz, bizkarka eta arrastaka. Egunean 6-7 buelta egiten zituzten 14-15 sorta ekartzeko eta, esan bezala, lekuaren urruntasuna medio, denbora asko galtzen zuten bidean joan etorrian.

Egoera hau kablearekin asko erosotu zen. Izan ere, eta aipatu bezala, kablearen bidez material eta produktu ugari garraiatzen baitziren.

Hiru kable mota aurkitu ditugu, garraiatzen ziren materialen arabera:

3. 1.- Belar kablea

Zenbatu diren kableetatik ugarietak dira. Denera, 195 kable zenbatu dira (Araleigigoiko ASTOZ eta GESALBEKOA izan ezik).

Belar kable hau “cable loco” izenez ere ezagutu izan da beste kable sistema batzuek (egurretakoa...) ezagutu dituztenen artean.

Kable hauetan garraiatu izan dira:

- Belar ondua edo igarra, ganadu jana edo belar berdea, arbia... Hauek ganaduaren bazkarako elikagai nagusiak dira.
- Orbela (hostoak) edo garoa ganaduaren ohe edo etzanlekuetarako.
- Basoetatik zotza edo adarrak sua egiteko. Kablean metro bateko luzerako adarrak botatzen ziren.

- Garia.
- Ikatza edo egurrikatza.

Baserriarekin loturik inguruko lurretan zuten materiale guztia garraiatu izan da belar kableen bidez. Kable hauek finkoak izan dira betidanik, hau da, leku zehatz batean muntatzen ziren eta bertara inguratzen zen materiala, belarra, garoa, e.a., ondoren kablean goitik behera bidaltzeko.

3. 2.- Egur kablea

Izenak berak dioen bezala, egurra (trunkoak) garraiatzeko erabiltzen zen kablea da. Materiale astunak garraiatzen ziren kable hauetan eta egitura eta sistema aldetik sendoagoak ziren belar kableak baino.



Egur kablearen zenbait elementu ikusgai: pilona, kableak eta karriloa.

Garraiatzen ziren materialak honako hauek ziren:

- Trunkoak. Basoak ateratzeko erabiltzen ziren. 4 m. luzerako hainbat enbor jaisten ziren karga bakoitzean.
- Trabesak. Trenbideetan erabiltzen ziren egurrezko trabesak.

Egur kablearen sarrera italiarren

bidez eman omen zen arren, Irati aldean Artaditxuloko Bixente Eskisabelek uztartu zuen. Gerora leku askotara zabaldu zen.

Kable hauek aldikakoak edo aldakorrek izaten ziren. Baso bat ateratzeko muntatzen ziren eta basoa ateratzen bukatu ondoren berriro desmontatu eta beste leku batean muntatzen ziren. Kableak desmontatu eta beste leku batean muntatzerakoan trazaduak gehienetan luzera desberdina izaten zuenez, enpalmeak ere sarritan egin behar izaten ziren.

Muntaiak berak lan asko eramaten omen zuen. Begira, garraiatu behar zen materialaren pisua, terrenoaren trazadua eta kableak berak zituen berezitasunen arabera, Mendiurkulluko Juan Agirrek dionez, 1,5 Km-2 Km bitarteko kable bat muntatzen hilabete eta erdi behar omen zen.

Ataunen basoak ateratzeko kable asko ibili izan dira. Honako hauek aipa daitezke: Marumendikoa eta Gesalbekoa, biak Artaditxulokoak jarritakoak. Lehena

Bixentek (aita) eta bigarrena Antoniok (semea), baina gaur egun zenbait elementuren aztarna besterik ez da geratzen. Egurretako kableaz gain, “cable loco” deritzaien kablean ere egur asko garraiatzen zen, beti ere tamaina txikiko egurrak.

Gure lana, batipat, belarretako kablea aztertzerazuzendu da. Egur kableen datuak jaso baditugu ere, hauek oso denbora gutxirako jarri edo aldi motzerako eraikitzen zirenez gero, ez ditugu osorik aztertu eta barraiei buruz oso argibide gutxi dugu. Baina Ataunen baso asko egon da eta dago; eta dudarik gabe, horrelako kable asko izango zen.

3.3.- Harri kablea

Harria garraiatzeko erabiltzen zen kablea da.

Ataunen baten ezagupidea lortu da bakarrik. Aralegigoikoa baserria 1931ko uztailearen 16an erre zenean, baserri berria egiteko Arastortz menditik Aralegigoikoa baserriaren bordaraino jaisten zen kable hau. Egitura aldetik, egurrezko kablearen berdina omen zen. Zuen desberdintasun bakarra, harria garraiatzeko kaxoi moduko kaxak izatea zen.

4.- KABLEA ETA ELEMENTUAK

Ondoren deskribatzen diren kable sistemak eta hauek dituzten elementuak, gaur egun kontserbatzen diren aztarnetan oinarrituz aztertu dira.

4.1.- Belar kablea

Ataunen izan diren kable ugarietak belar kablea edo “cable loco” izenez ezagutzen direnak izan dira.

- SISTEMA.

Belar kable edo “cable loco” izenez ezagutzen den garraio sistema hau nahiko simple da.

Lehenik, trazadua edo kablea nondik joan behar den markatu behar izaten da. Ondoren, altuera diferentzia duten bi punturen artean eransten da kablea, baina baldintza batekin: bota behar den tokia, iritsi behar den tokia baino altuago egotea.

Garraio sistema honetan kontuan izan beharreko gauza hori da. Kablea lau edo zelai jartzen bada, belar sortak nekez iritsiko dira beren lekura. Beraz, ez du inongo oztoporik ez frenu eta ez ezer; eta sorta belarra kablean jarri orduko, goitik beherantz abiatzen da abiadura bizian.

-ELEMENTU NAGUSIAK.

Belar kablea osatzen duten elementu nagusienak honako hauek dira:


-Kablea

Hasiera batean erabiltzen zen kablea itsas kablea izenez ezagutzen zen. Kanpoaldetik bost hariko txikorda batez bildua zen eta barnealdean sokazko hari bat eramaten zuen. Kable mota hau itsasuntzietan arrantzako sareak biltzeko ibili ondoren berria jartzeko kentzen zenean ekarri ohi izaten zen. Orokorrean, nahikoa gastatuta eta erdoiturik etortzen zen gatzaren eraginez. Baserritar askok aipatu dute erabilerarekin hariak soltatzen hasi eta arazoak sortzen zirela. Hari puskak belarretara erortzen ziren eta ganaduak tragatuz gero, akabatzeo arriskua suposatzen zuen.

Gerora, data zehatzik ez dagoen arren, galbanizatutako kablea erabiltzen hasten da. Kable mota hau Erandioko “Sociedad Franco Española de Alambres, Cables y Transportes Aereos”⁷ fabrikatik ekartzen zen.

⁷ "CABLES METALICOS". Sociedad Franco Española de Alambres Cables y Transportes Aereos.

**APLICACIONES
DE LOS CABLES**




**TRANSPORTADORES AÉREOS
TRANSBORDADORES DE CABLES
PUENTES Y PASARELAS COLGANTES
PLANOS INCLINADOS
Y TRANSMISIONES TELEDINAMICAS**

Sociedad Franco-Española de Alambres, Cables y Transportes Aéreos

CLASE 22 A

**Cables de 6 cordones de 30 hilos 7-10-16)
y alma central de cañamo**

Diámetro del cable en m/m	HILO		Peso aproximado por metro lineal Kgs.	Resistencia a la rotura				
	N.º	Diámetro en m/m		según resistencia unitaria de los hilos por m. m ² de				
			70	100	120	140	160	180
			Kgs	Kgs.	Kgs.	Kgs.	Kgs	Kgs.
9.6	1	0	0,325	2,490	3,546	4,010	4,000	5,000
11.6		0.0	0,460	3,550	780	5,740	6,700	7,660
13.6		0.7	0,630	4,360	6,110	820	9,120	10,420
15.5		0.8	0,825	5,950	8,500	10,300	900	13,000
17.5		0.9	1,040	7,540	10,170	12,920	080	17,230
19.5		0	1,300	9,140	13,340	16,010	18,680	21,350
21.0		6	1,560	10,730	16,140	19,870	22,600	25,330
23.0		1.2	1,850	13,430	19,100	23,050	26,900	30,750
25.5		1.3	2,180	15,750	22,500	27,100	31,500	36,000
27.5		1.4	2,520	18,280	26,100	31,580	35,60	41,840
29.0		1.5	2,900	21,000	30,000	36,000	42,000	48,000
31.0		6	3,300	23,950	34,200	41,050	47,900	54,700
33.0		1.8	4,150	30,200	100	51,750	60,400	69,050
35.5		3	5,100	37,200	135,100	63,250	74,400	84,550
42.5		4	6,200	45,000	164,000	77,100	90,000	102,900
46.5		5	7,400	53,500	76,400	91,700	107,000	122,300
52.0		6	9,300	67,000	96,400	116,100	135,000	154,700



Artaditxuloko Bixente Eskisabelek hasieran eta Aloskako Hilario Agirrek ondoren kable asko ekarri izan zuten lantegi honetatik. Hilario Agirrek Donostiako errepresentante baten bidez egiten omen zuen eskaria eta honek ondoren PESA autobus zerbitzuan bidaltzen omen zion Beasaina.

Hilariok berak lantegi honi buruz utzitako liburuaren indizeari begirada bat ematen badiogu, ikusten da lantegi honetan ze elementu mota egiten zituzten: alanbrea, kablea, kableentzako osagaiak, zubi zintzilikatuak... Baita ere eskari bat egiterakoan eta diametro bat aukeratu aurretik ze datu kontuan izan behar diren: kablea zertarako erabili behar den, kableak nola kontsebatu, kablea nola moztu, e.a.

Gaur egun lantegi hau Erandioko Alzaga auzoan dago eta 20. mendearen hasiera ezkerotik, hau da, sortu ezkerotik kableak egiten dihardu⁸. Eraikuntza eta obra publikoetarako materiala eskainiz: igogailuetarako kablea, plataforma petroleoetarako, zubietarako ...

Galbanizatuen artean kable jartzailea izan den Hilario Agirrereren esanetan Ataunen gehien erabili izan den kablea kanpoaldetik bost hari eta erdiko muina burnizkoa duena izan da.

Kablea eskatzerakoan diametroa edo lodiera zehaztu behar izaten denez, luzera eta garraiatu behar den kargaren arabera finkatu ohi da. Orokorrean, Ataunen belarretan ibilitako kableak 8-10 mm.ko diametroa zuten.



*Kablea
bukaeran
bilduta.*

⁸ Inventario de Patrimonio Industrial y Obra Pública de Gobierno Vasco. 1.992



Txirrikak.



Txirrikaren erdiko ardatzean brontzezko kaskiloa du.

- Txirrikak

Baserritarren artean txirrika ize-
nez ezagutzen den hau polea soil bat
da, bere ardatzetik gantxo bat zintzi-
likatzen duela. Horrela, belarretara-
ko erabili izan diren txirrikak polea-
ren eta gantxoaren egitura aldetik
sailka daitezke.

a) Polearen egitura aldetik hiru
desberdin ezagutu dira:

a.1.- Burnia burniaren kontra
dutenak.

Hauek lehenengotarikoak zi-
ren. Txirrika mota honek akats bat
omen zuen: ibilbide luzeetan asko
berotu eta izugarritzko txispak botaz
jaisten zela. Behin berotu ondoren,
hazi egiten da eta ez du bueltarik
ematen, goitik behera posizio bate-
an jaitisiaz. Horren ondorioz, txirri-
kak berak duen sakana gastatu egi-
ten zaio eta txirrika hondatuta
gelditzen da. Mota honetako txirri-
kak Ermentari, Lazkanotegi, Arine-
txeberria, Muñoa, e.a. baserrietan
gordetzen dira.

a.2.- Brontzezko kaskiloa dutenak.

Polearen ardatzean brontzezko
kaskilo bat daramate.

Lehen aipaturikoen, burnia bur-
niaren kontra dutenen, ondoan ez
dira hainbeste berotzen eta, ondo-
rioz, sorta belarra suabeago jaisten
da. Zenbait baserritarrek aipatu dute
txirrika mota hau Orioko lantegi
batetik ekarri zela eta lantegiaren
izena "Zaldua Ondoazabal" zela ere
bai. Gerora, baserriko semeek lanto-
kian ere egin izan dituzte. Orioko

lantegi horretatik ekarri zituzten Amuñain, Imatzenea, Lauztiazpikoa, e.a. baserrietara.

Beste zenbaitek lantegian egindakoak ere badituzte. Adibidez, Agarretxikin, Sariartegarakoan...

Txirrika mota hau noiz erabiltzen hasi zen zehazten oso zaila da.

a.3.- Errodamenduak dituztenak.

Polearen ardatzean errodamenduak daramatzaten txirrikak dira. Hiruetan suabena bera omen da, baina badu eragozpenik ere. Sorta belarra kablean datorrela disparoa jo ondoren saltatzen denean, txirrika lurrera erortzean, golpearekin errodamenduak honda daitezke. Txirrika mota hau erabiltzen dute Txuloan, Astigarretxen, Agarretxikin...

Gaur egun baserrietan denetarik aurkitzen da, baina kablea erabiltzen jarraitzen dutenen artean azken bi hauek dira nagusienak, eta baserritar bakoitzak badaki ze txirrika mota duen egokiena paraje eta leku bakoitzerako.

b) Polearen tamainaren arabera, honako hauek sailka daitezke:

b.1.- Polea txikia dutenak.

Polea txikia izaten dute, 7-8 zm inguruko diametrokoa. Hauek arin arin korritzen dute eta malda txikia duten kableetan erabiltzen dira gehienbat. Espilla, Arrondo Saletxe, Astigarretxe... kablea erabiltzen duten baserrietan aurki daitezke.

b.2.- Polea handia dutenak.

Polea handiagoa izatean geldiago jaitzen dira, baina egokiak izaten dira malda handia duten kableetarako. Txuloa, Muñoa, Agarreaundi... baserrietan, kablea erabiltzen dutenetan ikus daitezke.

Polearen tamainarengatik bereiztu diren txirrika mota hauek baserri gehienetan aurkitzen dira, baserritarrak orokorrean baldintza desberdinetako lurrak izaten dituelako.

c) Gantxoaren egituragatik ere bitan sailkatzen dira:

c.1.- Gantxo finkoa dutenak.



Polea handia eta polea txikiko txirrikak




Gantxo finkoa

Lehenengoetarikoak edo hasierakoak izan ziren.

Elkarrizketan egon naizen zenbait baserritarrek diote, gantxo finkoa eduki-
tzeak arazo bat baino gehiago sortarazten zizkietela. Hara nola: zuhaitz tarteren
bat zeharkatu edota haizeak albotik jotzen bazuen, gantxoaren mugimendu ezak
txirrika kabletik atera edo erorrarazten zuela.

Orokorrean, gantxo mota honekin bidean oztoporen bat aurkituz gero, txirri-
ka kabletik saltatu eta sorta belarra lurrera erortzeko arriskua zegoen.



Gantxo biratzailea eta finkoa

c.2.- Gantxo biratzailea dutenak.

Geroago sorturikoak eta gaur egun erabilienak dira. Gantxo biratzaile-
lea duten hauek brontzezko kaski-
loa edo errodamenduak dituzten
poleakin konbinatuz aurkitzen
dira.

Ez dute eragozpenik edo alde txar-
riker eskaintzen. Zuhaitzen adar
tartetik edota haizearen erasoeta-
tik erraz libratzen dira edozein
alderditara mugimendua dutelako.

Gantxo finkoa duten txirrika asko
aurkitu dira, ez erabiltzen direlako, jendeak jasota dituelako baizik. Gaur egun
erabilienak gantxo biratzailea dutenak dira.

Gantxo biratzailea eta gantxo finkoa duten txirrikak kablea erabiltzen duten
baserri guztietan ikus daitezke. Adibidez: Agarreaundi, Agarretxiki, Astigarre-
txe, Ermentari, Lazkanotegi, Espilla, e.a.

Egun martxan dauden kabletan erabiltzen den txirrika mota brontzezko kas-
kiloduna edo errodamendua duena da eta biak gantxo biratzailearekin.

- Danborra

Belar kablea osatzen duten elementuetariko bat da.

Danborra metro erdi inguruko luzera eta borobil formako enbor edo txapa bat
da, kablea tiratu edo lasatzeko erabiltzen dena. Bertan kablearen zati bat, 25-30
m., bildurik aurkitzen da.

Danborra goiko edo beheko eranslekuan egoten da. Horrek ez du esan nahi
derrigorrezko elementu bat denik. Izan dira kableak danborrik gabekoak ere. Adibi-
dez, Aldarretazpikoako PASTIELAKI kablea, Urdangarintxikiko TXARA kablea,
Ermentariko BARRUTIAUNDI. Gaur egun, honelako batzuek oraindik ere zutik
daude. Batzuek aipatzekotan, Ermentariko GARTZAZPI, Lazkanotegiko ITSASI,
Arrondo Saletxeko BELAR-DIAUNDI eta Espillako BALASORO.

Aurki daitezke egurrezkoak (Auzmendi, Agerretxiki, Muñoa ...), txapazkoak, barruan hormigoiarekin hartuta, edota burnizkoak (Arraitea, Lauztiazpikoa, Agerreaundi, Txuloa ...).

Orokorrean, kable gehienek egurrezko danborra izaten dute. Danborrerako erabili izan den egurra, materiale gogorrekoa izaten zen, urte sasoi guztian kanpoan inongo babesik gabe egoten zelako.


Egur motaren arabera, gehiengotan agina, haritza eta gaztainarekin eginiko danborrak aurkitu dira.



Auzmendiko egurrezko danborra

Danborrak bere egitura aldetik erdian zenbait zulo izaten ditu leku eta altura desberdinetan kokaturik. Zulo hauetan burnizko edo egurrezko palankak sartzen dira eta erlojuaren orratzen norabidean indar eginez kablea tentsatu egiten da eta alderantziz lasatu. Palankak beti danborrean sartuta egon ohi dira, danborra kableak eskatzen duen posizioan mantentzeko, bestela kablea guztiz lasatuko litzatekeelako.

Burnizko danbor batzuek palankarekin estutzen den apurrari ondo eusteko alboetan karrakak izaten dituzte. Karraka hauek estutzen den bakoitzean hortz moduko batzuekin danborrari posizio berean eusten diote palankaren lana erraztuz. Kasu honetan palankaren beharrik ez da izaten kablea tentso mantentzeko. Mota honetako danborrak dituzte Txuloa baserrian erabiltzen diren PALAU BARRUTI eta MUÑO kableak eta Lauztiazpikoa baserriko ARRIBASO kableak ere.



Burnizko danborra

Orokorrean, ez da lan handirik izaten kablea tiratzen, gehientsuenak motzak direlako, 100 m.tik 300 m. bitartekoak.

Danborra, orokorrean, zutikako bi posteren kontra lotuta joaten da. Postreak danborra bezala egurrezkoak edo burnizkoak izaten dira.

Aipamen berezi bat egin behar da Telleriazpikoa baserrikoek OÑAKO ZELAITIK zuten kableari dagokionez. Kable honek 1.000 m.ko luzera zuen eta Tellerierdiko Jose Arin Dorronsorok dioenez, idiekin tiratuz estutzen zuten.

Esan, kablea neguan hotzarekin kuzkurto egiten dela eta beroarekin dilatatu edo zeditu egiten duela.

Baserritar hauek diotenez, kableak beti behar izaten du lasagune piska bat, ez tentsoegi eta ez lasaegi. Neurria hartu behar!



Astoak kablearen ibilbidean

-Astoa

Astoa malda edo desnibel desberdinetako lurrak zeharkatzean kableak bere trazatu linealean, perfilean, lurra jo ez dezan jartzen den egurrezko eraikin bat da.

Astoak egurrezko bi poste zutika eta gainean zeharka beste bat izaten ditu. Zeharkako egurretik gantxo edo pipa izenez ezagutzen den burnizko gantxo bat zintzilikatzen da, non bere gainean kablea pasatzen den.

Gantxo edo pipa hau daramaten kableetan kontu handia eduki behar izaten da txirrika kablearen gainean jartzerakoan. Gantxoaren ardatza eskuin aldera bada go txirrikaren ardatza ezker aldetik jarriko da, bestela txirrikaren ardatzak pipa edo gantxoaren ardatza jo eta sorta lurrera eroriko bailitzateke.

Kasu berberetatik, asto bat baino gehiago dituzten kableetan ere gantxo guztiak alde batera muntatu behar izaten dira.

Egun zutik dauden kabletariko batzuk badituzte astoak. Aipatzekoak dira Espillako BALASORO, Lauztiazpikoko ASTALEPO eta ARRIBASO, Astigarretxeko IRANALDEA ...

Astotik zintzilikatzen den gantxoan oinarrituz, hiru motatakoak bereiz daitezke:



Astotik zintzilikatzen den gantxo bat eta kablea

1.- Gantxo deritzona.

Gantxo moduko burni bat da puntan kablea apoiatzeko ranura batekin. Puntan duen ranura kablearen diametroa baino zertxobait txikiagoa behar du izan txirrikak bere ibilbidean gantxo ukitu ez dezan. Kablea gantxoaren ranuran mugitu ez dadin alanbrearekin lotzen da.

2.- Pipa deritzona.

Gantxoa baino zabalagoa da eta ez da finkoa, baizik eta mugimendua du.

Sorta belarra goitik behera datorren moduan sortak kableari eragiten dion mugimendu berbera du.

Lanerako gantxoa baino hobeagoa da. Pipa duen astoan belar sorta goitik behera datorrela belarraren pisuak kableari eragiten dion jaiste hori bera egiten du pipan ere.

Gantxoan, aldiz, belar sorta datorrenean nola gantxoak kablearen mugimendurik ezin duen egin, askotan gertatzen zen belar sorta lurrera erortzea.

3.- Plantxuela.

Baserria eta belardiaren tartean mendixkaren bat aurkitzen denean kableari errebuelta moduko bat eman behar izaten zaio, hau da, kablea puntu batetik beste batera zuzen dator, gero puntu batean errebuelta hartzen du eta handik baserriko ganbararaino edo atariraino zuzen sartuko da. Errebuelta hartzen duen lekua plantxuela edo prantxuela izenez ezagutzen da. Kanpoko estruktura egurrezkoa izaten du eta errebuelta ematen den lekuan burnizko txapa bat eraman ohi du.

Burnizko txapa luzera desberdinetakoa izaten da. Luze-



Pipa.




Lauztiazpiko baserriko plantxuela.



Egurrezko giturak eusten dio.

ra baserritar bakoitzaren terrenoak eskatzen duen araberakoa izaten da. Plantxuelak orokorrean errementariiek egiten zituzten. Errementariak baserritarrak esandako luzerako plantxuela burnia prestatzen zuen. Zuzen zuzena egiten zuen eta, ondoren, baserritarrak plantxuelaren muntaia egiterakoan, lur sailak eskatzen zion bihurgunea belardian bertan ematen zion.



Egitura eta norabidea.



Plantxuela honetan kablea bat da.

Horrela, plantxuela kablearen norabidea asko aldatu behar den lekuetan jartzen zen. Plantxuelaren bidez kablearen eta belar sortaren ibilbideak 0° tik hasi eta nahi adinako angelua har dezake.

Txirrikaren ibilbidea plantxuelara iristen denean aldatu egiten da. Plantxuelara iritsi arte kablearen gainean etortzen da, baina hemen plantxuelaren puntarekin kableak bat egiten du eta txirrika plantxuelaren gainean pasatzen den bitartean kablea atzealdetik pasatzen da.

Plantxuela zuten kable batzuek kable guztia puska batean zuten, baina beste batzuek bi puskatan ere bai; hau da, goiko eranslekutik plantxuelaraino kable bat eta plantxuelatik behera beste kable bat, bakoitza bere danborrarekin. Horrelakoak ziren Lauztiazpikoko ASTALEPO kablea eta Arbeldiko ONDARTZA kablea.

Izan diren kable guztietatik gaur egun plantxueladun kableen artean hiru bakarrik mantentzen dira zutik. Bata, Peruenezarra baserriko PATXETA izenez ezagutzen dena, kable bakar batez osatua, eta beste biak, Laustiazpikoa baserriko ASTALEPO eta ARRIBASO izenekoak. Azken bi hauek bi kablekin osaturik daude. Kableen jabea den Jose Auzmendik honela dio: “plantxuelak oker haundia dute eta kable guztia puntu batetik estutzea ezinezkoa delako bi puskatan estutzen dela jarri genuen”.

-Disparoa

Disparoa inbutu formako txapa bat izaten da. Hau kablearen amaierako lotugunetik metro batzuk aurrerago alanbrearekin kableari loturik jartzen da. Bere zeregina txirrikak bertara iristean kabletik lurrera botaraztea da. Txirrika inbutura iristean bere gainean korritzen hasten da baina inbutua, bere formagatik, piskanaka piskanaka zabaltzen dihoanez, txirrika eta belar sorta lurrera erortzen dira.

Belarrak kablean zehar dakarren abiadura dela medio, disparoan saltatu eta 3-4 m. aurrerantzago erortzen da.

Disparoaren lana egiteko txapaz gain, trapu puska edota plastikozko pote bat loturik ere ikusi izan dira.

Orain arte aipatu diren belar kableen elementuak kableen ibilbide guztian zehar honela bananduko lirateke, *kokaturik dauden lekuaren arabera*:

- Belar kablearen elementuak hasieran

Belar kablearen elementuak hasieran esatean eranslekuaren punturik altuenean adierazi nahi da, orokorrean belardian duen eranslekuari deritzo.

Belardian kablearen eranslekua edo loturagunea hiru modu desberdinetakoa izan daiteke eta bertan aurki daitezkeen elementuak honako hauek dira:

- Kablea arbolari lotua egotea eta atzera tirante moduko bat izatea. Aipa daitezke Agarretxiki baserriko SAHATSALDE kablea, Astiagarretxeko IRANALDEA, Espillako BALASORO ...



Disparoa.



Txirrikak disparoari jo eta lurrera!



Kablea arbololari erantsia.

- Hormigoziko oinarria duen burnizko poste bati lotua. Ermentari baserriko GARTZAZPI kablea.
- Kablea danborrari lotua egotea. Auzmendi baserriko UREZAUNDI BURU, Agerreaundi baserriko ETXABURUKoa ...



Kablea danborrari erantsia. Auzmendi baserria.

Ataungo belar kableetan belardiko eransleku modura gehien ikusi direnak lehenengo biak izan dira, hain zuzen ere kablea arbola edo poste bati loturik egotea. Tarteka danborraren kasuak ere badaude, baina danborra goran jarritz gero kablea tiratu ahal izateko indar gehiago behar izaten da.

- Belar kablearen elementuak bidean

Zenbaketa egin den kableen artean gehiengoak, terrenoaren malda edo desnibela kontuan izanik, goiko eranslektutik behera bitarteko bidean ez dute inongo elementurik. Hau gehienbat hainbeste aipatu den orografia ezaugarriaren ondorio da.

Bakar batzuetan, malda edo desnibel desberdinetako lurrak zeharkatzen dituztenez edota baserriaren eta belardiaren artean linea zuzen bat ezin delako eraman, asto deritzaien eraikinak dituzte.



Astoa.

Bidean aurki daitezkeen asto deritzaien eraikin hauek malda txikia edo malda desberdinetako lurrak zeharkatzean sorta belarrak lurra jo ez dezan edo kablearen norabidea aldatzeko jarri izan dira. Orokorrean kable gutxi izan dira bidean astoa zutenak.

Bidean zehar aurki daitezkeen beste elementuetariko bat, protekzioiko sarea da.

Dokumentazioan garbi agertzen da nolakoak izan behar ziren eta zer kondiziotan jarri behar ziren.

Errepidearen ondoan dauden baserriek beren lurrak errepidearen beste aldean zituztenean kablea jarri aurretik Diputazioari baimen eskaria egin behar izaten zioten kablearekin errepidea pasa ahal izateko. Gauza bera gertatzen zen argi

indar nahiz telefono kablearen gainerik pasatzen bazen ere. Diputazioak baimena ematen zuen, baina protekzio modura sarea jartzeko betebeharrekkin.

Nahiz eta baserri askotan eman egoera hau, gaur egun ez da gordetzen garai hartako dokumentaziorik baserrietan. Gipuzkoako Artxibo Orokorrean Lizarrustiko errepidea zeharkatu behar zuen kableari 1923an eman zaion baimena dugu oraingoz honelako sareei buruzko erreferentzi bakarra.

Telefono edo argi indar kablea zeharkatzeko baimenak ordea gorde dira gure baserri batzuetan. Arrondo Saletxe baserrikoak ditugu ondoreneko biak.

Lehenengoa, BELARDIAUNDI kablea jartzeko baimena da.

Idatziak honela dio:



RED TELEFONICA PROVINCIAL

San Sebastián, 7 Marzo de 1936.

Sr. D. Luis Barandiaran .
Caserío "Saletxe-arrondoa"
ATAUN.

Muy Sr. nuestro:

Correspondiendo a su atento escrito del cte., tenemos el gusto de conceder nuestra autorización para el tendido del cable aéreo que trata de instalar y el cual cruzaría las líneas telefónicas de esta Red en el Km 49 a una altura de 12 metros.

Con tal motivo, quedamos de V. attos. s.s. s.s.

q. e. s. m.

EL INGENIERO-DIRECTOR,

1955. urteko beste idatzi bat ere badute kable berari dagokiona, non argi indar kablea belar kablearen azpitik pasatzen zen eta gainerik pasatzea erabakitzen dela adierazten baitzen. Hona hemen, bere edukia:

"En el Barrio "Arrondoa", de Ataun, en las proximidades del Km 50 de la carretera de Beasaín a Navarra, existe instalado desde hace veinte años, previa la obtención de la autorización correspondiente de la Administración, un cable aéreo para transporte de hierbas y leña, que es propiedad de D. Marcial Barandiaran, dueño de la casería "Arrondo-Saletxea", de la que es anejo dicho cable.

Entre otras líneas eléctricas y telefónicas, además de la carretera, cruza el citado cable de la C.T.N.. Hasta la reforma recientemente practicada en esta última, consistente en un nuevo tendido, el cruce del cable con la línea se salvaba defendiendo ésta con la correspondiente protección. Ahora, como consecuencia realizada en el Teléfono, se vió por ambas partes, más que la conveniencia, la necesidad, en interés mutuo evitar accidentes que ocasionarán perturbaciones en la línea, de efectuar el cruce pasando la línea por encima del cable, colocando al efecto poste de altura adecuada, de modo que ésta quedara a salvo de peligros aun durante los trabajos de lanzamiento de fardos de mucho volumen y poco peso (v.g. los de heno seco, a cuyo transporte principalmente se destina el cable) que exigieran la máxima tensión del cable.

Una vez realizado el cruce en la forma convenida, es decir pasando la línea por encima del cable, se ha comprobado en la práctica que los postes colocados son de altura suficiente, ya que queda la línea demasiado baja, de suerte que no permite tensar el cable en la medida suficiente para el lanzamiento de tales fardos: pero además, aunque se tratara de otros menos voluminosos y más pesados (v.g. de leña), que pueden lanzarse con menor tensión de hilo, no ha de perderse de vista que las ondas producidas en el momento del disparo de la carga - tanto mayores más fuertes cuanto más flojo se encuentre el hilo y mas pesados sean los fardos-, podrían alcanzar los hilos inferiores de la línea con el consiguiente peligro de posibles roturas y en todo caso de perturbaciones.

En suma y para terminar, creemos que para evitar tales inconvenientes, haría falta que se instalaran soportes de mayor altura que los actuales. Así se evitaría, al elevar los hilos de la línea en igual medida, que éstos pudiesen ser alcanzados con las ondas del cable aun en su máxima tensión.

Elementu dagozkion zgarai hartako bi argazki kontserbatzen dira. Eta beroietan argi eta garbi ikusten da kableari jarrarazi zitzaion sarea, hark errepide-a gurutzatzen zuenez.

Protektzio modura sarea izan duten baserri eta kableen izenak hauek dira: Larratze baserrian LOPE-TXO, Arrondo Saletxen BELARDIAUNDIA, Urbirtarten SORKOIN BURU, Sariarten AMUNDA, Ibe-rondobarrenan ZULOTA ...

- Belar kablearen elementuak bukaeran

Kablearen amaierako puntuari buruz ari gara. Amaiera desberdinak egon dira, baina bereziki honako hauek aipa daitezke:

- a)- Baserriaren sabaira edo mandiora zuzenean sartzen dena.

Belar sorta ganbara barruraino sartzen da kablea ganbarako poste bati lotzen dela. Aipagarriak dira: Auzmendiko UREZAUNDI, Agerreaundiko ETXABURUA, Gomensaletxeko ITSAISO ...

- b)- Baserriaren atarian amaitzen dena.

Baserri inguruan amaitzen da kablea, gero bizkarrean garraiatuz ganbarara. Aipa daitezke: Agerretxiki-ko SAHATSALDE, Ermen-



Larratze baserriko sarea.



Agerreaundi. Sorta ganbarara sartuz.



Baserri atarian amaitzen da.

tariko GARTZAZPI, Lazkanotegiko ITSASI, Txuloko PALAU BARRUTI eta MUÑO, Sariarteko AMUNDA, Gomensaletzeko SANTITURRI eta JOSE MARI ...

Belar kablea osatzen duten hasierako elementuen moduan, bukaerakoak ere berdintsuak izaten dira. Hor ditugu:



Baserri atarian amaitzen da.

- Arbola edo egurrezko nahiz burnizko poste bati loturik daudenak. Adibidez, Arinetxerria baserrian USUELA, Agarretxikin SAHATSALDE ...

- Danborra deritzon elementuan loturik daudenak. Danborra borobil formako enbor edo burnizko txapa bat da horizontalki jarria eta bere bueltan kablea biltzen da. Txuloa baserriko PALAU BARRUTIKO eta MUÑOKO kableak dira adibide.

Bukaeran dauden elementuez gain, kablean datorren belar sortaren amaiera ere desberdina izan daiteke. Hara nola:

-Disparoan amaitzea.

Inbutu formako txapa bat izaten da, non txirrikak bertara iristean hau jo eta lurrera erortzen diren.

Orokorrean, kablea disparoan bukatzea kable guztietan eman ohi da, bai baserri atarian amaitu edo ganbaran amaitu. Baserriko ganbaran amaitzen ziren kableak garai batean ugariak ziren, baina gaur egun belarrak disparotik saltatzerakoan zoruari ematen dion kolpea eta beste arrisku batzuek tarteko, baserri

batean bakarrik aurkitu da: Peruenezarra baserrian PATXETA izenez ezagutzen den kablea.

- Tranpal edo lurraren kontra amaitzen direnak.

Kanpoan edo atarian amaitzen diren kableetan sarritan egon ohi zen egurrezko egiturazko tranpal bat kablea erantsita dagoen postearen aurrean. Tranpal honek 1-1,5 m.ko altuera izaten omen zuen.



Kablea baserriko ganbaran amaitzen da.

Sorta belarra kablean goitik behera zetorrela tranpalera iristen zenean, belarrak tranpal gaina jo eta lurraren kontra berak frenatzen zuen, sorta bertan geldiaraziz. Gero bizkarrean edo kabaileriarekin karroan etxeratzen ziren belarrak.

Gaur egun tranpal gainean amaitzen den kablerik ez da aurkitu.

Baserri barrura edo ganbarara sartzen ziren kabletari-ko batzuek ere modu horretan amaitzen ziren. Egun, Agarre-undi baserrian ETXABURUTIK datorren kableko belarrak ganbarako lurra jo ondoren gelditzen dira.



Sorta, ganbaran lurra jo eta gelditzen da.

- LAN AMAIERAKO SEINALEA.

Batzuek belardian belarlanetan jarduten zuten bitartean, beste batzuek baserriko atarira edo ganbarara iristen ziren eta sortak, bizkarrean hartuta edo karroaz baliatuz, ganbarara eraman eta bere lekuan jartzen jarduten zuten.

Belardian ari zirenak lana bukatu zutela adierazteko, azken sortarekin batera adierazgarri modura zaku, trapu edo lizar edo haritz adar bat bidaltzea nahikoa izaten zen baserrikoentzat.

- MANTENIMENDUA.

Txirrikak kablean zehar ondo korritzeko, bai txirrikak bai kablea ondo zaindu behar izaten ziren. Horretarako, zenbait baserri- 2 edo 5 urtez behin kablea engrasatu ere egiten zen. Esan behar da gehiengoak ez zuela engrasatzen.

Engrasatzeko ere modu desberdinak erabiltzen zituztela jakin dugu baserri- rrengandik. Hona hemen, batzuek:

- Kablea piska bat lasatu danborretik eta kotoi edo trapu bat olio zikineta- n busti ondoren kable guztia igurtzi. Eskuz egiten zuten. Baserri batzuek aipa- tzekotan, hor ditugu: Aldarretagaraikoa, Espilla, Dorronsoro, Arinetxebe- rria, Urezandi ...
- Kablearen gainean kaxa bat txirrikari lotuta jarri. Kaxak aurrealdean zulo- txo bat izaten zuen, bertatik txirrikak korritzen zuen heinean olio- a erortzen zela kablearen gainera. Larratze, Auzmendi, Peruenezarra, Telleriazpikoa, Telle- rierdi ... baserrietan erabili izan zuten.
- Kaxa bat, aurrean eta atzean zulo bana zituena, jarri olio- z beteta eta kablea bi zulo hauetatik pasatzen zen, oliotan bustiaz.

Txirrikak
eta sokak.



Sorta egiten.



Txirrika kablean jartzen.

- SORTA EGITEKO MODUA.

Kablean bidaltzeko sortak edota bizkarka ekartzeko sortak, biak, modu berdinean egiten dira.

Belarretara abiatzen ziren astoari edo kabaileriarri saskiak jarri eta saskietan txirrikak eta sokak sartu ondoren. Belardira iritsi ondoren, eskuarekin leku bat garbitzen da eta bi soka luzatuta, bata bestearen parean jartzen dira, bien artean 1m.ko tarte batekin. Ondoren, belarra bildu eta hankarak egiten hasten da, hau da, belarra hanka baten kontra bildu eta sorta moduko bat egiten. Normalean 5-7 hankarakin osatzen da sorta belarra. Hankara bakoitza soka hauen gainean jartzen joaten da, ordena batean, sorta osatu arte. Hankarak jartzeko garaian, bakoitzak ordena desberdinak eduki ditzazke. Adibidez: batzuek azpian hankara bat jartzen dute, beste batzuek bi, baina denak azken hankara azpikoen kontrako erara jartzen dute belar sorta lotu ahal izateko. Behar adinako belar kopurua jarri ondoren, soken bidez estu estu lotzen da. Txirrika erans-teko lotura berezi bat egiten zaio. Esan daiteke belar sorta bat egin dela.

Belar sorta bakoitzaren pisua ere aldakorra izaten da, sortak egin dituen pertsonaren eta jarritako materialaren ara-

bera. Normalean, belar onduaz betetako sortak neurri handikoak izan arren, 30-35 Kg. inguruko pisua izan ohi dute. Aldiz, belar berdearekin betetako sortak 60 Kg. inguruan ibiltzen dira, nahiz eta neurritz txikiagoak izan.

Belar sorta kablearen ondora eraman ondoren, txirrika eransten zaio. Gero, txirrika kable gainean jarri eta, bultza pixka pat eginda, sorta maldan behera abiatzen da. Jarraian, beste sorta bat egiteari ekiten zaio.

Kablearen bidez lur sail batetik 25-30 sorta botatzera iritsi daiteke, beti ere lanean ari diren jende kopurua, habilezia, terrenoaren egokitasuna, e.a. kontuan izanik.

Baserri bakoitzean normalki 10-12 txirrika izaten zirenez, mutikoeak astoarekin baserrira jaitsi behar izaten zuten, berriro txirrikak eta sokak belar-diraino igotzeko. Zenbait garaitan egunean bi-hiru buelta egin ohi zituzten.

4.2.- Egur kablea

Gaur egun ez dira kontserbatzen, oso denbora gutxirako jartzen baitziren. Hala ere, lortu den informazioaren arabera, honela deskriba daitezke.

Egur kablea osatzen zuten elementu batzuek honako hauek ziren:

- ELEMENTU NAGUSIAK

Belarretako erabili izan den kablearekin konparatuz gero, hau askoz ere lodiagoa zen eta frenu sistema batez egokitua zegoen. Frenu sistema bat zutenez, kable batek baino gehiagok osatzen zuten.

- Kablea

Egurretako kableak, zuten lodiera eta ezaugarriengatik bereiz zitezken. Alde batetik, honako hauek daude:


- 25 mm.ko lodiera zuen kablea.

Kable honek bi zati zituen:

- Goitik abiatu eta beheruntz “karriloak” eramaten zituena, RETURRA izenez ezagutzen zena.
- Behetik gora “karrilo” hutsak eramaten zituena, PORTANTEA izenez ezagutzen zena.



Sorta baserria bidean



Egur kablea

Egurretako kablea biratzailea izaten zen, hau da, bueltaka ibiltzen zen. Goitik behera zetorren kablean, hots, returra izenez ezagutzen zenean, egur kargak jais-ten ziren bitartean, beste aldean eta kable berean, baina portante deritzaionean, karrillo hutsak igotzen ziren.

- 18 mm. lodierako kablea, KURDINA izenekoa.

Kable honek frenu modura lan egiten zuen. Kable hau dena osokoa zen, ez 25 mm.ko kablea bezala, bi zati zituena.

Goiko eranslekuan bi bolante pasatzen zituen kable honek eta behean beste bat. Kablea 25 mm.ko kablearen azpian joaten zen 30 cm.ko tarte batera, eta karriloa returraren gainean joaten zenez, kurdinari loturik gantxo moduko bat eramaten zuen, honek frenu bezala egiten zuelarik.



Karriloa

Gehienbat, galbanizatutako kablea erabiltzen zen eta Erandion zegoen "Sociedad Franco Española de Alambres, Cables y Transportes Aereos" lantegitik ekartzen zuten.

- Karriloa

Karriloa izena egurretako (trunkoak) txirrikeri ematen zaie.

Belarretakoak polea bakarrekoak badira, hauek bi

polea dituzte. Bi poleak lotzen dituen burnitik goitik behera beste burni bat ateratzen zaio eta erdi parean kurdina izeneko kablearekin lotzen da, honek frenu modura egiten duelarik. Beheran gantxo bat izaten du, egurrak lotu diren kablea edo katea erans-teko.

Karrilo batek 35 Kg.ko pisua izaten du.

Egur karga bakoitzean 4 m.ko trunkoak garraiatzen ziren eta karga bakoitzean bi karrilo jartzen ziren.

Karriloaren poleak errodamenduak eramaten zituzten, poliki-poliki jaisteko.

Belar kableetan ez bezala, egur kableetan karriloak beti abiadura batean jaisten ziren, kurdina izeneko kablea lasatuz edo estutuz abiadura kontrolatzen zelarik.

Karga behera edo deskargaderora iristean, karga kendu, karriloak eskuarekin RETURRETIK hartu eta PORTANTEAREN gainean jartzen dira. Modu horretan, goruntz abiatzeko prest gelditzen dira.

- Pilona

Belar kableetan astoa izenez ezagutu dugun eraikinari pilona deritzaio egur kableetan. Pilona hauek beharrezkoak izaten ziren, terrenoaren orografiatik kablea altuera batean mantentzeko.

Egitura aldetik ere garbi dago sendoagoak izaten zirela bertatik pasatu behar zen karga kontuan izanik.

- EGURRAREN PILAKETA KARGADEROAN

Kable hauek errepede nagusitik urrun eta orografia txarratik pistarik ez zuten basoak ateratzeko erabili ziren.

Lehenengo arbola motozerraz bota, adarrak kendu eta kabaileriarekin edo mandoekin kargadero ondora inguratzen zen. Hemen lau metroko neurriira moztu eta egur tako batzuen gainean jartzen zituzten. Kable edo katearekin lotu ondoren karriloaren gantxo erantsi eta frenu askatuz gotitik behera bidaltzen zen karga. Karga bakoitzean 4-5 trunko bidaltzen zituzten, 2 toneladako pisua askotan.

-SISTEMA

Goian, batzuk kargaderoan egurra preparatzen zuten bitartean, beheran, deskargaderoan, besteak bidalitako trunkoen karga hustutzen zuten.

RETURRA izeneko kablean zehar, 250-300 m.ko tartearekin, egur kargak jaisten ziren eta PORTANTEAN returren jaisten ziren hainbat karga igotzen ziren karriloak hutsik zirela. Kablean zehar, bere luzeraren arabera, 6-8-10 ... karga ikus omen zitezkeen goitik beheruntz, denak batera airean kabletik zintzilik.

Kableak kate biratzaile bat bezala funtzionatzen zuen. Behera karga bat iristen zenean gora karrilo huts bat iristen zen eta karga guztiak bere karrilo hutsarekin parean joaten ziren.

Karriloak, jaitsi eta igo egiten ziren kableez gain, kurdina izenez ezagutzen zen kable bat ere eramaten zuen, portante eta returra baino 30zm. beherago. Karrilo guztiak KURDINA honetara loturik egoten ziren gantxo baten bidez. Kurdina bai kargaderoan bai behean, deskargaderoan, zutikako enbor ranuradun moduko batean pasatzen zen. Kargaderoan bi enbor izaten ziren eta hauetariko batek kanpoaldetik aro edo fleje moduko txapa bat izaten zuen egurrezko tako batzuekin. Aroari loturik bolante edo manila bat izaten zuen eta alde batera buelta emanaz makalez eginiko takoak kablearen kontra estutzen ziren, egur kargak geldiaraziz. Egur karga gelditzen zutenean, behean trunkoak soltatzeko izaten zen eta goian karga berria eransteko.

Frenuarekin bakarrik pertsona bat, beste zereginik gabe, egoten zen.

Kable luzeak eta malda desberdinak zeuden kasuetan, askotan frenuzaleak ez zuen jakiten noiz iritsi behar zen karga behera eta noiz frenatu behar zuen. Kasu horietarako ere eskuzko hitzgailuez gain, kablean bertan hari bat pasatu eta telefono modura komunikatzen zirenak ere bazeuden.

Frenuzaleak frenua poliki-poliki lotu edo askatu behar izaten zuen, gehiegi edota azkarregi askatu edo lotu gabe. Kablea gelditzen zenean, kablearen luzeran egur kargak zintzilik geldi-geldi, altuera eta leku desberdinetan ikusten omen ziren.

Kable muntairako sistema ere belar kableena baino konplexuagoa izaten zen.

Egur kable hauetan lanik handiena kablea bera muntatzea izan ohi zen. Gauzak ondo pentsatuta egin behar izaten ziren: trazaduaren markaketa, kablea bidean zehar luzatzea, behar ziren enpalmeak egitea, pilonak muntatzea...

Egurretako kable batzuk erabili izan ziren Ataunen, adibidez, Gesalbetik Imatzenera Artaditxuloko Antonio Eskisabelek muntatutakoa...



Karriloa

Gesalbeko kable honi dagozkion bi argazki eskuratu dira Artaditxuloko Antonio Eskisabelen bidez. Argazkian kargaderoa, returra, kurdina eta karriloa ikus daitezke.

Egurretako kableari dagozkionez, Imatzene baserrian karrilo bat daukate gordeta eta Larruntza baserrian, berriz, frenutarako erabiltzen zen bolantea, bere tako eta guzti.

- MANTENIMENDUA.

Belar kableak ez bezala, egurretako kableak ez zuen mantenimendu beharrik izaten. Kable hauek aldakorrak ziren eta muntatzen zirenean, basoa ateratzen amaitu arte martxan egoten ziren. Ez ziren belar kableak bezala behin-betiko jar-tzen eta urte sasoi batean geldi egoten. Puntu batean basoa ateratzeko lanak amaitzen zirenean, beste baso bat ateratzeko desmuntatu eta muntatu egiten ziren.

4.3.- Harri kablea

Harri kable modura izendatzeko inongo berezitasunik ez izan arren, aipamen bat egingo da egituraz egurretako kable, baina karga bezala kaxa batzuekin harria garraiatzeko Aralegigoikoa baserrian erabili izan zen kableari buruz. Baserri hori 1931. urtean suak suntsitu ondoren, haren berreraikitze lanetarako menditik harria jaisteko erabili zen. Kablea biratzailea zen eta Artaditxuloko Bixente Eskisabelek muntatu zuen. Kablean garraiatutako harriarekin egin omen zen gaur egun ezagutzen den Aralegigoikoa baserria.

5.- KABLEEN SAILKAPEN OROKORRA

Ikusi ditugu kablearen erabilpen desberdin bakoitzak zituen sistema eta elementu desberdinak. Interesgarria litzateke, ordea, beste ezaugarri batzuek ere adieraztea.

Lan hau dela eta, Ataun oso-osorik zeharkatu ondoren, gutxienez guztira 197 belar kable zirela jakin da, nahiz eta kronologikoki denak batera ez kointziditu. Horrez gain, harri kable baten ezagutza izan da Aralegigoikoa baserrian eta egur kableen zenbaketarik ez da egun lana belar kableetara zuzendu delako.

- **Belar kableen banaketa** egiten bada, ikus daiteke, auzoka kable gehien izan dituen San Gregorio dela, 110 kablerekin; ondoren, San Martin 55ekin; eta azkenik, Aia 32rekin.

Aipamen berezia egin behar da San Gregorio auzoa osatzen duen Lauztierreka auzogunearen gainean. Izan ere, auzogune horretan izan baita kable gehien. Denera, 55 zenbatu dira. Garbi dago, lanerako lur eremu gogorrenak Lauztierreka auzogunean ditugula, aldapa handienak ere bertan egonik. Auzogunea osatzen duten hamahiru baserriak sakan batean daude eta nekazal lur guztiak alboko mendi hegaletan. Hona hemen horietako batzuek: Muski, Oña, Maizko, Elutxe, Añai ... Lur hauen malda, 100 m.ko altuera tartea, urruntasuna eta biderik eza dela medio, kable sistema bere osotasunean garatu zela esan daiteke.

Baserri bakoitzeko kable kopuruari dagokionez, ikus daiteke, Lauztierrekako auzogune horretan baserri bakoitzeko 2,98 kable zeudela. Aldiz, beste auzoetan, San Martinen 1,37 eta Aian 1,88.

Auzoka kable gehien izan dituzten baserriak hauek ditugu:

San Gregorio auzoan Telleriazpikoa baserria 6 kablerekin, hauetatik 5 Lauztierreka auzoan kokaturik, ondoren Lauztiazpikoa, Telletxeberri eta Lauztiturrieta baserriak, bakoitza 5 kablerekin.

San Martin auzoan Aldarretazpikoa eta Imatzenea baserriak, bakoitza launa kablerekin, eta azkenik, Aia auzoan Txuloa eta Erroiondoberria baserriak hiru kablerekin.

Kable zenbaketa auzoka (datu errealak).

Auzogunea	Kable kop.	Baserri kop.	Baserriko kable kop.	%
San Martin	55	40	1,37	27,9
San Gregorio	110	37	2,98	59,8
Aia	32	17	1,88	16,3
Denera	197	94	2,09	100

Kableen banaketa hau liburuarekin laguntzen den planoan ikus daiteke.

Kable bakoitzaren **luzera** dagokionez, ezin daiteke zehaztapen handiegirik egin, begiz jotako datuak direnez. Hala ere, luzeenen artean honako hauek egongo lirateke:

- Esparrutik Garagartza baserrira dihoana. Luzera 1.200 m.
- Musa Gaztiñaritik Garagartza baserrira bitartekoa. Luzera 1.100 m.
- Arginiturritik Dorronsorora baserrira dihoana. Luzera 1.600 m.
- Oñako Zelaia-Larrantxoeta bidea. Telleriazpikoa baserria. Luzera 1.100 m.
- Muskitik Larruntza baserrirakoa. Luzera 1.100 m.
- Muskitik Arratinea baserrirakoa. Luzera 1.500 m.
- Muskitik Lauztigarakoa baserrira dihoana. Luzera 1.000 m.
- Albizuitetik Telletxeberriko atarira bitartekoa. Luzera 1.500 m.
- Aiñaitik Lauztiturrieta baserrira doana. Luzera 1.000 m.
- Muskitik Sorkoin aldera. Gomensaletxe baserria. Luzera 900 m.
- Soabeltzetik Mitxelena baserrira. Luzera 700 m.
- Altxolai- Katarrotegi etxearen atarira. Arbedi Berri baserria. Luzera 800 m.
- Txeutetik Sariarteazpikoa baserrira. Luzera 900 m.
- Amundatik Sariartegarakoa. Luzera 800 m.
- Zulotatik Iberondobarrena baserrira. Luzera 800 m.
- Trukuzaunditik Kaminero etxera. Erroiondozarra baserria. Luzera 1.500 m.
- Ezkalusorotik Aiarreberria. Luzera 900 m.

Orokorrean, Ataunen izan diren kable gehienen batuz besteko luzera, 400-500 metrokoa da.

Egin den lanaren emaitza honako hau da:

01. KABLEA.- ITULAITZ. OKARIZTI baserria.
02. KABLEA.- ITURRIALDEA. BARANDIARANAUNDIA baserria (Suki zeharra).
03. KABLEA.- BELARSOROAUNDIA. KALAKASENEA baserria (Otamots zeharra).
04. KABLEA.- BIDARTE. KALAKASENEA baserria (Otamots zeharra).
05. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. AMUÑAIN baserria (Otamots zeharra).
06. KABLEA.- BAZKAITURRI. AMUÑAIN baserria (Otamots zeharra).
07. KABLEA.- IZKINTZAU. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
08. KABLEA.- ARTEONDO. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
09. KABLEA.- GARTZETXO. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
10. KABLEA.- ALDAETXE. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).

11. KABLEA.- TXARA. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
12. KABLEA.- TXINTXALEKU. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
13. KABLEA.- PASTIELAKI. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
14. KABLEA.- IPARRAMUTU. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
15. KABLEA.- SOARRETA. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
16. KABLEA.- ESPARRUAZPI. ALDARRETAGARAKOA baserria (Otamots zeharra).
17. KABLEA.- DIOSO. ALDARRETAGARAKOA baserria (Otamots zeharra).
18. KABLEA.- ESPARRU. GARAGARTZA baserria (Otamots zeharra).
19. KABLEA.- MUSA. GARAGARTZA baserria (Otamots zeharra).
20. KABLEA.- BEHEKO OTASO. UELAIN baserria (Otamots zeharra).
21. KABLEA.- BELARSOROLUZE. UELAIN baserria (Otamots zeharra).
22. KABLEA.- ITURRITXIKI. UELAIN baserria (Otamots zeharra).
23. KABLEA.- LOIBE BEHEKOA. IMATZENEA baserria (Aitzarte zeharra).
24. KABLEA.- LOIBE GOIKOA. IMATZENEA baserria (Aitzarte zeharra).
25. KABLEA.- BEAMAKO ZELAIA. IMATZENEA baserria (Aitzarte zeharra).
26. KABLEA.- AGERRE SAGASTI. IMATZENEA baserria (Aitzarte zeharra).
27. KABLEA.- AÑOTARI. ETXEBELTZ baserria (Aitzarte zeharra).
28. KABLEA.- ETXEAZPI. MUÑOTXOETA baserria (Aitzarte zeharra).
29. KABLEA.- AIZKOATE. AIZKORRIONDO baserria (Aitzarte zeharra).
30. KABLEA.- ASTOZ. ARALEGIGOIKOA baserria (Aitzarte zeharra).
31. KABLEA.- ETXABURUA. AGERREAUNDI baserria (Ustatxo zeharra).
32. KABLEA.- SAHATSZEHARRA. AGERRETXIKI baserria (Ustatxo zeharra).
33. KABLEA.- LOPETXO. LARRATZEA baserria (Astigarraga).
34. KABLEA.- IRANZEHARRA. ASTIGARRETXE baserria (Astigarraga).
35. KABLEA.- GARTZAZPI. ERMENTARI baserria (Arrondoa).
36. KABLEA.- BARRUTIAUNDI. ERMENTARI baserria (Arrondoa).
37. KABLEA.- IRANAZPI. ERMENTARI baserria (Arrondoa).
38. KABLEA.- ITSASI. LAZKANOTEGI baserria (Arrondoa).
39. KABLEA.-BELARDIAUNDIA. ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).
40. KABLEA.- LOIBE. ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).
41. KABLEA.- BALASORO. ESPILLA baserria (Arrondoa).
42. KABLEA.- ARGINITURRI. DORRONSORO baserria (Otamots zeharra).

43. KABLEA.- ARGINITURRI. ZUGA baserria (Otamots zeharra).
44. KABLEA.- ZUGA. ZUGA baserria (Otamots zeharra).
45. KABLEA.- LANGAMUSU. ALDAKIO baserria (Otamots zeharra).
46. KABLEA.- ABETA. ARITZAUNDIETA baserria (Urrutsu zeharra).
47. KABLEA.- URDANTXO. ZUBIONDO baserria (Arinberriaga).
48. KABLEA.- ZINKO. IGARTZATE baserria (Urrutsu zeharra).
49. KABLEA.- URRUTXALDAPA. IGARTZATEBERRI baserria (Urrutsu zeharra).
50. KABLEA.- ETXE GOENA. ITURRIOZ baserria (Urrutsu zeharra).
51. KABLEA.- ZUGA EKARRA. ARINAUNDIA baserria (Arinberriaga).
52. KABLEA.- ETXABURUA. ARINAUNDIA baserria (Arinberriaga).
53. KABLEA.- USUELA. ARINETXEBERRIA baserria (Arinberriaga).
54. KABLEA.- KIÑU. ARINETXEBERRIA baserria (Arinberriaga).
55. KABLEA.- ITSASI. ARINETXEBERRIA baserria (Arinberriaga).
56. KABLEA.-MUGATERREKA. AUZMENDI baserria (Arinberriaga).
57. KABLEA.- UREZAUNDI. AUZMENDI baserria (Arinberriaga).
58. KABLEA.- GOIKO ITZUBI. UREZAUNDI baserria (Arinberriaga).
59. KABLEA.- BELAN ZULO. ETXETXO baserria (Murkondo).
60. KABLEA.- ZEHARRA. ETXETXO baserria (Murkondo).
61. KABLEA.- DANBOLINTXO. ARBOTONETA baserria (Arinberriaga).
62. KABLEA.-GOIKO OTASO. MUNDUATE baserria (Murkondo).
63. KABLEA.- PATXETA. PERUENEZARRA baserria (Murkondo).
64. KABLEA.- EKAIN. PERUENEZARRA baserria (Murkondo).
65. KABLEA.- ZEHARRA. GOIKOETXE baserria (Murkondo).
66. KABLEA.- MUÑO. GOIKOETXE baserria (Murkondo).
67. KABLEA.- KIÑU. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
68. KABLEA.- OÑAKO ESPARRU. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
69. KABLEA.- OÑAKO ZELAIA. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
70. KABLEA.- OÑAKO ZELAIA. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
71. KABLEA.- ELUTXETA. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
72. KABLEA.- SANTITURRI. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
73. KABLEA.- MUSKI HARIZTI. TELLERIERDIKOA baserria (Murkondo).
74. KABLEA.- ATXURTA. TELLERIERDIKOA baserria (Murkondo).

75. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. ZELABEAR baserria (San Gregorio).
76. KABLEA.- ZEHARSORO. ZELABEAR baserria (San Gregorio).
77. KABLEA.- LARRUNTZA SORO. ZELABEAR baserria (San Gregorio).
78. KABLEA.- TXINGURRITA. LARRUNTZA baserria (San Gregorio).
79. KABLEA.- MUSKI. LARRUNTZA baserria (San Gregorio).
80. KABLEA.- ITURRIZA. LARRUNTZA baserria (San Gregorio).
81. KABLEA.- EKAIN. SABIAGA baserria (Murkondo).
82. KABLEA.- ETXABURU. SABIAGA baserria (Murkondo).
83. KABLEA.- SOROAUNDI. MUÑOIA baserria (Murkondo).
84. KABLEA.- SORALUZE. MUÑOIA baserria (Murkondo).
85. KABLEA.- MUSKI. ARRATINENEA baserria (Lauztierreka)
86. KABLEA.- MAIZKO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
87. KABLEA.- LAIOA. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
88. KABLEA.- ITURRALDE SAGASTI. LAUSTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
89. KABLEA.- ALDABE. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
90. KABLEA.- ASTALEPO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
91. KABLEA.- LAIOA. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
92. KABLEA.- MAIZKO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
93. KABLEA.- ARRIBASORO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
94. KABLEA.- ELUTXE. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
95. KABLEA.-MUSKI. LAUZTIGARAKOA baserria (Lauztierreka).
96. KABLEA.- LAIOTZA. LAUZTIGARAKOA baserria (Lauztierreka).
97. KABLEA.- EUTERA. LAUZTIGARAKOA baserria (Lauztierreka).
98. KABLEA.-MAIZKO. LAUZTIBERRIA baserria (Lauztierreka).
99. KABLEA.- JUANDANTXO. LAUZTIBERRIA baserria (Lauztierreka).
100. KABLEA.- ETXABURU. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
101. KABLEA.- TXANTXON HARIZTI. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
102. KABLEA.- ALBIZUITZ. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
103. KABLEA.- MUÑOTXO. IGARTZATEBERRI baserria (Urrutsu zeharra).
104. KABLEA.- TXANTXON HARIZTI. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
105. KABLEA.- MUSKI. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
106. KABLEA.- ETXABURUA. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).

107. KABLEA.- UGAZAUNDI. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
108. KABLEA.- TXUINITA. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
109. KABLEA.- SOAZARRE. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
110. KABLEA.- MUETUTA. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
111. KABLEA.- GAINSORO. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
112. KABLEA.- GAINSORO. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
113. KABLEA.- AIÑAI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
114. KABLEA.- KOSKAIZTI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
115. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
116. KABLEA.- USANDUNE. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
117. KABLEA.- ETXAGU. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
118. KABLEA.- LAUZI GAZTINARI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
119. KABLEA.- ETXE GAZTINARI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
120. KABLEA.- DORRONTSO. LAUZTITURRIETABERRIA baserria (Lauztierreka).
121. KABLEA.- USANDUNE. LAUZTITURRIETABERRIA baserria (Lauztierreka).
122. KABLEA.- IGARTZETA. LAUZTITURRIETABERRIA baserria (Lauztierreka).
123. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. URRUTSU baserria (Urrutsu zeharra).
124. KABLEA.- ETXABURUA. SOROZABAL baserria (Urrutsu zeharra).
125. KABLEA.- ZURDASO. SOROZABAL baserria (Urrutsu zeharra).
126. KABLEA.- ETXABURU. SOROZABAL baserria (Urrutsu zeharra).
127. KABLEA.- GOIKO ESPARRU. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
128. KABLEA.- HARIZTI PAGO. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
129. KABLEA.- BORDATXIKI. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
130. KABLEA.- ZELAIKO GAINA. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
131. KABLEA.- BARRUTIAUNDI. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena):
132. KABLEA.- AGORTXETA. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena).
133. KABLEA.- TXURDINTXORO. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena).
134. KABLEA.- SAGASTILUZE. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena).
135. KABLEA.- KIÑU. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).
136. KABLEA.- KIÑU. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).
137. KABLEA.- JUANA MARI. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).
138. KABLEA.- JUANA MARI. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).

139. KABLEA.- ITSAISO. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
140. KABLEA.-SANTI ITURRI. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
141. KABLEA.- MUSKI. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
142. KABLEA.- JOSE MARI. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
143. KABLEA.- SOABELTZ. MITXELENA baserria (Ergoiena).
144. KABLEA.- ATXULUS. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
145. KABLEA.- LARRAMUÑO. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
146. KABLEA.- ONDARTZA. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
147. KABLEA.- ALTZOLAI. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
148. KABLEA.- LARRAMUÑO. ITURBE baserria (Ergoiena).
149. KABLEA.- SANTITURRI. URBITARTE etxea (Ergoiena).
150. KABLEA.- SORKOINBURU. URBITARTE etxea (Ergoiena).
151. KABLEA.- SANTRUSKA. URBITARTE etxea (Ergoiena).
152. KABLEA.- TXEUTE. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
153. KABLEA.- SOABERRI. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
154. KABLEA.- KARALDE. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
155. KABLEA.- MENTOLAZPI. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
156. KABLEA.- SARTEGU. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).
157. KABLEA.- AMUNDA. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).
158. KABLEA.- SAGASTI. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).
159. KABLEA.- EKAIZTIMUÑO. SARIARTEBERRI baserria (Ergoiena).
160. KABLEA.-MENTOLAZPI. SARIARTEBERRI baserria (Ergoiena).
161. KABLEA.- MALKORRA. SARIARTEBERRI baserria (Ergoiena).
162. KABLEA.- MALKORRA. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).
163. KABLEA.- ZULOTA. IBERONDOBARRENA baserria (Ergoiena).
164. KABLEA.- BARRUTIAUNDI. ATXURRENEA baserria (Ergoiena).
165. KABLEA.- ZULOTA ZEHARRA. ATXURRENEA baserria (Ergoiena).
166. KABLEA.- MAKI. JUANENEA baserria (AIA).
167. KABLEA.- PALAU BARRUTI. TXULOA baserria (Aia).
168. KABLEA.- MUÑO. TXULOA baserria (Aia).
169. KABLEA.- PALAU BARRUTI. TXULOA baserria (AIA).
170. KABLEA.- OTASO. TXULOA baserria (Aia).

171. KABLEA.-AMUNDA. TXULOLOA baserria (Aia).
172. KABLEA.- SAGASTI. ERROIONDOZARRA baserria (Aia).
173. KABLEA.- TRUKUZAUNDI. ERROIONDOZARRA baserria (Aia).
174. KABLEA.- LERTXUNDI. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
175. KABLEA.- BELAR TXIKITA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
176. KABLEA.- BORDA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
177. KABLEA.- AIZKONETA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
178. KABLEA.- ITURRI. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
179. KABLEA.-TRUKUZANO. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
180. KABLEA.- TXULOSA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
181. KABLEA.- TRUKUZANO. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
182. KABLEA.- ESKALUSO BARRENA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
183. KABLEA.- AIZARRI. AIAGUALDE baserria (Aia).
184. KABLEA.- AIBELAUN. AIAGUALDE baserria (Aia).
185. KABLEA.- AIZARRI. AIAGUALDETXIKIA baserria (Aia).
186. KABLEA.- GAZTIÑARI. AIARREBERRIA baserria (Aia).
187. KABLEA.- ESKALUSORO. AIARREBERRIA baserria (Aia).
188. KABLEA.- MUTEGI TXIKI. AIARREA baserria (Aia).
189. KABLEA.- OLATZA BELARSORO. AIARREA baserria (Aia).
190. KABLEA.- GOIKO SAGASTI. ETXEBERRI baserria (Aia):
191. KABLEA.- DANBOLINTXORO. FELIPENEA baserria (Aia).
192. KABLEA.- ESATE HAUNDI. BEIZTIN baserria (Aia).
193. KABLEA.- GARTXO. ARBILLETA baserria (Aia).
194. KABLEA.- OTASO. URKILLAGA baserria (Aia).
195. KABLEA.- AIZKIÑE. OLATZAUNDI baserria (Aia).
196. KABLEA.- GOIKO BARRUTI. OLATZATXIKI baserria (Aia).
197. KABLEA.- ALDAPA SORO. OLATZATXIKI baserria (Aia).

6.- EGUNGO EGOERA

Herri mailako inbentarioa egin ondoren, guztira 197 kableen berri izan dugu. Kable hauetatik, egun, 32 oraindik ere zutik egon arren, erabiltzen direnak 17 besterik ez dira. Erabiltzen diren kable guztiak egoera onean daude eta zutik dauden beste zenbait ere bai.

Martxan dauden kable hauen luzera orokorrean, 100 m.tik 300 m.artekoa da eta honako hauek ditugu:



Sorta belarra kablean.

San Martin auzoan:

- 31. kablea.- Etxaburua. Agerreaundi baserria.
- 32. kablea.- Sahatsalde. Agerretxiki baserria.
- 34. kablea.- Iranazpi. Astigarretxe baserria.
- 35. kablea.- Gartzazpi. Ermentari baserria.
- 38. kablea.- Itsasi. Lazkanotegi baserria.
- 53. kablea.- Usuela. Arinetxeberría baserria.
- 57. kablea.- Urezaundi. Auzmendi baserria.

San Gregorio auzoan:

- 83. kablea.- Soro Haundi. Muñoa baserria.
- 84. kablea.- Soraluze. Muñoa baserria.
- 97. kablea.- Eutera. Lauztigarakoa baserria.
- 140. kablea.- Santiturri. Gomensaletxe baserria.
- 142. kablea.- Jose Mari. Gomensaletxe baserria.

Aia auzoan:

167. kablea.- Palau Barruti. Txuloa baserria.

168. kablea.- Muñoa. Txuloa baserria.

178. kablea.- Iturri. Erroiondo baserria.

187. kablea.- Eskalusoro. Aiarre Berria baserria.

190. kablea.- Goiko Sagasti. Etxeberri baserria.

Badaude beste 15 belar kable erabiltzeari utzi eta muntatutako moduan belardian utzita daudenak. Batzuei astoa osatzen duten egurrak erori egin zaizkie, usteldu ondoren, baina orokorrean gehienak, nahiz eta erabilpenik ez izan, egoera onean daude. Honako hauek dira:

San Martin auzoa:

11. kablea.- Txara. Urdangarintxikia baserria.

39. kablea.- Belardiaundia. Arrondo Saletxea baserria.

41. kablea.- Balasoro. Espilla baserria.

63. kablea.- Patxeta. Peruenezarra baserria.

San Gregorio auzoa:

90. kablea.- Astalepo. Lauztiazpikoa baserria.

93. kablea.- Arribaso. Lauztiazpikoa baserria.

118. kablea.- Lauzti Gaztinari. Lauztiturrieta baserria.

124. kablea.- Etxaburua. Sorozabal baserria.

126. kablea.- Etxaburua. Sorozabal baserria.

139. kablea.- Itsaiso. Gomensaletxe baserria.

157. kablea.- Amunda. Sariartegarakoa baserria.

Aian auzoa:

166. kablea.- Maki. Juanenea baserria.

179. kablea.- Trukuzano. Erroiondoberri baserria.

183. kablea.- Aizarri. Aiagualde baserria.

191. kablea.- Danbolintxoro. Filipenea baserria.

Zutik dauden kableez gain, beste 21 kabletan kablea osatzen zuten elementuren baten aztarna ikusi izan da, hau da, astoren bat, kablea moztuta lurrean utzirik ...

Gainontzeko 144 kableak desagertuta daude jadanik.

Hala ere, oraindik ere baserri askotan gordetzen dituzte txirrikak eta sorta egiteko sokak.

Balorapen hau egin ondoren, aurrerantzera kableak izango duen perspektiba argi eta garbi ikus daiteke. Gaur egun teknika modernoak sartu dira, orain bideak egiten dira eta lana asko errazten da makinariaren bidez. Belar lana ere, eskuz egin ordeztu, dena mekanizatu egin da, belarra moztu, bueltatu, bildu eta fardoak egin dena traktorearen bidez egin daiteke. Ondorioz, baserrietatik urruti gelditzen diren belardietan jadanik pinua besterik ez da ikusten; bestela, esan gure baserriarrei garai batean Muski zeharran zer nolako belardi sailak ziren. Egun, pinua besterik ez da ikusten. Hori bera gertatu da beste mendi askotan zeuden belardi eta kableekin ere. Adibidez: Txente, Añai...

Belarra bidaltzeko kableak jarri ziren, baina gero belardiak pinudi bihurtu ziren, eta kitto! Ez da gehiago kablearen beharrik izan.



Belardi asko pinudi bihurtu dira.

Beste batzuetan, aldiz, oraindik ere irauten dute, makineria sartzeko lur aldapatsuak eta desegokiak dituztelako.

7.- KABLELARIAK

Oso garrantzitsua izan zen kablea Ataungo nekazal munduan, eta hori horrela, bere eraikuntza edota mantenimenduan ibilitako ataundar askoren berri izan dugu. Horien artean, aipagarriak dira honako hauek: Jose Rezola, Espillako Juan Eskisabel, Arbotonetako Jose Baztarrika, Aloskako Hilario Agirre, Mendiurkulluko Juan Agirre, Larruntzako Luis Agirre...

Ataundar hauek, gazte garaian, baso mutil modura baso lanetan ibili ziren. Gehientsuenak, beraiek dioten bezala, Artaditxuloko Bixente Eskisabel maisuaren agindutara.

BIXENTE ESKISABEL URBIZTONDO

1899ko abuztuaren hogeita batean jaio zen Ataungo Artaditxulo baserrian eta 1955eko martxoaren batean hil zen Iruñean. Bere seme Antoniok dioenez, aurrena sorta belar koxkorrak botatzen hasi zen. Gero, KIÑU izeneko parajetik frenuarekin jarri omen zuen kablea. Kablea biratzailea omen zen: goitik behera sorta bidaltzen zuen eta beheko kabletik goruntz trunko bat erantsita igotzen omen zen, harek frenu bezala egiten zuelarik. Ondoren, egurretako kablearekin hasi zen, eta Antoniok dioenez, Espainiako lehenengoetariko bat izan omen zen. Bixente bere kabuz hasi omen zen. Berezko trebeziak eta ausardiak eraman omen zuen kable mundura. Aita bezala, Antonio semea ere, lan berean hasi zen.

Bai Bixenteren lana eta bere seme Antonioren basoaren transportea egitea izaten zen; hau da, kablea muntatu eta egurra jaitsi Tn.ko hainbesteko prezio batean. Basorik ez zuten erosten.

Antoniok garai hartako zenbait pasadizu kontatu dizkigu:

“Burgetetik Seu de Urgelera (Leridan, Andorra ondoan) 14.100 metroko kablea direkto jartzea inor ez zen atrebitzen, baina gure aitazanak izan zuen balorea. Niri jarri materiala - esan omen zuen -. Bide erdian deskarga egin behar omen zuen eta 14 Km. kableren bide erdian deskarga egiten hasi, deskargatu, hurrengo goizean kargatu beste kablean; haiek lan handik dira, ni bezala ibili denak bakkarrik daki zer nolako lanak diren. Ez duzu sinistuko, baina ez 3 km.ko eta ez 2 km.ko kablerik, ez dugu euki inon, gure bizi guztian, hura baino hobeto ibili zenik”.

“Burgeten lanean ari zirela Espainiako Erregearen amandrea Burgetera beraneatzea etortzen eta, ikusi du kriston trunkoak jaisten. Batek esan omen zuen: ¿Quién manipula estos cables? -Pues un tal Bixente Eskisabel. Hala, hots egin eta lokalizatu omen zuten eta Andaluziara eraman omen zuten, Provincia de Sevilla mendia ateratzera”.

“Azparrenen Lazaro izeneko bat bazen, Estanis esaten geniona. Honela esan omen zuen kablea direkto jarri behar zuela jakin zuenean: “Ese tío está loco. ¿Qué se cree ese, que son pajaricos?”.

Antoniok bi baso erosi zituen materiala ateratzeko, eta horietako bat Ataungo Gesalbe mendian. 3 km.ko kablea jarri zuen hilabete bat pasa ondoren eta, basoak zituen 800 tn. egur atera ondoren, ezin izan zuen kablearen lana amortizatu. Beraz, garbi dago muntaiak zer nolako lana suposatzen zuen.

Kable lanean, kablea baso batetik bestera ibiltzen zuten. Batzutan enpalmeak egiten zitzaizkion eta bestetan, berriz, moztu. Dena eurak egiten zuten.

Kable osoak 9 urteko bizia izaten zuen.

Artaditxuloko Eskisabel hauek, 40 lagunez osaturiko 8 konpainiatan 300 lagun izan zituzten lanean. Konpainia bakoitzak leku desberdinetan lan egiten zuen. Lan gehiena Azparren, Anso, Zuriza, Burgete... inguruetan egin zuten.



Jose Baztarrika Munduate

JOSE BAZTARRIKA MUNDUATE

Ataungo Arbotoneta baserrikoa, 1925eko abenduaren hamarrean jaio zen.

Baso mutil bezala lanean ibili zen. Juan Mari anaia bera baino lehenago hasi zen baso lanean. Bixenteren baso mutilen enkargatu modura lan egiten zuen. Jose bere anaiarekin Marumenditik Lizarrustiko 60. K.P.ra egurra ateratzen eta “cable loco”an Markesaren basotik eta Artilako Jose Migel eta Teleri Erdiko Jose Manuel hartutako basotik trabiesak botatzen hiru uda ibili zen.

Saltsamenditik Iberondobarrenera ikatza botatzen ere bai. Aldiko 2 zaku ikatz botatzen zituen. 2 km.ko “cable loco”a zen eta telefonoa eta guzti zuen. Bere lana ikatz zakuak kablean botatzea zen, juntatzea beste batzuek egiten zutelarik.

Gerora, etxean etorkizunik ikusi ez eta nonbaitera atera egin behar zela eta, anaiarekin Iratira joan zen 18 urterekin. Mendian hiru hilabete egin zituen etxera etorri gabe. Baso lanetan hiru uda eta erdi egin ondoren, anaia kable istripu batez hil zitzaion eta erretiratu egin zen.

Jose bera honela definitzen da:

“Kargaderoan ona nintzen, baina kablea jartzerakoan neroni erresponzabilitatea eman ez gero deziditu ez nintzen egiten, beste norbait behar nuen aurretik, baina ikasi nuen mendin lanean”.

Ondoren, Larruntzako Luis Agirrerekin Marumendin, urte bat entresakan ibili ondoren, azkenik, C.A.F. lantegian hasi zen lanean.

Geroztik, “cable loco” edo frenurik gabeko batzuk ere muntatu zituen: Urkio-la gainetik-Umarkira 1950. urtean, 1-1,5m. luzerako egurra garraiatzen zelarik

kable honetan; Zubiondokoei ere muntatu zien, Iturtxo ondotik kargaderora dihoana, 1960. urtean.

Josek honela dio elkarrizketan Bixente Eskisabeli buruz: “*Injineru batek baino fama gehiago zuen*”.

HILARIO AGIRRE URDANGARIN

Ataun San Gregorioko Iturritzatxikia edo Aloska etxekoa, 1922ko irailaren hamalauan jaio zen.

Baso mutil bezala hasi zen lanean. Nonbaitera joan egin behar lanera eta soldaduskatik etorri ondoren Altsasun hasi zen. Han, Rezolatar bi anai eta Diego Arratibel ataundarrak ari ziren lanean. Ondoren, leku batetik bestera ibili zen.

Rezola eta bien artean, Iruran 1.500 m.ko kable bat muntatu zuten bere frenu eta guzti, materiala bestek jarrita. Ondoren, C.A.F. lantegian hasi zen lanean, baina hala ere jarraitu zuen kableak jarri eta enpalmeak egiten.

Lan gehiena lehengo kable zaharrek aldatzen eta enpalmeak egiten izan zuen.

Kable aldaketa egiteko, kable berria, kable galbanizatua, Bilbora eskatzen zuen Donostiako errepresentate baten bidez eta Pesa garraioan Beasaina bidaltzen zioten.

Kablearen luzera jakiteko, lehenik bi lagunen artean soka baten bidez terrenoa neurtzen zuten, nahiz eta erreka, sakana edo harkaitza egon. Ondoren kablea goitik behera tiratzen zuten eta beheran muturra erantsi ondoren trokolakin gora tiratu.

Hemen erabili den kablearen diametroa 8-10 mm.koa izan da. Kablearen diametroa kablearen luzera eta garraiatu beharreko materialaren arabera aldatzen zen.

Kablea metroka ordaintzen zuen, 10 mm.ko kablearen metroa 12 pta. kostatzen zen eta 8 mm.koa, berriz, 9 pta.

Hilariok Iturriza, Sariarteazpikoa, Iberondobarrena, Arbeldi eta Gomensaletxe baserrietan jarri izan ditu kable berriak.

Kable berri horietako bat jartzerakoan gertaturikoa honela kontatzen zuen: “Gomensaletxen Muskitik zetorren kablearekin bota nuen igande bat. Zer egin



Hilario Agirre Urdangarin.

genuen, idikin igo ginen haruntza, Muskira. Lehenago zaharra zegoen eta berria eransteke egur sorta egin eta kable berriaren punta erantsi eta egur sorta bota genuen. Hau bota genuen bestela zerorri etorri behar zenuen zulo guztian puntarekin. Baina ez zuen ekarri, gelditu egin zitzaigun. Zapatua zen, zapatu arratszeharra, goizean fabrikan lan egin eta Arratineako idikin igo genuen Muskira. Hori egiten hasi eta gelditu egin ginen hurrengo egunean egiteko. Hurrengo goizean joan ginen eta kablea dena beheko zulora etorrita zegoen berekasa, dena etorri kablea eh! Hura zen lioa, kable guztia nahastuta, ene, nik ordun... Gero dena lepoz igo behar behetik gora punta hartuta, dena kixpiurtuta (bihurrituta) zegoen. Kixpiurrak kentzea ikaragarri zaila baita”.

Enpalmeak egiten besteei begiratuta ikasi zuen berekasa. Kableari erdiko muina kendu behar izaten zaio besten puntak sartu ahal izateko. Kable galbanizatuan zaila izaten da erdiko haria ateratzea. Itsas kablearen erdiko muina sokazkoa izaten zen eta errazagoa enpalmatzeko.

12 mm.ko diametroa duen kablea baldin bada enpalmea egin behar zaiona, orokorrean 12 m. hartzen dira, 6m. alde bakoitzetik. Kable biak bihurria alde batera eduki behar dute, eskubira edo ezkerrera. Bat askatuta badago, ondo ikusi behar da ze aldetara soltatu den, bestea ere alde horretara askatzeko.

Kable galbanizatuan enpalme bat egiten 2 ordu behar izaten dira -Hilariok dioenez- eta landibe txarra omen da buruz behera jarrita aritu behar delako.

Azken enpalmea Txataineneko oilo granjan egin zuen ximaurra biltzeko kablean.

Arreglo edo konponketetan Aldarretazpikoan, Lauztierrekan, Tolosako kanteran, Altzoko minatan... ibili izan zen.

Elkarrizketa laburbilduz, honela zion Hilariok: “Ofizio honetan ikasi ez banu hobe nuen, ez nuelako negoziarik egin, lana bakarrik”.

Artaditxuloko Bixenteri buruz zera dio: “Berekasa ikasi zuen ofizioa eta artista bat zen”.

JUAN AGIRRE BEGIRISTAIN

Ataungo Aia auzoko Mendiurkullu baserrian jaio zen eta gaur egun Lazkaon bizi da.

Hamabost urterekin hasi zen Artaditxuloko Bixenterekin piska bat lanean, Lareotik Lizarrustiko 60. K.P.ra egurra jaisten. Gero, Akerretako errekatik Giforsa tailerrera egurra garraiatzen ibili zen. Egurra kaxatan garraiatzen omen zuten 1m.ko egurra m³ bateko kaxa batean karrilo batekin. Behera iristen zenean kaxaren azpiko basea ireki eta deskargatzen omen zen.

Bixenterekin pixka bat ibili bazen ere, berekasa ikasi omen zuen lanean Juanek. Honela esaten du: “Gehiena ideiak balio izaten du eta hortik hasten da”.

Soldaduskatik etorri ondoren hasi zen benetan lanean, kableak muntatu eta basoak ateratzen. Ataunen jarri zuen lehenengo kablea Totasoron izan zen, Urdangarin gainean. Geroztik, erabat baso lanetan jardun izan da; berak jartzen zituelarik kableak, enpalmeak egin, pilonak muntatu, telefono haria pasatu, e.a.

Bost kable batera muntatuta omen dago eta behin baino gehiagotan kotxean ere lo egin omen zuen.

Ataunen lau-bost aldiz muntatu zituen. Lizarrustin, Intxustitik Zaldibira, Depositutatik... Azken honetan "londena" izenez ezagutzen dena eduki zuen, hau da, lehenik motor baten bidez materiala zegoen puntutik gorantz ateratzen da tarteko basoa ez hondatzearren eta ondoren kablean garraiatu.

Materiala alkilerrean hartu edo erosi egiten zuen, hala berria nola erabilia. Partida bat Aoizko Garriz lantegitik erosi zuen, hauek kable asuntoan ibiltzen baitziren. Gero, lana murriztean, lan hidraulikoetan hasi ziren eta beste lan batzuek hartu zituzten.

Juanek muntatutako kablerik luzena 6,5 Km. pasakoa izan zen, Iratin. Ondoren, kablea bertan saldu omen zuen.

Kablea jarri aurretik nondik nora etorri behar zuen bretxa bat ebakitzen zen. Ondoren, piona muntatu eta kablea luzatu eta tiratzen. Kilometro bateko kablea jartzeko behar ziren trasteekin kamioikada bat osatzen zen.


Juan Agirre 30 urtetik gora ibili izan da egurra garraiatzeko kableekin lanean. Azkena, Zaldibiko Tejerira jarri zuen.

Gaur egun, kablearekin zerikusirik duen inongo elementurik ez dauka gorde-ta, dena saldu baitzuen.

Juanek dio Bixente Eskisabel kableekin 1932-1937 urteen tartean hasi zela italiarrei ikusita eta bera izan zela lehenengoa.

JOSE REZOLA ZEBERIO

Ataunen jaio zen 1927ko abuztuaren zazpian. Hamalau urte zituela hasi zen baso mutil bezala lanean. Bixente Eskisabelen agindupean hasi zen Marumendi Lareoko urtegia dagoen lekutik Lizarrustiko 60. K.P.ra egurra garraiatzen kable bidez. Ondoren, pasa izan ditu Irati, Orreaga, Altsasu eta beste zenbait leku. Gehienbat Artaditxuloko Bixenterentzat ibili zen, baina izan zituen beste



Jose Rezola Zeberio

nagusi batzuek ere: Larruntzako Luis Agirre, Espillako Juan Eskisabel, Patxi Eugi izeneko napar bat...

Baso mutil lanean bere lana frenuan edo kargaderoan trunkoak jartzea izaten zen.

Hilario Agirre eta bien artean zenbait baso ere atera izan zituzten, kablea eurek muntatuta. Azken kable hauek frenurik gabeko kableak ziren, "cable loco" deritzatenak.

1951. urtean, 24 urte zituela, baso lanak utzi eta C.A.F lantegian hasi zen lanean. Urte hortatik aurrera mendietan pistak irekitzen hasi ziren eta kable lana desagertzen hasi zen. C.A.F.en lanean ari zela, COMEVASA lantegian kabletaz zekien norbait behar zutela eta lantegiz aldatu zen. Bere lana kable asuntua zen, hau da, gruako kablei tiranteak jarri, lazoak egin...

Lantegian hasi ondoren, zenbait kableren konponketak ere egin zituen: enpalme berriak egitea...

Mantenimendu aldetik ez zuten lan handirik ematen ez egurretan ibiltzen ziren kableek ez eta belarretakoek ere. Belarretakoak, belar garaia pasatu ondoren, olioarekin ondo engrasatu eta hurrengo urte sasoirako jasotzen ziren. Kablea zenbait lekutan olioarekin engrasatu izan da, baina ez da gaiza generikoa izan.

Kablelari guzti hauek, ikusi den bezala, egur kablearen munduan hasi ziren lanean baso mutil gisa. Basoko lana lan arriskutsuagoa eta gogorragoa izanik, bertan ikasitakoa nahikoa eta soberan izan zuten ondoren zenbait belar kable jartzeko. Horixe gertatu zen herriko kablelari hauekin. Denak lantegian lan egin izan dute, tarteka kableak konpontzen eta jartzen jardun arren.

8.- LANEKO GORA-BEHERAK

Urte asko pasa diren arren, kablearekin lanean ibili ohi ziren baserritarrek izan zituzten beste edozein lanetan bezala euren gora-beherak. Kableak bizimoldean, ume jolasetan, e.a.etan gertakari batzuk utzi ditu. Gora-behera modura aipatuko ditugu:

Belar sortak bidean gelditzea

Kablea luzea zenean eta erdian sakana harrapatzen zuen kasuetan edota hai-zeak jotzen zuenean, batez ere hegoak, sorta belarrak bidearen erdian gelditzen ziren. Kasu hauetan, gehiengoaren jokabidea beste sorta belar bat botatzea izaten zen, modu horretan, azkeneko sortaren bultzadaz aurrekoa mugitzeko.

Metodo hau normale-
na izanik ere, askotan ez omen zen seguruena, botatzen zen sorta belarra bera ere gelditzeko arriskua izaten zelako. Orduan, pisu gehiagoko beste zerbait botatzen omen zuten: egur zatiren bat edota txirrika bi soka zintzilik zituela bidaltzen omen zen, gero, txirrika sorta belarraren ondoan gelditzen zenean, behetik sokari heldu eta tiraka eramateko.



Gelditutako sortai bultzaka.

Kasu arriskutsuagoetan, txirrikan sokak pasatu eta kolunpio modura jarri eta bertan pertsona bat eserita jarri ondoren, kablean behetik gora eskuekin lagunduz belar sortaren ondoraino igo eta bi gauza egin omen zitezkeen:

- Gelditutako belar sorta txirrika kabletik soltatuz bertan behera bota.
- Pertsona bera belar sortaren gainetik atzera pasatu eta atzetikan belarrari bultza egin ondoren bera ere kablean jaitsi.

Pertsona kablean zehar igotzea noizbehinkako gauza izaten omen zen, baina Arratineakoak kontatu digu pasadizu bat, Muñoko “Amerikano” izenez ezagunak egina.

Ikusi omen zuen sorta belarra kablearen erdian geldituta eta hanka eta eskuekin lagunduz hor abiatu omen zen kablean behetik gora sorta zegoen lekuraino. “Denak ikaratuta egon ginen. Beldurra genuen sorta belarrak indarra hartzen

bazuen, beheran tranpalaren kontra lehertuko zela eta oso larri egon ginen. Azkenik ez zitzaion ezer pasatu”.

Ume jolasak

Zenbait baserritan mutiko kozkorrak jolasean zebiltzala behin baino gehiagotan konturatu gabe saltatzea ahaztu zitzaielako edota saltatzerakoan txirrikaren gantxoaren arropan katiatu zitzaielako zenbait metro kablean zintzilika etorritakoak izan omen ziren.

Hori bera gertatu zitzaion Auzmendi baserriko Jose Mari Urdangarini mutiko garaian.

“Beti murko ondoraino txirrikari eskuarekin helduta kablean etortzen nintzen eta gero saltatu egiten nuen. Behin esku mutur ondoan txirrikaren gantxoaren katiatzen zait alkandoratik eta beso batetik zintzilik non abiatzen naizen murkotik behera. Han etorri nintzan metro batzuetan alkandora hautsi eta lurrera erori nintzan arte. Kabletik lurrera ere metro batzuek bazeuden. Hura zen sus-toa, kolpe batzuek besterik ez nituen izan”.

Baserri erretzeak

Lehen aipatu den bezala, kable asko baserriko ganbara barruraino sartzen ziren. Lan aldetik abantaila baldin bazen ere, bazituen bere desabantailak ere. Aipatzekoak dira: ganbarako zoruari ematen zitzaion golpea belar sorta lurrera erortzen zenean edota tximistak jotzen zuenean. Tximistarekin beti beldurrez egoten ziren, tximista kablean zehar ganbararaino sar baitzitekeen eta baserria guztia erre.



*Arriskutsua
ere ba zen.*

Tximista dela medio, Lauztiazpikoa baserria erre zen 1956. urtean, belar kablean tximista ganbarara sartu eta belarrak su hartu ondoren.

Beste batzuk

Atal honetan aipa daitezke kablearekin lanean zihardutela gertatutako gora-beherak: txirrika kablean jartzerakoan behatz harrapatzeak, palankarekin danborretik kablea tentsatzerakoan palankak aldegin eta gorputza golpatzea...

Horixe bera gertatu zitzaion Ermentari baserriko Antonio Goikoetxeari. Kablea danborrean estutzen hasi omen zen eta halako batean eusten ari zen palankak aldegin eta masailean jo omen zion ebaki bat eginez.

Jakina, aipatu ditudan gertakari horiek, gertatutako batzuek baino besterik ez dira. Baina hala ere argi eta garbi erakusten digute lan tresna eta bizimodu baten, kablearen egunerokotasuna, gero eta ezezagunago dugun egunerokotasuna, hain zuzen ere.

9.- AMAIERA

Balorazio modura esan daiteke nekazaritza munduak ere aurrerabide handiak jasan dituela teknika aldetik. Garai haietan, XX. mendearen lehen hamarkadetan, Ataungo baserritarrentzat kable sistemak aurrerabide handia ekarri bazuen ere, ondoren teknika modernoagoak sortu ziren. Ezin genezake esan teknika batek bestea menperatzen duenik, baizik eta nekazaritza munduak bizi duen aurrerabideak kable sistemaren teknika desagertzea ekarri duela.

Egun, Ataunen kablea erabiltzen duten 14 baserrietako (Agerreaundi, Agerretxiki, Astigarretxe, Ermentari, Lazkaotegi, Arinetxeberria, Auzmendi, Muñoa, Lauztigarakoa, Gomensaletxe, Txuloa, Erroiondo, Aiarreberria eta Etxeberri) egoera honako hau da:

- Alde batetik, ganadu kopuru txikiko baserriak direnez, teknika berrien aurrerabidea, traktorea ... ez dira beharrezko tresna bezala kontsideratzen.
- Bestetik, beti aipatu den orografia azpimarratu nahi nuke. Ataunen errepidearen bi alboetara begirada bat emanez gero, lur aldapatsu eta, ondorioz, makineriarentzako desegokiak franko ikus ditzakegu.

Tristea den arren, faktore hauek dituzten baserri asko denbora gutxi barru desagertu egingo dira baserri modura. Baserri askotan jende edadetua ikusten da eta errelebo eza ere nabarmentzen da.

Egun, baserrietako gazte askok, euren gurasoen bizimoldea ikusi ondoren, industriara edo zerbitzuen sektorerara jotzen dute lan bila. Baserrian badakite goizetik iluntzerarte ez dela lanik faltatzen eta diru-sarrera ez dela industrian bezain oparoa. Opor egunak ere, ahotik atera orduko haizeak eramaten dituen hitzak dira baserritarren artean.

Baserriko ohiko lana, bigarren mailako iharduera bihurtzera dihoa. Hori horrela, baserria aste bukaeratako egonleku eta aisialdi modura antolatzen da, fruita arbolak jartzen dira, erleak, baratza ...

Egungo baserriaren egoera eta errealitatea ikusi ondoren, ez dut baserria irtenbiderik gabeko zulo beltz baten modura jarri nahi. Badakit baserri batzuk hustu edo birmoldatuko direla; baina, hala ere, badaude gazte asko baserrian jarraitu nahi dutenak edo baserriari eusteko konpromezua hartzen dutenak. Horietako bat naiz ni neu ere. Baserrian jaio eta hazi ondoren, lurra eta animalien mundua gustoko izanik, nekazal ikasketak burutu nituen eta egun, ezkondata, baserri batean bizi naiz.

Esan behar da baserritarrak aurrera atera nahi badu, egungo teknika aurrerabideek dihoazen gurdi berean joan behar duela eta baserria enpresa bihurtu.

Horrek baserrietako lan egiteko ohiturak galtzea dakar, herriko ondarea, giroa, natura eta bizimodua eraldatzearekin batera.

Hor dugu baserrietako historia eta bizimoldearen adierazgarri izan den BELAR KABLEA. Ataungo historian, teknika eta ondare elementu garrantzitsu bezela deskriba genezake.

Gure aiton-amonen artean ezinbesteko lan tresna zen baserriko lanerako. Aurrerabide handia izan zen beraientzat bizkarka ibiltzetik kablean bota eta bat batean baserriko atarian belarra, garoa ... izatea.

Beraz, belar kableak garapen teknologiko berezi bat duen gizarte bati buruzko informazioa ematen digu. Belar kableak laborantzan erabiltzen zen teknologia zehatz bat, garraio sistema bat adierazten digu. Baina are gehiago, ekoizpen sistema bati buruzko informazioa, ekoizpen sistema horren garapena eta eraldaketari buruzko informazioa ere ematen digu eta gizarte berezi batera zuzentzen gaitu.

Nekazal gizarteak, Ataungo nekazal gizarteak, garaiko eta inguruko nekazari-ek bezala, industrializazioaren teknologia berria egokitzeko eta aprobetxatzeko trebezia eta irudimena izan zuen garai hartan. Beraien bizimodua eta ekoizpen sistema egokitzeko eta erosoagoa bihurtzeko. Modu masiboan erabili zen gainera garraio sistema hau eta inbentarioan jasotako kable kopuruak sistema honek izan zuen arrakasta erakusten digu argi eta garbi.

Aurrerantzean, ordea, eta hasieran lagungarri gerta zitzaizkion elementuak eman bazion ere, industriak esku-lana eta protagonismoa kendu dio nekazal mundu honi, gaur egungo egoerara iritsi arte.

Honela belar kableak, gure iragan hurbileko nekazal mundura eramaten gaitu, bere teknologia, lana, bizimoldea eta kultura garbi adieraziz. Horregatik aldarrikatzen da kablea Ataunen gure ondarea osatzen duen elementu gisa. Gainera, jakin badakigu, inguruan izan ez duen bezalako protagonismoa izan duela Ataunen.

Gaur egun oraindik lanean diharduten edo zutik dirauten belar kableak babestu eta konpontzeaz gain, gorde ere egin behar ditugu. Baina ez da nahikoa babestea edo gordetzea, horrez gain ezagutzera eman behar dira. Ataundar gazteek, haurrek eta kanpotarrek ere kablea eta bere elementuak zer izan diren eta diren ezagutu behar dute, hori baita kablea ulertzeko, errespetatzeko eta baloratzeko bide bakarra. Alor honetan Ataungo Udalak zeregin handia dauka, eta gure ondarea osatzen duten gainerako elementuen pare jarri behar lituzke belar kableak ere.

Uste dut lan honek eta bere inguruan sortu diren ekimenek bide horretan lagunduko dutela eta belar kableak txatar pilo bat izatetik benetan preziatua den ondare- elementu izatera pasako direla.

Espero dut, bukatzeko, kableari buruzko lan hau egitean beranduegi ibili ez izatea eta oroitzapenak denborak jan aurretik, batzuk behintzat berreskuratu izana.

BIBLIOGRAFIA:

- ZUFIAURRE, J. “Kablea Ataunen”. ANUARIO DE EUSKO FOLKLORE 37/1991 (147-158 orriak).
- AUZMENDI, L. “Txirrika soinua Ataungo aldapetan behera”. ZERUKO ARGIA. 1980. urtea. 881 zbkia.

KONTSULTATUTAKO ARTXIBOAK:

- SOCIEDAD FRANCO ESPAÑOLA DE ALAMBRES, CABLES Y TRANSPORTES AEREOS: “Cables Metalicos”. Bilbao
- (Gipuzkoako Artxibo Orokorra) G.A.O..
- (Ataungo Udal Artxiboa) A.U.A.
- E.J. (Eusko Jaurlaritza) Industri Ondare eta Herri Lanaren Zenbaketa.
- Auzmendi-Iurreta familiaren artxiboa.
- Barandiaran - Furundarena familiaren artxiboa.
- Agirre- Etxeberria familiaren artxiboa.
- Eskisabel- Auzmendi familiaren artxiboa.



II.
Ataun
z
t
e
r
g
a
i
J
e
k
a

Zablea Ataunen

II Zatia



INBENTARIOA

Ondoren inbentariatu diren kable guztien zerrenda eta fitxak aztertzeko aukera izango duzue.

Jabeei, aurrez azaldutako galdekizuna egin zaie. Hemen fitxak laburtu egin dira erantzuna duten galderak sartu direlarik bakarrik.

Baita ere liburuaren barnean eta ikerketa honetarako oso garrantzitsua jo delako, kable guztiak azaltzen diren plano bat aurkituko duzu. Bertan segituan konturatuko zara izan duen garrantziaz.

01. KABLEA.- ITULAITZ. OKARIZTI baserria.
02. KABLEA.- ITURRIALDEA. BARANDIARANAUNDIA baserria (Suki zeharra).
03. KABLEA.- BELARSOROAUNDIA. KALAKASENEA baserria (Otamots zeharra).
04. KABLEA.- BIDARTE. KALAKASENEA baserria (Otamots zeharra).
05. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. AMUÑAIN baserria (Otamots zeharra).
06. KABLEA.- BAZKAITURRI. AMUÑAIN baserria (Otamots zeharra).
07. KABLEA.- IZKINTZAU. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
08. KABLEA.- ARTEONDO. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
09. KABLEA.- GARTZETXO. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
10. KABLEA.- ALDAETXE. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
11. KABLEA.- TXARA. URDANGARINTXIKIA baserria (Otamots zeharra).
12. KABLEA.- TXINTXALEKU. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
13. KABLEA.- PASTIELAKI. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
14. KABLEA.- IPARRAMUTU. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
15. KABLEA.- SOARRETA. ALDARRETAZPIKOA baserria (Otamots zeharra).
16. KABLEA.- ESPARRUAZPI. ALDARRETAGARAKOA baserria (Otamots zeharra).
17. KABLEA.- DIOSO. ALDARRETAGARAKOA baserria (Otamots zeharra).
18. KABLEA.- ESPARRU. GARAGARTZA baserria (Otamots zeharra).
19. KABLEA.- MUSA. GARAGARTZA baserria (Otamots zeharra).
20. KABLEA.- BEHEKO OTASO. UELAIN baserria (Otamots zeharra).
21. KABLEA.- BELARSOROLUZE. UELAIN baserria (Otamots zeharra).
22. KABLEA.- ITURRITXIKI. UELAIN baserria (Otamots zeharra).
23. KABLEA.- LOIBE BEHEKOA. IMATZENEA baserria (Aitzarte zeharra).
24. KABLEA.- LOIBE GOIKOA. IMATZENEA baserria (Aitzarte zeharra).
25. KABLEA.- BEAMAKO ZELAIA. IMATZENEA baserria (Aitzarte zeharra).

26. KABLEA.- AGERRE SAGASTI. IMATZENEIA baserria (Aitzarte zeharra).
27. KABLEA.- AÑOTARI. ETXEBELTZ baserria (Aitzarte zeharra).
28. KABLEA.- ETXEAZPI. MUÑOTXOETA baserria (Aitzarte zeharra).
29. KABLEA.- AIZKOATE. AIZKORRIONDO baserria (Aitzarte zeharra).
30. KABLEA.- ASTOZ. ARALEGIGOIKOA baserria (Aitzarte zeharra).
31. KABLEA.- ETXABURUA. AGERREAUNDI baserria (Ustatxo zeharra).
32. KABLEA.- SAHATSZEHARRA. AGERRETXIKI baserria (Ustatxo zeharra).
33. KABLEA.- LOPETXO. LARRATZEA baserria (Astigarraga).
34. KABLEA.- IRANZEHARRA. ASTIGARRETXE baserria (Astigarraga).
35. KABLEA.- GARTZAZPI. ERMENTARI baserria (Arrondoa).
36. KABLEA.- BARRUTIAUNDI. ERMENTARI baserria (Arrondoa).
37. KABLEA.- IRANAZPI. ERMENTARI baserria (Arrondoa).
38. KABLEA.- ITSASI. LAZKANOTEGI baserria (Arrondoa).
39. KABLEA.-BELARDIAUNDIA. ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).
40. KABLEA.- LOIBE. ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).
41. KABLEA.- BALASORO. ESPILLA baserria (Arrondoa).
42. KABLEA.- ARGINITURRI. DORRONSORO baserria (Otamots zeharra).
43. KABLEA.- ARGINITURRI. ZUGA baserria (Otamots zeharra).
44. KABLEA.- ZUGA. ZUGA baserria (Otamots zeharra).
45. KABLEA.- LANGAMUSU. ALDAKIO baserria (Otamots zeharra).
46. KABLEA.- ABETA. ARITZAUNDIETA baserria (Urrutsu zeharra).
47. KABLEA.- URDANTXO. ZUBIONDO baserria (Arinberriaga).
48. KABLEA.- ZINKO. IGARTZATE baserria (Urrutsu zeharra).
49. KABLEA.- URRUTXALDAPA. IGARTZATEBERRI baserria (Urrutsu zeharra).
50. KABLEA.- ETXE GOENA. ITURRIOZ baserria (Urrutsu zeharra).
51. KABLEA.- ZUGA EKARRA. ARINAUNDIA baserria (Arinberriaga).
52. KABLEA.- ETXABURUA. ARINAUNDIA baserria (Arinberriaga).
53. KABLEA.- USUELA. ARINETXEBERRIA baserria (Arinberriaga).
54. KABLEA.- KIÑU. ARINETXEBERRIA baserria (Arinberriaga).
55. KABLEA.- ITSASI. ARINETXEBERRIA baserria (Arinberriaga).
56. KABLEA.-MUGATERREKA. AUZMENDI baserria (Arinberriaga).
57. KABLEA.- UREZAUNDI. AUZMENDI baserria (Arinberriaga).
58. KABLEA.- GOIKO ITZUBI. UREZAUNDI baserria (Arinberriaga).

59. KABLEA.- BELAN ZULO. ETXETXO baserria (Murkondo).
60. KABLEA.- ZEHARRA. ETXETXO baserria (Murkondo).
61. KABLEA.- DANBOLINTXO. ARBOTONETA baserria (Arinberriaga).
62. KABLEA.-GOIKO OTASO. MUNDUATE baserria (Murkondo).
63. KABLEA.- PATXETA. PERUENEZARRA baserria (Murkondo).
64. KABLEA.- EKAIN. PERUENEZARRA baserria (Murkondo).
65. KABLEA.- ZEHARRA. GOIKOETXE baserria (Murkondo).
66. KABLEA.- MUÑO. GOIKOETXE baserria (Murkondo).
67. KABLEA.- KIÑU. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
68. KABLEA.- OÑAKO ESPARRU. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
69. KABLEA.- OÑAKO ZELAIA. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
70. KABLEA.- OÑAKO ZELAIA. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
71. KABLEA.- ELUTXETA. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
72. KABLEA.- SANTITURRI. TELLERIAZPIKOA baserria (Murkondo).
73. KABLEA.- MUSKI HARIZTI. TELLERIERDIKOA baserria (Murkondo).
74. KABLEA.- ATXURTA. TELLERIERDIKOA baserria (Murkondo).
75. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. ZELABEAR baserria (San Gregorio).
76. KABLEA.- ZEHARSORO. ZELABEAR baserria (San Gregorio).
77. KABLEA.- LARRUNTZA SORO. ZELABEAR baserria (San Gregorio).
78. KABLEA.- TXINGURRITA. LARRUNTZA baserria (San Gregorio).
79. KABLEA.- MUSKI. LARRUNTZA baserria (San Gregorio).
80. KABLEA.- ITURRIZA. LARRUNTZA baserria (San Gregorio).
81. KABLEA.- EKAIN. SABIAGA baserria (Murkondo).
82. KABLEA.- ETXABURU. SABIAGA baserria (Murkondo).
83. KABLEA.- SOROAUNDI. MUÑO baserria (Murkondo).
84. KABLEA.- SORALUZE. MUÑO baserria (Murkondo).
85. KABLEA.- MUSKI. ARRATINENEA baserria (Lauztierreka)
86. KABLEA.- MAIZKO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
87. KABLEA.- LAIOA. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
88. KABLEA.- ITURRALDE SAGASTI. LAUSTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
89. KABLEA.- ALDABE. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
90. KABLEA.- ASTALEPO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
91. KABLEA.- LAIOA. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).

92. KABLEA.- MAIZKO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
93. KABLEA.- ARRIBASORO. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
94. KABLEA.- ELUTXE. LAUZTIAZPIKOA baserria (Lauztierreka).
95. KABLEA.-MUSKI. LAUZTIGARAKOA baserria (Lauztierreka).
96. KABLEA.- LAIOTZA. LAUZTIGARAKOA baserria (Lauztierreka).
97. KABLEA.- EUTERA. LAUZTIGARAKOA baserria (Lauztierreka).
98. KABLEA.-MAIZKO. LAUZTIBERRIA baserria (Lauztierreka).
99. KABLEA.- JUANDANTXO. LAUZTIBERRIA baserria (Lauztierreka).
100. KABLEA.- ETXABURU. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
101. KABLEA.- TXANTXON HARIZTI. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
102. KABLEA.- ALBIZUITZ. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
103. KABLEA.- MUÑOTXO. IGARTZATEBERRI baserria (Urrutsu zeharra).
104. KABLEA.- TXANTXON HARIZTI. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
105. KABLEA.- MUSKI. TELLETXEA baserria (Lauztierreka).
106. KABLEA.- ETXABURUA. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
107. KABLEA.- UGAZAUNDI. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
108. KABLEA.- TXUINITA. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
109. KABLEA.- SOAZARRE. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
110. KABLEA.- MUETUTA. TELLETXEBERRI baserria (Lauztierreka).
111. KABLEA.- GAINSORO. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
112. KABLEA.- GAINSORO. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
113. KABLEA.- AIÑAI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
114. KABLEA.- KOSKAIZTI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
115. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
116. KABLEA.- USANDUNE. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
117. KABLEA.- ETXAGU. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
118. KABLEA.- LAUZTI GAZTINARI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
119. KABLEA.- ETXE GAZTINARI. LAUZTITURRIETA baserria (Lauztierreka).
120. KABLEA.- DORRONTSO. LAUZTITURRIETABERRIA baserria (Lauztierreka).
121. KABLEA.- USANDUNE. LAUZTITURRIETABERRIA baserria (Lauztierreka).
122. KABLEA.- IGARTZETA. LAUZTITURRIETABERRIA baserria (Lauztierreka).
123. KABLEA.- BELARSOROAUNDI. URRUTSU baserria (Urrutsu zeharra).
124. KABLEA.- ETXABURUA. SOROZABAL baserria (Urrutsu zeharra).

125. KABLEA.- ZURDASO. SOROZABAL baserria (Urrutsu zeharra).
126. KABLEA.- ETXABURU. SOROZABAL baserria (Urrutsu zeharra).
127. KABLEA.- GOIKO ESPARRU. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
128. KABLEA.- HARIZTI PAGO. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
129. KABLEA.- BORDATXIKI. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
130. KABLEA.- ZELAIKO GAINA. BORDAGAZTELU baserria (Urrutsu zeharra).
131. KABLEA.- BARRUTIAUNDI. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena):
132. KABLEA.- AGORTXETA. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena).
133. KABLEA.- TXURDINTXORO. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena).
134. KABLEA.- SAGASTILUZE. ITURRITZAZARRA baserria (Ergoiena).
135. KABLEA.- KIÑU. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).
136. KABLEA.- KIÑU. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).
137. KABLEA.- JUANA MARI. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).
138. KABLEA.- JUANA MARI. ARTADITXULO baserria (Ergoiena).
139. KABLEA.- ITSAISO. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
140. KABLEA.-SANTI ITURRI. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
141. KABLEA.- MUSKI. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
142. KABLEA.- JOSE MARI. GOMENSALETXE baserria (Ergoiena).
143. KABLEA.- SOABELTZ. MITXELENA baserria (Ergoiena).
144. KABLEA.- ATXULUS. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
145. KABLEA.- LARRAMUÑO. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
146. KABLEA.- ONDARTZA. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
147. KABLEA.- ALTZOLAI. ARBELDIBERRI baserria (Ergoiena).
148. KABLEA.- LARRAMUÑO. ITURBE baserria (Ergoiena).
149. KABLEA.- SANTITURRI. URBITARTE etxea (Ergoiena).
150. KABLEA.- SORKOINBURU. URBITARTE etxea (Ergoiena).
151. KABLEA.- SANTRUSKA. URBITARTE etxea (Ergoiena).
152. KABLEA.- TXEUTE. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
153. KABLEA.- SOABERRI. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
154. KABLEA.- KARALDE. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
155. KABLEA.- MENTOLAZPI. SARIARTEAZPIKOA baserria (Ergoiena).
156. KABLEA.- SARTEGU. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).
157. KABLEA.- AMUNDA. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).

158. KABLEA.- SAGASTI. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).
159. KABLEA.- EKAIZTIMUÑO. SARIARTEBERRI baserria (Ergoiena).
160. KABLEA.-MENTOLAZPI. SARIARTEBERRI baserria (Ergoiena).
161. KABLEA.- MALKORRA. SARIARTEBERRI baserria (Ergoiena).
162. KABLEA.- MALKORRA. SARIARTEGARAKOA baserria (Ergoiena).
163. KABLEA.- ZULOTA. IBERONDOBARRENA baserria (Ergoiena).
164. KABLEA.- BARRUTIAUNDI. ATXURRENEA baserria (Ergoiena).
165. KABLEA.- ZULOTA ZEHARRA. ATXURRENEA baserria (Ergoiena).
166. KABLEA.- MAKI. JUANENEA baserria (AIA).
167. KABLEA.- PALAU BARRUTI. TXULOA baserria (Aia).
168. KABLEA.- MUÑO. TXULOA baserria (Aia).
169. KABLEA.- PALAU BARRUTI. TXULOA baserria (AIA).
170. KABLEA.- OTASO. TXULOA baserria (Aia).
171. KABLEA.-AMUNDA. TXULOA baserria (Aia).
172. KABLEA.- SAGASTI. ERROIONDOZARRA baserria (Aia).
173. KABLEA.- TRUKUZAUNDI. ERROIONDOZARRA baserria (Aia).
174. KABLEA.- LERTXUNDI. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
175. KABLEA.- BELAR TXIKITA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
176. KABLEA.- BORDA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
177. KABLEA.- AIZKONETA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
178. KABLEA.- ITURRI. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
179. KABLEA.-TRUKUZANO. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
180. KABLEA.- TXULOSA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
181. KABLEA.- TRUKUZANO. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
182. KABLEA.- ESKALUSO BARRENA. ERROIONDOBERRI baserria (Aia).
183. KABLEA.- AIZARRI. AIAGUALDE baserria (Aia).
184. KABLEA.- AIBELAUN. AIAGUALDE baserria (Aia).
185. KABLEA.- AIZARRI. AIAGUALDETXIKIA baserria (Aia).
186. KABLEA.- GAZTIÑARI. AIARREBERRIA baserria (Aia).
187. KABLEA.- ESKALUSORO. AIARREBERRIA baserria (Aia).
188. KABLEA.- MUTEGI TXIKI. AIARREA baserria (Aia).
189. KABLEA.- OLATZA BELARSORO. AIARREA baserria (Aia).
190. KABLEA.- GOIKO SAGASTI. ETXEBERRI baserria (Aia):

191. KABLEA.- DANBOLINTXORO. FELIPENEA baserria (Aia).

192. KABLEA.- ESATE HAUNDI. BEIZTIN baserria (Aia).

193. KABLEA.- GARTXO. ARBILLETA baserria (Aia).

194. KABLEA.- OTASO. URKILLAGA baserria (Aia).

195. KABLEA.- AIZKIÑE. OLATZAUNDI baserria (Aia).

196. KABLEA.- GOIKO BARRUTI. OLATZATXIKI baserria (Aia).

197. KABLEA.- ALDAPA SORO. OLATZATXIKI baserria (Aia).



KABLE ZENBAKIA

1IZENA: **ITULAITZ***Baserria:* OKARIZTI baserria (San Martin).*Jabearen izena:* Luzia Agirre Maiza.*Helbidea:* OKARIZTI baserria (San Martin)

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Jarria ezagutu nuen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Bera etortzerako jarria zegoen.
- *Nondik norakoa:* Itulaitz'tik (Aiztondo eta Intzartzu tartea) etxera.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 800-900 m.
- *Desnibela:* 150 m.
- *Lur eremuen izenak:* Itulaitz- kanposantu gaina- etxera.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian harkaitz bati erantsia zegoen. Kanposantu gainean asto bat zuen bere gantxoarekin eta etxe ondoan aterpera sartu aurretik disparoa sortak saltatzeko eta zutikako bi egurrei lotuta tanborra. Tamborrek bi zulo zituen eta palankakin kablea tentsatzen zen.
- *Kablea nondik ekarri:* 1.963 urtean Juan Agirre (Mendi Urkulukoak) aldatu zien.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10-12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Bai.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Lehendik zeuden, errementariak eginak izango ziren.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra zuten.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 20 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai.
- *Nork, noiz:* Juan Agirrek 1.963 urtean kablea aldatu zuen. Altzairuzko jarri zuen.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua, belar berdea (ganadu jana), garoa eta horbela garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 9 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Batzutan egurra ere bota izan zen.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, bestela Aiztondotik buelta joan behar izaten genuen eta bide luzea egiten zen. Terreno aldapatsuak nola diren neke gutxirekin ekartzen zen belarra etxeraino.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez. Anekdotia modura behin sorta bat su eman ondoren bota zuten baina txirrika gaizki jarri zuten eta aston gelditu zen.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.970-1.972 urtean.

- *Eta kablea kendu:* Urte horietan.
- *Zergatik:* Pixkanaka pixkanaka pinua sartu genuen.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Txirrika batzuk, sorta egiteko sokak eta kable zatiren bat.
- *Nolakoa da:* Txirrikak: Batzuk gantxo jiratorioa dute eta besteak berriz fijoak. Kablea 10-12 mm koa 8-10 hari bihurrituaz egina eta erdian burnizko hari batekin.
- *Materiala:* Txirrikak burnizkoak eta kablea altzairuzkoa.
- *Egoera:* Txirrikak ez dituzte ezertan erabiltzen eta erdoituta daude.

KABLE ZENBAKIA

2

IZENA: ITURRI ALDEA

Baserria: BARANDIARAN BERRI baserria (San Martin).

Jabearen izena: Ramona Imaz Mintegia.

Helbidea: BARANDIARAN BERRI baserria (San Martin).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Sortaka bizkarrean ekartzen zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.940 urtean.
- *Nondik norakoa:* Iturri aldetik etxe atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 350 m.
- *Desnibela:* 50 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Iturri alde- etxe atarira.
- *Nondik ekarri zen teknika:* Beste lekuren batean ikusia izango zen.
- *Nork jarri zuen:* Anaiak, hain zuzen ere, Martin Imaz Mintegia.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian harkaitzean sartuta egur bat, egurrari lotutako kablea etxe atariraino etortzen zen. Atarian beste zutikako beste egur bati lotua zegoen eta disparoa zuen.
- *Diametroa:* 14 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoric ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Seguruenik errementari, txatarrero edo beste baserriren batetik ekarriak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 7-8 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez, denbora gutxin egon zen.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Horbela garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Abantail haundirik ez zuen ekarri gurdiaekin eta lerakin erre-zago ekartzen genuen.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.950 urtean, gehienez ere 10 urtez egon zen.
- *Eta kablea kendu:* Dena batera.
- *Zergatik:* Lan gehiago suposatzen zuelako. Llehenik sorta egin behar zen, ondoren kable ondora eraman, gero kablen bota eta azkenik etxe ondotik sorta bizkarrean hartu eta ganbaraino eraman.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen. Txirrikak txatarreroak eraman zituen.

KABLE ZENBAKIA

3

IZENA: **BELARTXO HAUNDI**

Baserria: KALAKASENEA baserria (San Martin).

Jabearen izena: Joakin Aizpurua Etxeberria.

Helbidea: KALAKASENEA baserria (San Martin).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Baserrira etorri aurretik jarriak zeuden.

KABLEA

- *Nondik norakoa:* Belartxo haunditik etxe ondoko lizarrera.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m.
- *Desnibela:* 100 m.
- *Lur eremuen izenak:* Belartxo haundi- etxe ondoko lizarra.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian zutika egur bat sartu eta kablea erantsi eta behean arbolari lotua. Beheran dispartoa eta tanborra zuen.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 8-10 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50-60 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5-6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Behin basoa atera ondoren gelditzen den egur zaborra botatzeko erabili genuen eta kable guztia hondatu zen.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Abantail gutxi ekarri zuen. Sail ingururaino pista zegoen eta gurdiz etxe barruraino ekartzen genuen.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.944 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.944 urtean.
- *Zergatik:* Bidean ebaki ziren eta gurdiz ekartzen hasi ginen.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen.



KABLE ZENBAKIA

4

IZENA: **BIDARTE**

Baserria: KALAKASENEA baserria (San Martin).

Jabearen izena: Joakin Aizpurua Etxeberria.

Helbidea: KALAKASENEA baserria (San Martin).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Baserrira etorri aurretik jarria zegoen.

KABLEA

- *Nondik norakoa:* Bidartetik etxe barrura.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 250 m.
- *Desnibela:* 90 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Bidarte- etxe barrura.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian zutikako egur bati erantsia eta ganbaran zutikako bi egurrei tanborra lotua. Tanborra baino 5 m lehenago disparoa zuen.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 8-10 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Gaztinari bat zegoen eta horbela garraiatzeko erabiltzen zen.
- *Urteko ze sasoietan:* Negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50-60 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5-6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Abantail haundirik ez. Kablearen isuriarekin ura sartzen zen solairura eta hau hondatzeko arriskua.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* Belartxo haundikoa baino zertxobait lehenago.
- *Eta kablea kendu:* Berdin.
- *Zergatik:* Solairua hondatzen zuelako, bai urarekin eta baita ere kolpearekin.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **5** IZENA: **BELARTXO HAUNDI**

Baserria: AMUÑAIN baserria (San Martin).

Jabearen izena: Migel Agirre Etxabe.

Helbidea: AMUÑAIN baserria (San Martin).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka ibiliko ziran.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.946 urtean.
- *Nondik norakoa:* Belartxo haunditik etxe ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 250 m.
- *Desnibela:* 115 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Belartxo haundia- eluntxan- etxe ondora.
- *Nondik ekarri zen teknika:* Besteei ikusita jarri zen.
- *Nork jarri zuen:* Auzolanean jarri zen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian zutikako egur bati erantsia kablea eta beheran zutikako beste bi egurrei tanborra lotuta. Tanborrak bi zulo ditu palankakin kablea tiratzeko. Kablea tanborrera iritsi baino lehenago dispartoak sortak saltatzeko. Sorta beti bi sokakin egiten zen.
- *Diametroa:* 11-12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Batzuk gerora Oriotik ekarriak (Zaldua Ondoabail tailerra).
- *Nolakoak, materiala:* Lehenagokoak burnia burniaren kontra zuten. Aldiz, Oriotik ekarriak barruan brontzezko kaskiloa zuten eta arinago korritzen zuten.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 16-20 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai, kablea aldatu. Erdoiarekin hariak sualtatzen zaizkio.
- *Nork, noiz:* Jose Rezolak, Juan Eskisabelek eta Urdangarino Tomasek.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua, garoa eta horbela garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoiatan:* Udara eta neguan.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 70-80 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Batzutan egurra ere botatzen zen.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Ikaragarria. Erosotasuna eta aurrerapena batipat.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.981 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Urte berean.
- *Zergatik:* Pinua sartu zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Tanborra bere kable zatiarekin eta dispartoekin, txirrikak eta palanka.

z
t
e
r
g
a
i

B

e
k
a

- *Nolakoa da:* Tanborra zutikako bi egurrei txapa bana jarri eta zeharka jarrita dago. Erdian zulo batzuk ditu palankarekin kablea tiratzeko. Kableak enbudo motako txapa bat du disparoa deritzona txirrikak saltatzeko.
- *Materiala:* Tanborra eta zutikako posteak egurrezkoak. Kablea altzairuzkoa. Txirrikak brontzezko kaskilodunak eta gantxo jiratorioarekin eta burni hutsa eta gantxo fijodunak ere bai. Disparoa burnizkoa.
- *Egoera:* Tanborraren sostengu diren zutikako egur bat hautsita eta alde batera erorita dago.
- *Kokapena:* Amuñain Azpikoa baserriaren gainaldean, baserritik 30 m tara.
- *Martxa jartzeko moduan:* Ez. Kable guztia tiratu beharko litzateke.

KABLE ZENBAKIA

6

IZENA: **BAZKAITURRI**

Baserria: AMUÑAIN AZPIKOA baserria (San Martin).

Jabearen izena: Migel Agirre Etxabe.

Helbidea: AMUÑAIN AZPIKOA baserria (San Martin).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka ibiliko ziren biderik ez zegoen eta.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.946 urtean.
- *Nondik norakoa:* Bazkaiturri- Amuñain Erdiko etxe barrura.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m baino gehiago.
- *Desnibela:* 50 m.
- *Lur eremuen izenak:* Bazkaiturri- Amuñain Erdiko etxe barrura.
- *Nondik ekarri zen teknika:* Besteei ikusita.
- *Nork jarri zuen:* Auzolanean jarri zen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Bidean bi asto zituen kableari altura emateko. Ganbaran disparoa. Kablea etxearen aurrekaldetik sartzen zen eta gero alboko leiho batetik irtetzen zen. Kanpoan zutikako bi egurrei lotuta tanborra zuen, kablea tiratzeko.
- *Diametroa:* 11-12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoric ba al zuen:* Bai *Zenbat:* Bi.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Batzuk gerora Oriotik ekarriak (Zaldua Ondozabal tailerra).
- *Nolakoak, materiala:* Lehenagokoak burnia burniaren kontra zuten. Oriokoak, berriz, barruan brontzezko kaskiloa zuten.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 16-20 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoiatan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50-60 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Ikaragarria bestela bizkarka ibili behar izaten zen biderik ez zegoen eta.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.981 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.981 urtean.
- *Zergatik:* Pinua sartu zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Tanborra bere kable zatiarekin.
- *Nolakoa da:* Tanborra zutikako bi egurrei lotuta dago eta erdian bi zulo ditu palankarekin kablea tiratzeko.
- *Materiala:* Egurrezko tanborra.
- *Egoera:* Oraindik zutik dago.
- *Kokapena:* Amuñain Erdikoa baserriaren albo batean.

KABLE ZENBAKIA

7

IZENA: IZKINTZAU

Baserria: URDANGARIN TXIKI baserria (San Martin).*Jabearen izena:* Jose Auzmendi Arratibel.*Helbidea:* DORRONSORO ENEA etxea (San Martin).• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Gurdin ekartzen zituzten.**KABLEA**

- *Nondik norakoa:* Izkintzautik etxe barrura. Bi baserrin arten sozioko kablea zen.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez, baina herri terrenoan pasatzeagatik udalari zerbait ordaintzen ote zitzaion.
- *Luzera:* 500 m.
- *Desnibela:* 175 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Izkintzau- herri terrenoa- totasoro- urdangarin zaharreko lurra- etxe barrura.
- *Nork jarri zuen:* Aurrekoak jarri zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian harkaitzean egur bat sartua, bidean lurra desnibela badu astoa jartzen zen gantxoarekin kablea altxatzeko eta etxean tanborra kablea tiratzeko eta dis- paroa txirrikak saltatzeko.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoria ba al zuen:* Gerora bai. *Zenbat:* Bi.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Seguroenik errementariak eginak, Astigarragako Lontzok.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 18 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai. Gantxoa eta kable aldatu.
- *Nork, noiz:* Aitak berak egiten zuen.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta garoa garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40-50 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna, bestela ganaduarekin ibili behar izaten zen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.989 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Geroztik.
- *Zergatik:* Maizterrak ginen eta baserria saltzea atera zen eta beste batzuk erosi zuten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kablea bere dispartoarekin bilduta kamino baz- tarrean.
- *Nolakoa da:* Kablea altzairuzkoa da eta dispartoa burnizko txapa bat enbudo moduan jarria.
- *Egoera:* Egoera onean dago.

KABLE ZENBAKIA

8

IZENA: ARTEONDO

Baserria: URDANGARIN TXIKI baserria (San Martin).

Jabearen izena: Jose Auzmendi Arratibel.

Helbidea: DORRONSORO ENEA etxea (San Martin).

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.933 urtean.
- *Nondik norakoa:* Arteondotik etxe goenera.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m.
- *Desnibela:* 75 m.
- *Lur eremuen izenak:* Arteondo- Urdangarin zaharreko sailak- etxe goenera.
- *Nork jarri zuen:* Aurrekoek jarri zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian kablea arbola bati erantsia eta beheran etxe ondoko intxaur bati lotuta. Intxaur arbola baino metro batzuk lehenago dispartoa eta tranpala. Sorta bakoi-tza bi sokakin egiten zen.
- *Kablea nondik ekarri:* Lehena ez dakit baina bigarrean Arbeldi baserritik ekarri zen.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Seguruenik errementariak eginak.
- *Nolakoa, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 18 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Horbela, belar berde (ganadu jana), eta belar ondua garraitzeko.
- *Urteko ze sasoiatan:* Udara, udazken eta neguan.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40-50 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Batipat erosotasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.989 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Geroztik.
- *Zergatik:* Maizterrak ginen eta baserria saltzera atera zen eta beste batzuk erosi zuten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

9

IZENA: **GARTZETXO**

Baserria: URDANGARIN TXIKI baserria (San Martin).

Jabearen izena: Jose Auzmendi Arratibel.

Helbidea: DORRONSORO ENEA baserria (San Martin).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka ibiliko ziren.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.933 urtean.
- *Nondik norakoa:* Gartzetxotik etxe goenera.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 100 m.
- *Desnibela:* 50 m.
- *Lur eremuen izenak:* Gartzetxo- Larratzeko saila- etxekonekoa- etxe goenera.
- *Nork jarri zuen:* Aitak jarri zuen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian egur bati lotua eta kablea tiratuta goitik behera. Sorta egiteko bi soka. Belar berdea zenean azpian zarba batzuk sorta egiteko. Beheran tanborra bi zulo-kin palanka bidez kablea tiratzeko.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoric ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Errementariak eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 18 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua, belar berde (ganadu jana) eta artoa garraitzeko. Artoa osorik botatzen zen, bere zuztar eta guzti.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40-50 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.989 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Geroztikan.
- *Zergatik:* Maizterrak ginen eta baserria saltzera atera zen eta beste batzuk erosi zuten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **10** IZENA: **ALDAETXE**

Baserria: URDANGARIN TXIKI baserria (San Martin).

Jabearen izena: Asun Arratibel

Helbidea: ANTONIONE GARAKOA etxea (San Martin).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka behetik gora ateratzen genuen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtean.
- *Nondik norakoa:* Aldaetxetik etxeko bordara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m.
- *Desnibela:* 125 m.
- *Lur eremuen izenak:* Aldaetxe- etxeko borda.
- *Nondik ekarri zen teknika:* Bere kabuz jarri zuen.
- *Nork jarri zuen:* Anaiak, Inazio Arratibel.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Beheran zutikako egur batzuri erantsita. Bidean lau asto. Bordan tanborra eta tranpal gainean gelditzen zen sorta. Nola behetik gora atera behar zen sorta haseran astoarekin tiratuz igotzen zuten sorta belarra. Txirrikari lotzen zioten beste soka bat eta goian beste txirrika batetik pasatuta astoari eransten zioten. Astoa goitik behera abiatzen zen eta sorta belarra berriz behetik gora igotzen zen. Azkenera berriz motor elektriko baten bidez igotzen zituzten belarrak.
- *Kablea nondik ekarri:* Ferreteria Alonsotik.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Lau.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 15 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai.
- *Nork, noiz:* Anaiak, Inazio Arratibelek.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoiatan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30-35 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Ikaragarria, ordurarte astolan asko ginen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.989 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Geroztik.
- *Zergatik:* Maizterrak ginen eta baserria saltzera atera zenean beste batzuk erosi zuten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

11

IZENA: **TXARA**

Baserria: URDANGARIN TXIKI baserria (San Martin).

Jabearen izena: Asun Arratibel.

Helbidea: ANTONIONE GARAKOA etxea (San Martin).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka ibiltzen ziren.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtea baino zerbait lehenago.
- *Nondik norakoa:* Txararik etxe ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 100 m.
- *Desnibela:* 40 m.
- *Lur eremuen izenak:* Txara- gaztinari- etxe ondora.
- *Nork jarri zuen:* Anaiak, Inazio Arratibel.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian arbola bati lotua dago eta beheran zutika egur bat sartu eta hari erantsia. Ez du disparorik.
- *Kablea nondik ekarri:* Ferreteria Alonsotik.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Ez du tanborrik.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 15 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Horbela garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30-35 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Noizik behin egurra ere bota izan zen.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Lanerako erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.989 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Oraindik zutik dago.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa bere eranskinekin.
- *Nolakoa da:* Goian arbola bati eta beheran zutikako egur bati erantsia dago kablea.
- *Materiala:* Kablea altzairuzkoa da.
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Urdangarin Txiki baserriaren ondoan dago.
- *Kable osoaren egoera:* Kable osoa egoera onean dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Bai.
- *Interesgarria:* Kable sinplea da. Ez du berezitasun nabarmenik.

KABLE ZENBAKIA **12** IZENA: **TXINTXALEKU**

Baserria: ALDARRETA AZPIKOA baserria (San Martin).

Jabearen izena: Pedro Urdangarin Goikoetxea.

Helbidea: ALDARRETA AZPIKOA baserria (San Martin).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka eta zaldia sortakin kargatuta. Zaldiak aldiko bi sorta ekartzen zituen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtea gutxi gora behera.
- *Nondik norakoa:* Txintxalekutik etxe ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Gaur egun ez.
- *Nolakoa zergatik?* Lehen garai batean kablea martxan zegoenean kablearen eranslekua herri lurretan zegoen eta udalari errenta modura 10 pta ordaintzen zitzaion.
- *Luzera:* 500 m.
- *Desnibela:* 240 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Txintxaleku- Aldarreta goiko sailak- etxe ondora.
- *Nork jarri zuen:* Kablea Aloskakako Hilario Agirrek jarri zuen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian eranslekuan gaztaina egur bat zen, sutan ikatz egina gehiago irauteko, eta behean beste gaztaina egur bat zutika sartuta eta bi hauei lotuta kablea. Kablea trokola bidez hestutzen zen. Beherako postea baino 5 m lehenago egurrezko disparoa zuen alanbrekin lotuta.
- *Kablea nondik ekarri:* Hilariok ekarria.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astori ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Ez zuen danborrik.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 22 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar berdea (ganadu jana), belar ondua, garoa, lizar hostoa eta haritz hostoa garraiatzeko. Alderdi horretan lur sail haundiak dituzte.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30-40 Kgr belar onduarekin. Berdeak gehiago.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, egun batzutan 30 sorta botatzera iristen ziren eta zaldiarekin asko jota bost buelta egiten baziren 10 sorta ekartzen ziren.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Behin kontrako sokari heldu eta gora eraman ondoren lurrera erori zen eta konortetik gabe gelditu.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.980 urtean
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Bidea egin zen eta traktorearekin hasi ziren eta etxe ondoan eragozpena sortzen zuen.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen. *Etxean txirrika batzuk eta kablea jasota dituzte.*

KABLE ZENBAKIA

13IZENA: **PASTIELAKI***Baserria:* ALDARRETA AZPIKOA baserria (San Martin).*Jabearen izena:* Pedro Urdangarin Goikoetxea.*Helbidea:* ALDARRETA AZPIKOA baserria (San Martin).• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka eta zaldia sortakin kargatuta.**KABLEA**

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtea gutxi gora behera.
- *Nondik norakoa:* Pastielakitik etxe ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300m.
- *Desnibela:* 100 m.
- *Lur eremuen izenak:* Pastielaki- Aldarreta goiko sailak- etxe ondora.
- *Nork jarri zuen:* Kablea Aloskako Hilario Agirrek jarri zuen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian mailoari egur bat sartuta zuen eta bistan 10 zm besterik ez zituen. Honi lazo bat erantsi eta beheran poste bati lotua zegoen, trokola bidez hestutzen zela. trokola bidez hestutzen zen. Beherako postea baino 5 m lehenago egurrezko disparoa zuen alanbrekin lotuta.
- *Kablea nondik ekarri:* Hilariok ekarria.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Ez zuen danborrik.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 22 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30-40 Kgr belar onduarekin. Berdeak gehiago.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.980 urtean
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Bideak hiru kable batera harrapatu zizkigun: Txintxalekukoa, Pastielakikoa eta Iparramutukoa.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen. Etxean txirrika batzuk bakarrik.

KABLE ZENBAKIA

14

IZENA: **IPARRAMUTU**

Baserria: ALDARRETA AZPIKOA baserria (San Martin).

Jabearen izena: Pedro Urdangarin Goikoetxea.

Helbidea: ALDARRETA AZPIKOA baserria (San Martin).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka eta zaldia sortakin kargatuta.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtea gutxi gora behera.
- *Nondik norakoa:* Iparramututik etxe ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 225 m.
- *Desnibela:* 120 m.
- *Lur eremuen izenak:* Iparramutu- Aldarreta goiko sailak- etxe ondora.
- *Nork jarri zuen:* Kablea Aloskako Hilario Agirrek jarri zuen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasu nak: Goian eta beheran egurrezko poste bati lotuta.
- *Kablea nondik ekarri:* Hilariok ekarria.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez
- *Astoric ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Ez zuen danborrik.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak. Burnia burniaren kontra.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 22 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30-40 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.980 urtean
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Urteko ze sasoietan:* Udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitaion:* 20-30 Kgr.
- *Beste erabilierarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, lana erosoago egiten da.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitaion erabiltzeari:* Oraindik erabiltzen du.

z
t
e
r
g
a
i

B

e
k
a

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa zutik dago.
- *Nolakoa da:* Kablea altziruzkoa da, posteak doble T moduko bi burni, disparoa enbudo formako txapa bat eta txirrikak burnizkoak gantxo jiratorioarekin.
- *Kokapena:* Ermenteri baserriaren aurrean erreka ondoan.
- *Kable osoaren egoera:* Egoera onean dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Martxan dago.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Nahiz eta kable motz eta sinplea izan garai bateko lan tresna delako.
- *Jabearen jarrera:* Momentuz erabiltzen duen bitartean martxan edukitzeko asmoa du.

KABLE ZENBAKIA

36

IZENA: **BARRUTI AUNDI**

Baserria: ERMENTERI baserria (Arrondoa).

Jabearen izena: Antonio Goikoetxea Zurutuza.

Helbidea: ERMENTERI baserria (Arrondoa).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka ekartzen zuten.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.966 urtean.
- *Nondik norakoa:* Barruti haunditik etxe barreneko erreka ondora. Gartza azpiko kablea eta Barruti haundikoa beheran burni bati erantsiak zeuden.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 200 m.
- *Desnibela:* 65 m.
- *Lur eremuen izenak:* Barruti haundi- erreka ondora.
- *Nondik ekarri zen teknika:* Ordurako kable motz asko zeuden jarriak.
- *Nork jarri zuen:* Juan Eskisabelek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.*
Berezitasunak: Goian eta beheran burnizko postei lotua zegoen. Beheran disparoa zuen eta ez zuen tanborrik. Diferenzialaren bidez tiratzen zuten kablea.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Ez zuen tanborrik.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Koinatuak eman zizkion.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra eta gantxo jiratoriodunak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 10 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40-50 Kgr.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, lana erosoago egitea.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.972 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Pinua sartu zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

37IZENA: **IRANAZPI***Baserria:* ERMENTARI baserria (Arrondoa).*Jabearen izena:* Antonio Goikoetxea Zurutuza.*Helbidea:* ERMENTARI baserria (Arrondoa).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka sorta belarra bizkarrean hartuta.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.960 urtean.
- *Nondik norakoa:* Iran azpitik etxe atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 100 m.
- *Desnibela:* 40 m.
- *Lur eremuen izenak:* Iran azpi etxe atarira.
- *Nork jarri zuen:* Juan Eskisabelek jarri zuen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian egurrezko poste bati lotua zengoen eta behean sagar arbola baten adar gurutzean tanborra zuen. Tanborrak palankakin hestutzeko zuloak zituen. Sortak saltatzeko disparoa ere ba zuen.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrzkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Koinatu baten eman zizkion.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra eta gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 10 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar berdea (ganadu jana) garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40-50 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:*
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* 1.976 urtean, kablea tanborrean hestutzen hasi zen eta halako batean eusten ari zen palankak aldegin zion eta masailean jo zion ebaki bat eginez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.974 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.974 urtean.
- *Zergatik:* Lehen labore egiten ziren beheko sailak belardi jarri ziren eta ez zuten goikoaren beharrik.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen txirrikak bakarrik.

KABLE ZENBAKIA

38

IZENA: **ITSASI**

Baserria: LAZKANOTEGI baserria (Arrondoa).

Jabearen izena: Jose Mari Oiarbide Mondaluze.

Helbidea: LAZKANOTEGI baserria (Arrondoa).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka nahiko aldapa dagoelako.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.978 urtean.
- *Nondik norakoa:* Itsasitik etxe ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300m.
- *Desnibela:* 60 m.
- *Lur eremuen izenak:* Itsasi- Ermentariko saila- etxe atarira.
- *Nork jarri zuen:* Juan Eskisabelek jarri zuen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian arbola bati erantsia dago eta beheran poste bati lotua. Beheran disparoan saltatu ondoren belar sortak tranpal gainean gelditzen dira eta bizkarrean etxera sartzen dira.
- *Kablea nondik ekarri:* Aita zanak Jose Goikoetxea Mantxintxukoari erosi zion.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Ez du tanborrik. Trokola bidez tiratzen da kablea.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:*
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra dutenak eta gantxo jiratoriodunak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 8 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua edo igarra garraiatzeko. Belar berdea edo ganadu jana ere bota izan dute busitan jarrita.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* Belar igarrakin 30 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankara.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Bizkarra arintzea eta erosotasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* Oraindik erabiltzen dute.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa zutik dago.
- *Nolakoa da:* Kablea altzairuzkoa da. Disparoa enbudo formako txapa bat da. Tranpala oholez eginiko taulatu bat da. Txirrikak burnizkoak dira gantxo jiratorioarekin.
- *Kokapena:* Lazkanotegi baserriaren atzean.
- *Kable osoaren egoera:* Egoera onean dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Martxan dago.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Aintzinako lan tresna bat izanik gaur egun gutxi galditzen direlako.
- *Jabearen jarrera:* Momentuz martxan edukitzeko asmoa dute.

KABLE ZENBAKIA

39

IZENA: **BELARDIAUNDI***Baserria:* ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).*Jabearen izena:* Marzial Barandiaran Etxeberria.*Helbidea:* ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Gurdikin. Gurdi bide txarra zen, aldapatsua eta hestua, eta behin gurdia itzuli eta erreka zuloraino joan zen iri eta guzti. Ibilerak txarrak ziren haiek.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.934 urtean.
- *Nondik norakoa:* Belardi haunditik etxe barrura.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Bai.
- *Nolakoa zergatik?* Belartxo haundia deritzon belardi hau Garagartza ondón dago eta bidean nola kaminoa pasatu behar zuen Diputazioari baimena eskatu beharra zegoen. Diputazioak baimena eman zion baina protezio modura sare bat jarri beharra izan zuen.
- *Luzera:* 600 m.
- *Desnibela:* 140 m.
- *Lur eremuen izenak:* Belartxo haundia- Andres Eneko saila- Asentziona- Rafael Eneko- kaminoa
- *Nork jarri zuen:* Euren jarri zuten Bixente Eskisabelen agindupean.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian rail bat sartua du lurtean, bidean asto bat du eta behean etxeko ganbarara sartzen zen. Ganbaran egurrezko tanborra zuen. 1.960 urtean kablea ganbaratik kendu eta etxe atarian jarri zuen rail bati lotua. Raila baino 5 m lehenago disparoa zuen.
- *Kablea nondik ekarri:* Haserako kablea Pasaiatik ekarri zen. Lau bat aldiz aldatu izan zuten, beti ere hautsi egiten bait zen. Erdoiarekin janda etortzen ziren. Azkena Juan Agirre Mendi Urkulu baserrikoak ekarri zuen.
- *Nolakoa:* Haserakoak denak itsas kableak eta azkena altzairuzkoa.
- *Diametroa:* Altzairuzkoak 12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astirik ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bat.
- *Danborra zerez egina:* Haseran ganbaran aginakin egina zuen. Kanpoan jarri zenean ez zuen tanborrik.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:*
- *Nolakoak, materiala:* Gehienak brontzezko kaskilodunak eta gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 13-14 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai, kable aldaketak.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua, berdea eta horbela garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Noiz behinka zotza botatzen zuten.

- *Ze abantail ekarri zuen:* Ikarragarria. Erosotasuna, erreztasuna eta batipat arrisku gutxiago.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Behin kablea hautsi zenean ia pertsona bat harrapatu zuen.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.983 urtean ganaduak kendu zituztenean.
- *Gaur egun Belardi haundiko sailean 16 urteko pinudia dago.*
- *Eta kablea kendu:* Gaur egun oraindik zutik dago.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa zutik dago.
- *Nolakoa da:* Goian eta behean rail banari lotua dago kablea. Kablea altzairuzkoa da. Disparoa enbudo formako txapa bat da eta txirrikak erdian brontzeko kaskiloa daramate arinago korritzeko eta gantxoak jiratorioa dute.
- *Kokapena:* Goiko eranslekua Garagartza baserrira hartzen den bide gurutzearen behean eta behekoa etxeko atarian.
- *Kable osoaren egoera:* Egoeran onean dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Martxan jarri daiteke kablea pasatzen den bideko pinuak bota ezker.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Aintzinako lan tresna bat izanik gaur egun gutxi gelditzen direlako eta bere luzera eta altuerak bereizgarri egiten duelako.
- *Jabearen jarrera:* Herriko historia da eta ez du kentzeko asmorik.

KABLE ZENBAKIA **40** IZENA: **LOIBE**

Baserria: ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).

Jabearen izena: Marzial Barandiaren Etxeberria.

Helbidea: ARRONDO SALETXE baserria (Arrondoa).

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtean.
- *Nondik norakoa:* Loibetik etxe atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Lur eremuen izenak:* Loibe- etxe atarira.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian eta behera egurrezko postei (agina) lotua zegoen.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuen:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Ez zuen tanborrik.
- *Nolakoak, materiala:* Burnizkoak erdian brontzezko kaskilokin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 13-14 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuen:* Arte egurra ateratzeko. Egurra metro bateko luzera batean jartzen zen bi sokak lotuta eta txirrika erdian erantsi eta bidaltzen zen.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Abantail haundirik ez zuen ekarri, sortak ekartzen zuen abiadurarekin egurrak eta tresna guztiak txikitzen ziren. Gainbehera handia zegoen.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.937 urtean. Oso denbora gutxin egon zen.
- *Eta kablea kendu:* 1.937 urtean.
- *Zergatik:* Kable lokoa hauek egurretako ez dutelako balio. Egurretarako frenudun kablea behar du.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

41

IZENA: **BALOSORO**

Baserria: ESPILLA baserria (Arrondoa).

Jabearen izena: Felix Eskisabel Zurutuza.

Helbidea: ESPILLA baserria (Arrondoa).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Astoa bi sortakin kargatuta edo ta gurdin kargatuta.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.946 urtean.
- *Nondik norakoa:* Balasoro baino beheragotik zen lehenengo eta balasoroko belarrak leraz jexten ziren kable ondoraino. 1.956 urtean lurjausi batek kablea autsi egin zuen. 1.958 urtean Balasoron jarri zen kablea.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 750 m.
- *Desnibela:* 100 m.
- *Lur eremuen izenak:* Balasoro- Liztorre Barrena- Soro Haundia- etxe ingurura. Baseritik 30 m gelditzen da.
- *Nork jarri zuen:* Osabak, Juan Eskisabel (Errota Berrikoak).

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasuak:* Goian akazi egur bati erantsia dago eta poste hau ez behartzeko bi kable pus-kakin atzeko bi haritzei lotua dago. Astoak beren pipan dute zintzilik eta pipa hauei alanbre bidez kablea lotuta dago. Beheran lizar arbola bati lotua dago. Ez du tanborrik, diferentzialakin tiratzen da kablea eta lizar arbola baino 5 m lehenago disparoa du.
- *Nolakoa:* Haseran itsas kablea zen baina egun batean Urkillagako kaminon egurrekin zetorren kamioi batek gehiegi kargatuta zetorrela kablea autsi egin zuen eta ondoren altzairuzkoa jarri zen.
- *Diametroa:* 12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Bai. *Nola:* Kotoia oliokin busti eta leku batzueskuz eta bestetan makila baten puntan jarrita. 4-5 urten behin engrasatzen zuten itsas kablea.
- *Astorik ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Lau.
- *Danborra zerez egina:* Ez zuen tanborrik.
- *Nolakoak, materiala:* Gehienak brontzeko kaskiloa zutenak eta gantxo jiratoriodunak. 3 edo 4 burnia burniaren kontra zutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 18 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Altzairuzko kablea jarri ezker ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua edo igarra, berdea, horbela eta zotza garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* Berdeari 70 Kgr eta igarrari 40 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7-8 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, lana errezago egiten dela.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* Oraindik martxan dago.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa zutik aurkitzen da.
- *Nolakoa da:* Kablea altzairuzkoa da. Astoak zutikako bi egurren gainean beste bat zeharka jarri ondoren alanbre bidez pipa bat zintzilikatzen du. Txirrikak burnizkoak dira eta barruan brontzezko kaskiloa daramate.
- *Kokapena:* Goian Eskisabel baserriaren atzekaldean dago eta behean Espilla pasatu ondoren Urkilagako kaminoan goruntz 30 m tara.
- *Kable osoaren egoera:* Egoera onean dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Martxan dago.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Aintzinako lan tresna delako eta gaur egun gutxi gelditzen direlako eta bere montaia aldetik eta luzeragatik berezia delako.
- *Jabearen jarrera:* Zutik edukitzeko asmoa du.

KABLE ZENBAKIA **42** IZENA: **ARGINITURRI**

Baserria: DORRONSORO baserria (San Martin).

Jabearen izena: Jose Inazio Urdangarin Maiza.

Helbidea: Hirigoien 14. Lazkao.

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Behiekin gurdian ekarri zuten.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Argin iturritik Dorronsoro baserri barrura.
- *Argin iturritik* Dorronsoro baserriaraino kablea zuzenen etortzen zen baina beste kable bat ere eransten zitizion plantxuela baten bidez, Belartxo haundiko kablea zen.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* Argin iturritik etxera 1.200 m eta Belartxo haunditik plantxuelaraino 400 m.
- *Desnibela:* Argin iturrikoak 275 m eta Belartxo haundikoak 150 m.
- *Lur eremuen izenak:* Argin iturri- herri terrenoa- Uelaingo saila- Lazkaoiti zaharrekoa- Don Danielena- Abeta txiki- Laiotzeko soroa (Aldakiokoa)- etxaguko soroa- ganbarara. Belartxo haundi- Azaola zaharreko saila- Garagartzako saila- Abeta. Abeta txikin plantxuela bidez elkartzen ziren bi kableak.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak kartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian mailoa bilatu eta egur bat sartua zuen. Bidean bi asto zituen bat herri terrenoan. Abeta Txikin plantxuela bidez Belartxo Haundiko belarrak eransten zitzaizkion. Beheran etxeko medialinari erantsia zegoen eta bertan egurrezko tanborra zuen. 1.945 urtean baserria erre egin zen eta gero tanborra atarian jarri zuten.
- *Nolakoa:* Argin Iturrikoa altzairuzkoa zen eta Belartxo Haundiko berriz itsas kablea.
- *Diametroa:* Altzairuzkoak 12 mm eta itsas kableak 8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Argin Iturrikoa zuzena eta Belartxo Haundikoa angeluduna.
- *Engrasatzen zenuten:* Bai. *Nola:* Txirrikari grasa emanaz.
- *Astorik ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bi.
- *Plantxuelarik:* Bai, Abeta Txiki deritzan sailean 1,5 m ko luzera batekoa.
- *Danborra zerez egina:* Haserakoa egurrezkoa, haritza, eta azkena burnizkoa, karraka- duna.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 7 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai, kable aldaketa.
- *Nork, noiz:* Juan Agirre (Mendi Urkulukoak).

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua edo igarra, berdea edo ganadu jana, eta garoa garraitzeko.
- *Urteko ze sasoiatan:* Udara, udazken eta neguan.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 65 Kgr berdean eta 50 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7 hankarakin eta 2 sokakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Ikaragarria, gurdian bidai bakoitzean 6 sorta ekartzen ziren eta kablearekin goizean joan eta iluntzerarte bota egiten zen. Belar pila haundiagoak bidali.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.947 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.947 urtean.
- *Zergatik:* 1.947 urtean Dorronsoro baserria erosi egin zuten, ordurarte maizter modura bizi izan ziren, eta urte berean goiko belardiak Felix Maiza, osabari, saldu zizkioten bere kable eta guzti.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen. Dena osabak ereman zuen.

KABLE ZENBAKIA

43

IZENA: ARGINITURRI

Baserria: ZUGA baserria (San Martin).*Jabearen izena:* Juan Maiza*Helbidea:* MANTXINTXU BERRI etxea .

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Kablea eta terrenoak biak batera erosi zizkien anaiak, Felix Maizak koinaturari.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.947 urtean.
- *Nondik norakoa:* Argin Iturritik Zuga baserriko ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez, baina herri terrenoan astoa zuenez 5 pta ordaintzen zuten.
- *Luzera:* 500 m.
- *Desnibela:* 75 m.
- *Lur eremuen izenak:* Argin Iturri- herri terrenoa- atariko zelaia- Zugako ganbarara.
- *Nork jarri zuen:* Eurek. Tanborra lekuz aldatzea egin zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* Berezitasuak: Goian harkaitzean sartua zegoen egur bat, bidean herri terrenoan asto bat zuen bere piparekin eta baserrian burnizko tanborra karrakakin hestutzen zela. Disparoa ere bazuen.
- *Kablea nondik ekarri:* Koinatuari hartu zion.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bat.
- *Plantxuelarik:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Burnizkoa.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Batzuk koinatuari hartu zizkien.
- *Nolakoak, materiala:* Lehenengoak burnia burniaren kontra zutenak eta azken 10ak brontzezko kaskiloa zutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 100 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* Sardaka jartzen zuten.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Terrenoaren arabera dago: biderik ebaki ezin daitekeen terrenoa bada abantaila da baina bidea ebaki daitekeen lekuan karroz errezago lan egiten da.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.952 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.952 urtean.
- *Zergatik:* Zuga baserria erre egin zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **44** IZENA: ZUGA

Baserria: ZUGA baserria (San Martin).

Jabearen izena: Juan Maiza.

Helbidea: MANTXINTXU BERRI etxea .

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.952 urtean.
- *Nondik norakoa:* Zugatik Mantxintxu berri etxeko ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 650 m.
- *Desnibela:* 175 m.
- *Lur eremuen izenak:* Zuga- Matxintxu berri etxera.
- *Nork jarri zuen:* Eurek jarri zuten. Lehen Zugara zuten kable bera jarri zuten. Zugan lehenauko tanborra utzi eta kablea Matxintxu berrira bota zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian Zugan borda egin zuten eta bordan lehenauko tanborra jarri zuten. Bidean hiru asto zituen muñatxetan kableak lurra ez jotzeko eta beheran Matxintxuko ganbaran disparoa. Ganbaran kablea alde batetik sartu eta alboko alerotik atera ondoren kanpoko egur bati lotua zegoen.
- *Kablea nondik ekarri:*
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Hiru.
- *Danborra zerez egina:* Burniakoa, alboetan karrakak zituela.
- *Nolakoak, materiala:* Batzuk burnia burniaren kontra zutenak eta azkenak brontzeko kaskiloa zutenak eta gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua edo igarra, berdea, arbia garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta neguan ere bai. Ganadua Matxintxun zuten eta belardiak eta soroak berriz Zugan.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 100 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* Sardaka egiten zuten.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Eta kablea kendu:* 1.988 urtean kablea etxeko ganbaratik soltatu zen.
- *Zergatik:* Alperrik zegoelako eta zuen tiroarekin etxea hondatzen ari zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Txirrika batzuk, astoak eta kablea lurrean. Burnizko tanborra saldu egin zuen. Ganbaran sorta belarra sartzen zen atea ere itxia du.

- *Nolakoa da:* Astoak zutikako bi egurrei zeharka beste bat josi edo lotu eta azken honetatik alanbre bidez burnizko gantxo edo pipa bat eramaten du.
Txirrikak burnizkoak dira erdian arinago korritzeko brontzeko kaskilo batekin eta sorta belarra eransten zaion gantxoa jiratorioa du.
- *Egoera:* Txirrikak, kablea eta astoak egoera onean daude.
- *Kokapena:* Motasorotik aldera kaminoz joanez Zubiondo pasa ondoren eskubita gelditzen den mendiaren bizkarrean.
- *Kable osoaren egoera:* Kablea sotatuta dago bai Zugan eta baita ere Matxintxun.
- *Martxa jartzeko moduan:* Ez.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Bere luzera eta berezitasunagatik.
- *Jabearen jarrera:* Bidea dagoen lekuetan gurdiari edo traktoreari utzi beharra dago.

KABLE ZENBAKIA **45** IZENA: **LANGAMUSU**

Baserria: ALDAKIO baserria.

Jabearen izena Jose Goikoetxea Munduate.

Helbidea: Mantxintxu Berri etxea (Arin auzoa).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Astoarekin sortak kakotan jarrita.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.965 urtean.
- *Nondik norakoa:* Langamusutik- Motasoroko kruzera.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Nolakoa zergatik?*
- *Luzera:* 450 m.
- *Desnibela:* 50 m.
- *Lur eremuen izenak:* Langamusu- Uelain erreka.
- *Nork jarri zuen:* Juan Eskisabel, Errota Berrikoak.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak :* Langamusuko zelaian danborra zuen. Bidean asto bat eta behean disparto bidez erortzen zen sorta lurrera. Matxintxura karroan eramaten zuten.
- *Kablea nondik ekarri:* Zumarragatik. Tailer batetik.
- *Nolakoa:* Galbanizatua.
- *Diametroa:* 12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoric ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bat.
- *Plantxuelarik:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Andres Segurola perratzaileak eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak eta gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 12 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua, belar berdea, horbela eta garoa garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50-60 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 9 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Abantail handia izan zen biderik ez bait zegoen garai hartan.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.972 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.972 urtean.
- *Zergatik:* Bidea ebaki zen eta astoarekin karron jexten hasi zirelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Tanborra osatzen duten egurrak gelditzen dira.

KABLE ZENBAKIA **46** IZENA: **ABETA**

Baserria: HARITZ HAUNDIETA baserria.

Helbidea: ZUBIONDO etxea.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Abetatik atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 500 m.
- *Desnibela:* 125 m.
- *Lur eremuen izenak:* Abeta- Gorostolako putzu- Etxagu- Baratza zaharre- etxeko atarira.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian tanborra haritz arbola baten kontra zuen, bidean asto bat eta beheran belar sortak tranpal gainean gelditzen ziren.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak eta gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 20 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua, egurra, hostoa, belar berdea edo ganadu jana garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin eta bi sokakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.966 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.966 urtean.
- *Zergatik:* Baserria erre egin zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Gaur egun ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **47** IZENA: **URDANTXO**

Baserria: ZUBIONDO etxea.

Helbidea: ZUBIONDO etxea.

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Haritz Haundieta baserrira bizkarrean eta gurdin eramaten zuten. Haritz Haundieta baserria erre zenean 1.966 urtean Zubiondora jetsi ziren eta kablea Motasororaino jarri zuten.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.966 urtean.
- *Nondik norakoa:* Urdantxotik Motasorora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 500 m.
- *Nork jarri zuen:* Kablea Arbotonetako Jose Baztarrikak jarri zuen.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goan harkaitzean egur bat sartua zuen, bidean plantxuela bat eta behean egurrezko tanborra.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 18-20 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Angeluduna.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Plantxuelarik:* Bai, txirrikak plantxuelara iristean ez saltatzeko bi burni zituen eta bi burni hauen artean pasatzen zen txirrika.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza. Iturtxo baserriko Jose Goikoetxeak egina. Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra dutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 20 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko eta noiz behinka belar berdea.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrari eta 60 Kgr berdeari.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.981 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.981 urtean.
- *Zergatik:* Gizonak lantegian lan egiten zuten eta ezin zuten denera iritsi eta goiko sailak uzten hasi ziren. Gero sail horiek saltzera atera ziren eta beste batzuk erosi zituzten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen, zeuden tresnak txatarre-rire bidali zituzten .



KABLE ZENBAKIA

48IZENA: **ZINKO***Baserria:* IGARTZATE baserria.*Jabearen izena:* Lukas Imaz Aierbe.*Helbidea:* IGARTZATE baserria.• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:***KABLEA**• *Jarri zeneko data:* 1.936 urtean.• *Nondik norakoa:* Zinkotik Igartzate zaharreko atarira.• *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.• *Luzera:* 500 m.• *Desnibela:* 175 m.• *Lur eremuaren izenak:* Zinko- Urtxuanakoa (Igartzate Berrikoa)- Artingo saila- Armuño-ko saila- Elutxe (Lauzti Azpikoa)-Igartzate Zaharreko atarira.**Kable elementuak**• *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian mailoa bilatu eta burnia erantsita zuen. Bidean hiru asto zituen eta behe-
ran tanborra bere dispareekin.• *Nolakoa:* Lehena itsas kablea zen eta azkena altzairuzkoa.• *Diametroa:* Altzairuzkoak 8 mm.• *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.• *Engrasatzen zenuten:* Ez.• *Astoriak ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Hiru.• *Danborra zerez egina:* Haserakoa egurrezkoa eta azkena burnizkoa bere karrakakin. Burnizko tanborra Juan Eskisabelek jarri zien Imatzenetik eraman ondoren.• *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Azkenak Oriotik ekarriak.• *Nolakoak, materiala:* Haserakoak burnia burniaren kontra zuten eta Oriotik ekarriak barnean brontzezko kaskiloa eta gantxoak jiratorioa.• *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.• *Konponketarik egin zen:* Bai.• *Nork, noiz:* Behin itsas kablea eten zitzairen eta Arbotonetako Jose Baztarrikak aldatu zuen. Gerora altzairuzko kablea berriz Juan Agirre (Mendi Urkulukoak) jarri zuen**Erabilpena**• *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko eta noiz behinka lizar hostoa.• *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta neguan.• *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrakin• *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin eta bi sokakin.• *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.• *Ze abantail ekarri zuen:* Erreztasuna eta erosotasuna.• *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.• *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.982 urtean.• *Eta kablea kendu:* Berehala.**Aztarnak**• *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Tanborra gelditzen da bakarrik.• *Nolakoa da:* Tanborra burnizkoa da eta bi alboetan karraka bana ditu. Erdian zulo batzuk ditu palankarekin hestutzeko.• *Materiala:* Burnizkoa da.• *Egoera:* Egoera onean dago.• *Kokapena:* Igartzate Zaharraren atarian.• *Martxa jartzeko moduan:* Ez.

KABLE ZENBAKIA

49

IZENA: **URRUTX ALDAPA**

Baserria: IGARTZATE BERRI baserria.

Jabearen izena Felipe Baztarrika Urbiztondo.

Helbidea: Igartzate Berri baserria.

KABLEA

- *Nondik norakoa:* Urrutx Aldapatik Igartzate Berri baserriaren barrura.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 600 m.
- *Desnibela:* 100 m.
- *Lur eremuen izenak:* Urrutx aldapa- Zearre- Elutxe- Itzate zearre- Etxegoena.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian arbola bait lotua zegoen kablea. Beheran kablea etxearen alde batetik sartu eta bestetik ateratzen zen. Tanborra ganbaran zuen.
- *Diametroa:* 12 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Angeluduna.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Hiru.
- *Plantxuelarik:* Bai.
- *Danborra zerez egina:* Danborra baserri barruan zuen. Egurrezkoa zen.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsezkoak eta gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai.
- *Noiz, nork:* Aitazanak, Pedro Baztarrikak enpalmeak eginzizkion.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta belar berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta udazken partean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 8 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.975 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.978 urte aldera.
- *Zergatik:* Belardian pinua sartu zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

50IZENA: **ETXEGOENA***Baserria:* ITURRIOZ baserria.*Jabearen izena* Jesus Urbiztondo Urdangarin.*Helbidea:* ITURRIOZ baserria.**KABLEA**

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Etxe goenetik etxeko ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m.
- *Desnibela:* 75 m.
- *Lur eremuen izenak:* Etxe goena

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian haritz arbola bati lotua zegoen eta ganbaran disparoa zuen eta egurrezko tanborra.
- *Nolakoa:* Itsas kablea zen.
- *Diametroa:* 20 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Agina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Azkenak Astigarragako errementariak eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak. Batzuk gantxo fijokin eta besteak jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 6 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udaran.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 8 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Garai hartan etxean leku txikiak zeudelako jarriko zen baina gero atea haunditu eta kabaileriarekin gomazko gurdikin hasi zirenean desabantail gehiago zituen kableak.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.961 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.966 urtean.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

51

IZENA: **ZUGA EKARRA**

Baserria: ARIN HAUNDIA baserria.

Jabearen izena: Felipe Arratibel Arratibel.

Helbidea: ARIN HAUNDI baserria.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Zugako ekarretik Arin Haundi etxe ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 400 m.
- *Desnibela:* 100 m.
- *Lur eremuen izenak:* Zuga ekarra- Elormendi etxeko sailak- Matxintxuko saila- Arin Etxeberriko saila- etxe atarira.
- *Nork jarri zuen:* Jose Rezola eta Luis Agirre (Larruntzakoak).

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian Harkaitza aurkitu eta egur bat sartua. Bidean asto bat eta beheran etxeatarin posti bati lotua bere dispartoarekin.
- *Kablea nondik ekarri:* Jartzaileak ekarriko zuten.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 6-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoric ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bat.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Astigarragako errementariak eginak eta azkenak lantegian eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak eta gantxo jiratoriodunak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 10-15 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai.
- *Nork, noiz:* Berak. Behera aldean kablea hautsi egin zen eta motzagoa jarri zuen.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Horbela, belarra eta sutako egurra garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr egurren eta 35-40 Kgr belarren.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4-6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Izugarritzkoa. Orain pistak duten adelantua orduan kableak zuen.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.960 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable zatiren bat eta txirrika batzuk gelditzen dira.

KABLE ZENBAKIA

52

IZENA: **ETXABURU***Baserria:* ARIN HAUNDI baserria.*Jabearen izena:* Felipe Arratibel Arratibel.*Helbidea:* ARIN HAUNDI baserria.**KABLEA**

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Etxaburutik kamino ondora.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 240 m.
- *Desnibela:* 70 m.
- *Lur eremuen izenak:* Etxaburua- etxeko soroak- kaminoaren ondora.
- *Nork jarri zuen:* Artaditxuloko Bixente Eskisabelek.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian mailoa bilatu burni bat sartu eta kablea erantsi eta beheran tanborrean bildua. Kable hau frenuduna zen. Txirrika jartzen zenean kable gainean txirrikaren azpitik beste kable bat eransten zen eta honek frenu modura egiten zuen. Kablea honek tanborra zuen goian eta poliki poliki soltatuz karga suabe suabe jexten zen eta gero gora txirrika eta saskia eramateko kablea tanborrean biltzen zen.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 6-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bat.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Astigarragako errementariak eginak eta azkenak lantegian eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 10-15 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

Zertarako erabiltzen zenuten: Sagarrak garraiatzeko. Goian sagasti sail haundia zuten eta aldiko bi zaku jexten zituzten.

- *Urteko ze sasoietan:* Udazkenean.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Eta kablea kendu:* 1.941 urtean.
- *Zergatik:* Sagarrondoak igartu egin ziren. Gaur egun pinua dute.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **53** IZENA: **USUELA**

Baserria: ARIN ETXEBERRI baserria.

Jabearen izena: Hipolito Goikoetxea Barandiaran.

Helbidea: ARIN ETXEBERRI baserria.

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Arrastaka eta bizkarka behera jetsi eta beheran gurdia kargatuz ekartzen zituzten.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.934 urtean.
- *Nondik norakoa:* Usuelatik etxe atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 200 m.
- *Desnibela:* 60 m.
- *Lur eremuen izenak:* Usuela- Urezaundi baserriko saila- herri terrenoa- etxe ataria.
- *Nork jarri zuen:* Euren Telleri Erdiko Jose Manuelen laguntzaz.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian haritz arbola bati lotua dago eta beheran lehenengo intxaur arbola bati eta gero paretari. Haseran paretari lotua zegoen eta asko tiratzen zuen. Beheran du tanborra eta disparoa ere bai.
- *Kablea nondik ekarri:* Pasaiaitik Telleri Erdiko Jose Manuelek.
- *Nolakoa:* Itsas kable zen.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Bai. Nola: Bi urtez behin tanborretik lasatu eta behera jetsi eta eskuz trapu bat oliotan bustita pasatuz.
- *Astoria ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez eginga:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Jose Manuelek eman zizkien.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 6-8 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai. Kable aldaketak.
- *Nork, noiz:* 1.986 urtean ondoko txatarroari hartu zion itsas kablea eta berak jarri zuen.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua edo igarra, berdea edo ganadu jana eta *egurra garraiatzeko.* *Egurra metro bateko luzera batean sorta egin eta katez lotuta botatzeko zuten.*
- *Urteko ze sasoietan:* Udara, udazken eta neguan.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30 Kgr belar igarrarekin.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4 hankarakin. eta bi sokakin lotua eta berdea zenean azpian zarba batzuk jarriaz.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia. Behin sorta eginda jarri ezker azkar etortzen ziren etxe ondoraino.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.

- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* Oraindik zutik dago baina ez dute sortarik botatzen azpikaldean Urezaundiko pinua altua dago eta kablea tarten galditzen delako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa zutik dago.
- *Nolakoa da:* Kablea itsas kablea da. Tanborra zeharkako egur bat da erdian tatulu bidez zulo batzuk eginak ditu gero palankakin kablea tiratzeko. Disparoan trapu puska bat alanbre bidez lotua du.
- *Kokapena:* Arin Etxeberri baserriaren atzekaldean dago.
- *Kable osoaren egoera:* Egoera onean dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Bai.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Aintzinako lan tresna bat izanik gaur egun gutxi gelditzen direlako.
- *Jabearen jarrera:* Ez dute erabiltzen beheko saileko pinua handia egin delako eta tartean pasatzen delako.

KABLE ZENBAKIA **54** IZENA: **KIÑU**

Baserria: ARIN ETXEBERRI baserria.

Jabearen izena Hipolito Goikoetxea Barandiaran.

Helbidea: ARIN ETXEBERRI baserria.

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Arrastaka eta bizkarka jexten zen Mota Gaztinari ondora eta handik etxera gurdian.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.940 urtean.
- *Nondik norakoa:* Kiñutik Mota Gaztinarira (Munduate etxearen gainera).
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 200 m.
- *Desnibela:* 70 m.
- *Lur eremuen izenak:* Kiñu-Eizketako bizkarra- Mota Gaztinari.
- *Nork jarri zuen:* Eurek jarri zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian harkaitzean egurra sartua eta behean gaztaina arbola bati erantsia. Beheran tanborra zuen bere dispartoarekin.
- *Nolakoa:* Itsas kablea zen.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Jose Manuel Telleri Erdikoak emanak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 6-8 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai.
- *Nork, noiz:* Arbotonetako Jose Baztarrikak enpalmea egin zien.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Geheinbat belar ondua edo igarra garraiatzeko eta noiz behinka belar berdea.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4 hankarakin eta bi sokakin lotua.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, lehen dena bizkarka egiten zuten.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Behin kablean bide erdian 6-7 sorta gelditu zitzaizkien eta Hipolito bera kablean gora joan zen sorta haiei bultzatzera. Bidean zihoala kablea hautsi zen eta 20 m altuera batean goitik behera erori zen bere sorta eta guzti eta ez zitzaion ezer gertatu. Kablean joateko bi txirrikatan soka pasatu eta ohol bat jarri eta bere gainean joan zen.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.986 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Dispartoa zuen lekutik hautsi egin zen eta ez zuten konpondu. Bidean pasatzen zituen sail batzutan pinua sartzen ere hasi ziren eta nahiko aparte ere gelditzen zen.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

55IZENA: **ITSASI***Baserria:* ARIN ETXEBERRI baserria.*Jabearen izena:* Hipolito Goikoetxea Barandiaran.*Helbidea:* ARIN ETXEBERRI baserria.

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Arrastaka eta bizkarrean jesten ziren.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.934 urtean.
- *Nondik norakoa:* Itsasitik beheko itsasira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 150 m.
- *Desnibela:* 45 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Itsasi sail berean belarra goitik behera garraiatzeko erabiltzen zen.
- *Nork jarri zuen:* Telleri Erdiko Jose Manuelek.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian arte arbola bati erantsia eta beheran beste arbola bati. Tanborra beheran zuen.
- *Kablea nondik ekarri:* Jose Manuelek ekarri zuen.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuen:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Jose Manuelek ekarriak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 6-8 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuen:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Noiz behinka egurra.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Bentaja haundirik ez kaminotik ere gertu zegoen saila zen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.940 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.940 urtean.
- *Zergatik:* Kanteratik zihoan argin linea pasatu behar zen bere gainean eta arriskua sortarazi zezakeela eta kendu arazi egin zioten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da zer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **56** IZENA: **MUGATERREKA**

Baserria: AUZMENDI baserria.

Jabearen izena: Jose Mari Urdangarin Azurmendi.

Helbidea: AUZMENDI baserria.

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarka ibiliko ziren.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Mugaterrekatik etxeko ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 120 m.
- *Desnibela:* 45 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Mugaterreka- Aldakotxo alde (Perune Zaharreko eta Goikoetxe-ko sailak)- etxe atzea.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian zutikako bi egurren kontra tanborra zuen eta behean ganbaran zutikako egur bati lotua zegoen. Ganbaran disparoa zuen sorta belarrak kabletik saltatzeko.
- *Kablea nondik ekarri:* Pasiatik ekarri zen.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Bai. *Nola:* Txirrikan gainean kaja bat jarri zulo batekin eta zetorren moduan olioia isurtzen zuela.
- *Astoria ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez eginga:* Egurrezkoa. Hagina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Kablea zuten batzui erosiak eta azkenak Andres Segurola errementariari erosiak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia burniaren kontra zutenak. Haserakok gantxo fijoak zuten eta azkenak jiratorioa.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 24 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai.
- *Nork, noiz:* Kablea bi aldiz aldatu zuten eta beti ere itsas kablea nola zen erreta etortzen zen eta erreza hausten zen. Azkenik altzairuzkoa jarri zuten. Berak jarri zituen.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua edo igarra eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udaran.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 58-60 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin eta bi sokakin igarra eta berdea zarba batzuketan.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erreztasuna eta erosotasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Mutikotan murko ondoraino txirrikari helduta kablean etortzen zen eta gero saltatu egiten zuen. Behin esku muturrean alkandoratik katiatzen zaió txirrika eta beso batetik zintzilik behera etorri zen alkandora hautsi zitzaion arte.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.980 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Gerora.
- *Zergatik:* Pinua sartu zutelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

57

IZENA: UREZAUNDI BURU

Baserria: AUZMENDI baserria.*Jabearen izena:* Jose Mari Urdangarin Azurmendi.*Helbidea:* AUZMENDI baserria.**KABLEA**

- *Jarri zeneko data:* 1.956 urtean.
- *Nondik norakoa:* Urezaundi burutik ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 80 m.
- *Desnibela:* 30 m.
- *Lur eremuen izenak:* Urezaundi buru - etxeko sailak.
- *Nork jarri zuen:* Eurek jarri zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian zutikako bi egurrei lotua tanborra dago eta beheran ganbaran beste egur bati lotua dago.
- *Kablea nondik ekarri:* Pasaiatik.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7-8 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia. Urrutiko sailetan bestela bidean pasatzen zen egun guztia.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.971 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Pinua sartu zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA

81IZENA: **EKAIN***Baserria:* SABIAGA baserria (San Gregorio).*Jabearen izena:* Antonia Etxeberria Aierdi.*Helbidea:* SABIAGA baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Astoarekin biderik ez zegoen lekuetan eta gurdiz bidea zegoen lekuetan.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtean.
- *Nondik norakoa:* Ekainetik Sabiaga baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 600 m.
- *Desnibela:* 115 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Ekain- Gomonsoko saila.
- *Nork jarri zuen:* Artaditxuloko Bixente Eskisabelek.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian zutika bi egur sartu eta hauei lotua tanborra zuen eta beheran etxe ataria tranpala. Sortak disparoan saltatzen zuenean tranpal gainera erortzen zen eta gero bizkarean etxeko ganbarara sartzen zen.
- *Kablea nondik ekarri:* Pasaiatik.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 18 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak eta bakarren bat gantxo fijoarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 10-12 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai, kableari enpalmeak egitea.
- *Nork, noiz:* Arbotonetako Jose Baztarrikak.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko. Belar onduaren sorta bi sokakin lotzen da eta berdearekin sorta egiteko azpian zarba batzuk jartzen dira.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6-7 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.966 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Pinua sartu zutelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **82** IZENA: **ETXABURU**

Baserria: SABIAGA baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Antonia Etxeberria Aierdi.

Helbidea: SABIAGA baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Astoarekin biderik ez zegoen lekuetan eta gurdiz bidea zegoen lekuetan.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.946 urtean.
- *Nondik norakoa:* Etxaburutik Sabiaga baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 600 m.
- *Desnibela:* 115 m.
- *Lur eremuen izenak:* Etxaburua.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egurrezko bi posteri lotua tanborra zuen. Bidean lau asto zituen eta hauetako batek plantxuela moduko bat zuen jiratorioa. Beheran Ekainetik zetorren tranpal berdinerara sartzen zen.
- *Kablea nondik ekarri:* Pasaiaitik.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 18 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoria ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Lau.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak eta bakarren bat gantxo fijoarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 10-12 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6-7 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.967 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Geroztik.
- *Zergatik:* Pinua sartu zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Asto bat dago zutik. Hau Jose Rezolak jarri zuen.
- *Nolakoa da:* Astoa egurrezkoa da zutikako bi egur eta zeharkako beste batez egina. Zintzilik pipa bat du eta gainean burni bat ranurarekin txirrika bertara iristean honen barruan pasatzeko. Burni honek ibilbidea pixka bat jirutzen du.
- *Kokapena:* Sabiaga baserriaren gainkaldean.
- *Martxa jartzeko moduan:* Ez, asto hau ez ezik kable osoa kendurik dago.

KABLE ZENBAKIA **83** IZENA: **SORO HAUNDI**

Baserria: MUÑOA baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Karmen Tolosa Begiristain.

Helbidea: MUÑOA baserria (San Gregorio).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Astoarekin sotaka biderik ez zegoen eta.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urte aldera.
- *Nondik norakoa:* Soro Haunditik Muño baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m.
- *Desnibela:* 70 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Soro Haundi- Perune Zaharreko saila- Goikoetxeko saila.
- *Nork jarri zuen:* Senarrak jarria Jose Albisuk.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian harkaitzean sartua egurrezko poste bat. Posteari kablea erantsi eta atari ondoan ormigoizko murete baten kontra du tanborra. Sorta belarra ormigoizko pareta jotzen duenean gelditzen da.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Errementariak eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak eta bakarren bat gantxo fijoarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 15 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7-8 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* Oraindik noiz behinka botatzen dute.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa zutik dago.
- *Nolakoa da:* Goian poste bati lotua dago. Etxe atarian ormigoizko murete baten atzean egurrezko tanborra du kablea tiratzeko.
- *Materiala:* Kablea altzairuzkoa. Tanborra egurrezkoa, haritza.
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Munñoa baserriaren aurrean.
- *Kable osoaren egoera:* Egoera onean dago.
- *Jabearen jarrera:* Kentzeko asmorik ez dute, oraindik behar izatea gerta dakielako.

KABLE ZENBAKIA **84** IZENA: **SORALUZE**

Baserria: MUÑOA baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Karmen Tolosa Begiristain.

Helbidea: MUÑOA baserria (San Gregorio).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Astoarekin sotaka biderik ez zegoen eta.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urtea aldera.
- *Nondik norakoa:* Soralezetik Muñoa baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m.
- *Desnibela:* 75 m.
- *Lur eremuen izenak:* Soraluze.
- Nork jarri zuen:* Senarrak jarria Jose Albusuk.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* Berezitasunak: Goian poste bati lotua dago kablea eta behean ormigoizko murete baten kontra du tanborra. Bidean asto bat du kableak lurra jo ez dezan. Sorta belarra kablean datorrenean ormigoizko paretaren kontra jotzean gelditzen da eta hortik bizkarrean ganbarara eramaten da.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bat.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Errementariak eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak eta bakarren bat gantxo fijoarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 15 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoiatan:* Udara eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 7-8 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* Oraindik erabiltzen da.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable osoa zutik dago.
- *Nolakoa da:* Goian poste bati erantsia dago kablea. Beheran ormigoizko muro baten kontra dago tanborra. Ez du disparorik.
- *Materiala:* Kablea altzairuzkoa da. Tanborra egurrezkoa eta txirrikak burnizkoak.
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Muñoa baserriaren aurrean.
- *Kable osoaren egoera:* Egoera onean dago.
- *Jabearen jarrera:* Mantentzeko asmoa du Soraluze sailera traktorez edo gurdiz joateko biderik ez dutelako.

KABLE ZENBAKIA **85** IZENA: **MUSKI**

Baserria: ARRATINEA baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Juanita Aierbe

Helbidea: ARRATINEA baserria (San Gregorio).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Kabaileriarekin biderik ez zegoen lekuetan eta gurdiz bidea zegoen lekuetan.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.936 urte aurretik.
- *Nondik norakoa:* Muski atzetik Muskiko puntara bat eta bestea Muskiko puntatik Arratinea baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 1.500 m.
- *Desnibela:* 325 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Muski.
- *Nork jarri zuen:* Senarrak jarria Nikolas Zurutzak.

Kable elementuak

Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak: Goian Muski atzetik etortzen zen kableak egurrezko poste bati lotua zegoen eta bukatzen zen lekuan zuen tanborra. Muskitik Arratinea zetorrenak goian harkaitzean burni bat sartua zuen eta baserriaren atarian burnizko tanborra. Bide guztian ez zuen astorik eta Lauzti Errekako sakanaren gainetik pasatzen zen.

- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 16-18 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Goikoa egurrezkoa, gaztaina eta behekoa burnizkoa alboetan bere karrakakin. Tanborra Orioko Zaldua Ondoazabal tailerlean egina da.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak gehienak eta bakarren bat gantxo fijoarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko normalki. Noiz behinka berdea ere bai baina ganadujana egitera joateko urruti gelditzen zen.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Tarteka egurra ere botatzen zen sorta modura kablearekin lotuta.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia, bestela bidean pasatu behar izaten zuten egun guztia eta honela egun guztirako joaten ziren eta goizean belarra ebakitzen zuten ontzen jartzeko eta arratsaldean bezperan ebakitako belarra botatzen zuten kablean.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.966 urtean.

- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Urrutiko lanari uzten joan ziren eta pinua sartu zuten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Burnizko tanborra bere kablearekin eta txirrika batzuk.
- *Nolakoa da:* Tanborra burnizko bi posteri lotua dago. Erdian eje moduko bat du kablea bertan biltzen dela eta alboetan bi zulo palankarekin hestutzeko eta kako bana hestutzen den eran karrakaren hortzetan eusten diola.
- *Materiala:* Tanborra burnizkoa da.
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Arratinea baserriaren gailkaldean.
- *Kable osoaren egoera:* Tanborra besterik ez da gelditzen kablea kenduta dago.

KABLE ZENBAKIA **86** IZENA: **MAIZKO**

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Martin Aierdi Galparsoro.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Kabaileriarekin biderik ez zegoen lekuetan eta gurdiz bidea zegoen lekuetan.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.932 urtean.
- *Nondik norakoa:* Maizkotik Lauzti Azpikoa baserriaren ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 700 m.
- *Desnibela:* 180 m.
- *Lur eremuaren izenak:* Maizko- Ekarre- Artadi Zeharra.
- *Nork jarri zuen:* Artaditxuloko Bixente Eskisabelek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian egur bati lotua zen. Bidean Ekarrean bi asto eta plantxuela txiki bat zituen. Astotik zintzilakatzen zen burniari txakurra deitzen zien. Artadiko Zeharrean plantxuela zuen. Kablea bi tanborretatik hestutzen zen. Tanbor bat plantxuelan zuen Maizkotik plantxuela bitarteko kablea tiratzeko eta bestea ganbaran plantxuelatik ganbarara bitarteko kablea hestutzeko. Ganbaran disparoa zuen.
- *Kablea nondik ekarri:* Artaditxulok ekarriko zuen.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Hiru.
- *Plantxuelarik:* Bai, Artadi zeharrean 90° angulua egiten zuena.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Errementariak eginak batzuk eta Oriotik ekarriak beste batzuk.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak denak bestela bueltatan ez dute balio.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai. Bi aldiz kablea eten egin zen erreka parean.
- *Nork, noiz:* Juan Eskisabel Errota Berrikoak.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko. Noiz behinka berdea ere botatzen zen.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaien:* 50 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.

Endare historikoaren azterketa

- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Bai. 1.956 ko Irailaren 23 an tximista kable bidez ganbarara sartu eta baserria erre egin zen. 1.957 urtean berriro baserria eraiki zen eta kablea haseran bezela jarri zuten, bakarrik belar lanak amaitzen zirenean kablea soltatu egiten zuten.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.973 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.973 urtean.
- *Zergatik:* Pinua sartu zutelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **87** IZENA: LAIOA

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Martin Aierdi Galparsoro.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Kabaileriarekin biderik ez zegoen lekuetan eta gurdiz bidea zegoen lekuetan.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.932 urtea baino lehen.
- *Nondik norakoa:* Laioatik Lauzti Azpikoa baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 200 m.
- *Desnibela:* 70 m.
- *Lur eremuen izenak:* Laioa.
- *Nork jarri zuen:* Artaditxuloko Bixente Eskisabelek.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egur bati lotua zegoen kablea eta beheran diapiroa zuen eta sorta belarra tranpal gainean gelditzen zen. Tanborra beheran zuen.
- *Kablea nondik ekarri:* Bixentek ekarriko zuen.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Errementariak eginak batzuk eta besteak Oriotik ekarriak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak denak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.990 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.990 urtean.
- *Zergatik:* Pinua sartu zutelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **88** IZENA: ITURRALDE SAGASTI

Baserria: AZPIKOA LAUZI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Martin Aierdi Galparsoro.

Helbidea: AZPIKOA LAUZI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Kabaileriarekin biderik ez zegoen lekuetan eta gurdiz bidea zegoen lekuetan.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.957-1.958 urtean.
- *Nondik norakoa:* Iturralde Sagastitik Lauzi Azpikoa baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 400 m.
- *Desnibela:* 75 m.
- *Lur eremuen izenak:* Iturralde sagasti.
- *Nork jarri zuen:* Errota Berriko Juan Eskisabelek.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egur bat sartu lurlean eta kablea erantsi eta behean disparen saltatu ondoren tranpal gainean gelditzen zen. Tranpal gainetik bizkarrean hartu eta ganbarara eramaten zen.
- *Kablea nondik ekarri:*
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Errementariak eginak batzuk eta besteak Oriotik ekarriak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak denak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50 Kgr igarrean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.976 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.976 urtean.
- *Zergatik:* Pinua sartu zutelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **89** IZENA: **ALDABE**

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Martin Aierdi Galparsoro.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Kabaileriarekin biderik ez zegoen lekuetan eta gurdiz bidea zegoen lekuetan.

KABLEA

- *Nondik norakoa:* Aldabetik Azpikoa Lauzti baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 300 m.
- *Desnibela:* 60 m.
- *Lur eremuen izenak:* Aldabe.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Kable hau Llauzti Azpiko bi baserriek sozio zuten . Goian mailoan egur bat sartua zuen eta beheran tranpalean saltatzen zueen disparo bidez.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Burnizkoa zen, karrakaduna. Lotzeko samurragoa eta segurua. Oriotik ekarria zen.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Errementariak eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Burnia soilik zutenak. Gantxo jiratoriodunak denak.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 50 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia. Biderik ez zegoen eta ordurako aurrerakuntza haundia zen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.986 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.986 urtean.
- *Zergatik:* Ganadurekin larrean mozten hasi zirelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen. Tanborra orain dela gutxi saldu zuten txatarrera.

KABLE ZENBAKIA **90** IZENA: **ASTALEPO**

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Jose Auzmendi Aierbe.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin edo mandokin eta lekuren batetik gurdiaekin baina orokorrean gudi biderik ez zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Astalepotik Azpikoa Lauzti baserriaren ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 900 m.
- *Desnibela:* 225 m.
- *Lur eremuen izenak:* Astalepo-Txingurrita
- *Nork jarri zuen:* Artaditxuloko Bixente Eskasabelek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasunak:* Goian egurrezko bi posteri egurrezko tanborra erantsita zuen. Bertan berehala hiru asto zituen bere txakurrarekin eta Txingurritan plantxuela baino 40 m lehenago beste asto bat. Txingurritan plantxuela jiro haundiarekin eta etxeko ganbaran beste tanbor bat. Plantxuelak oker haundia hartzen zuen ezinezkoa zen kable guztia leku batetik hestutzea. Astalepotik plantxuela bitartera kable bat zegoen eta Astalepoko tanborreti hestutzen zen. Txingurritatik etxeko ganbarara bitarteko kablea berriz ganbarako tanborretik hestutzen zen.
- *Kablea nondik ekarri:* Bixentek ekarria izango zen.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Angeluduna.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoria ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bost.
- *Plantxuelarik:* Bai. Lehendik ibilitako plantxuela zen eta berak zuen baino jiro haundiagoa eman behar zitzaion eta arbola artean sartu eta okertzen ibili ziren.
- *Danborra zerez egin:* Egurrezkoak. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta azken aldera tailerlean eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Erdian brontzezko kaskiloa zutenak eta denak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 50 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai. Kable aldaketa eta asto berriak jartzea. Astotako egurra usteltzen hasia zegoen eta akaziarekin berriak egin ziren.
- *Nork, noiz:* Eurek.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 60 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5-6 hankarakin eta bi sokakin ondua eta berdean belarra txikiagoa izaten delako sorta egiteko azpian zarba batzuk jartzen zitzaion.

- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.990 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Txingurritatik ganbarara zetorren kablea 1.990 urtean kendu zen.
- *Zergatik:* Baserria erre egin zen eta erori egin zen.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Astalepoko tanborra, bidean dituen lau asto, Tingurritako plantxuela eta kablea zutik daude.
- *Bakoitzaren deskribapena eta argazkia:*
- *Nolakoa da:* Tanborra egurrezko enbor bat da erdian zulo batzuekin palanka bidez hes-tutu al izateko.
- *Astoak egurrezkoak bertatik zintzilik txakurra dutela.*
- *Plantxuela burnizko txapa bat da egurrezko estruktura bati lotua. Plantxuelan bidez terrenoak uzten ez duen jiroa ematen zaio belar sortari.*
- *Materiala:* Tanborra eta astoak egurrezkoak. Plantxuela eta txakurrak burnizkoak eta kablea altzairuzkoa.
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Muski azpian.
- *Kable osoaren egoera:* Kablearen zati bat dago osorik.
- *Martxa jartzeko moduan:* Zutik dagoen zatia bai. Pasatzen dituen sailtan pinua sartuta dago.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Kableak izan dituen berezitasun guztiak dituelako eta gaur egun horrelakoak gutxi daudelako.
- *Jabearen jarrera:* Zutik mantentzeko asmoa du batipat jendeak ikusi dezan.

KABLE ZENBAKIA **91** IZENA: **LAIOA**

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Jose Auzmendi Aierbe.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin edo mandokin eta lekuren batetik gurdiaekin baina orokorrean gudi biderik ez zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Laioatik Azpikoa Lauzti baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 200 m.
- *Desnibela:* 60 m.
- *Lur eremuen izenak:* Laioa.
- *Nork jarri zuen:* Gurasoek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egurrezko poste bati lotua zegoen eta beheran disparen saltatu ondoren tranpal gainera erortzen ziren sortak. Tanborra beheran zuen.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 7-8 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoria ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta azken aldera tailerlean eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Erdian brontzezko kaskiloa zutenak eta denak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 50 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Horbela garraiatzeko erabiltzen zen.
- *Urteko ze sasoietan:* Negu partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 60 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5-6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.970 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.970 urtean.
- *Zergatik:* Ikuilua berritu egin zuten ganadua parrilan jarriaz eta horbelik ez zuten behar. Gaztinaria ere hondatu egin zen eta gero pinu sartu zuten.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **92** IZENA: **MAIZKO**

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Jose Auzmendi Aierbe.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin edo mandokin eta lekuren batetik gurdiaekin baina orokorrean gurdi biderik ez zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.961 urtean.
- *Nondik norakoa:* Maizkotik Azpikoa Lauzti baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Lur eremuen izenak:* Maizko.
- *Nork jarri zuen:* Euren jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egur bati erantsia zegoen eta beheran disparoan saltatu ondoren tranpalean gelditzen zen. Tranpaletik etxeko ganbarara bizkarrean eramaten zuten.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egin:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta azken aldera tailerrean eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Erdian brontzezko kaskiloa zutenak eta denak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 50 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 60 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5-6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.990 urtean
- *Eta kablea kendu:* 1.990 urtean.
- *Zergatik:* Nahiz eta aldapa egon traktorearekin bertara joaten hasi zirelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **93** IZENA: **ARRIBASO**

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Jose Auzmendi Aierbe.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin edo mandokin eta lekuren batetik gurdiaekin baina orokorrean gurdi biderik ez zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.935 urtean.
- *Nondik norakoa:* Arribasotik Azpikoa Lauzti baserriaren ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 821 m.
- *Desnibela:* 200 m.
- *Lur eremuen izenak:* Arribaso- Etxaburua.
- *Nork jarri zuen:* Euren jarri zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* *Berezitasuna:* Goian harkaitzean sarturiko egur bati lotua dago. Bidean asto bat du eta Etxaburuan plantxuela bat kableari jiroa emateko. Arribasotik datorren kablea Etxaburuko plantxuelan amaitzen da eta bertan burnizko tanborra du. Etxaburuko plantxuela tik ateratzen den kablea ganbarako egurrezko tanborran amaitzen zen. Ganbaran sorta belarrak saltatzeko disparoa zuen.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoria ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bi.
- *Plantxuelarik:* Bai. Orion egina.
- *Danborra zerez egina:* Plantxuela ondoan duena burnizkoa, karrakaduna. Oriotik ekarria eta ganbarakoa egurrezkoa, gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta azken aldera tailerrean eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Erdian brontzezko kaskiloa zutenak eta denak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 50 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 60 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5-6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Urte batean egurra bota zuten, 1,5 m ko egurrekin sorta eginda. Plantxuela baino lehenago disparoa jarri zuten bestela plantxuela guztia txikituko zuen.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.990 urtean.

- *Eta kablea kendu:* Etxaburutik ganbarako puska 1.990 urtean.
- *Zergatik:* Urte horretan baserria erre egin zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Arribasoko eranslekua, astoa, Etxaburuko plantxuela, burnizko tanborra eta kablea.
- *Nolakoa da:* Astoa egurrezko bi posten gainean beste egur bat zeharka jarri eta zintzilik txakurra. Plantxuela burnizko txapa bat kurba batekin egurrezko estruktura bati lotua. Tanborra burnizkoa bi alboetan karraka banarekin.
- *Materiala:* Tanborra, txakurrak eta plantxuela burnizkoak.
- *Astoak egurrezkoak eta kablea altzairuzkoa.*
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Muski espaldan Lauzti Iturrieta aldera.
- *Kable osoaren egoera:* Zati bat dago zutik.
- *Martxa jartzeko moduan:* Bidean pasatzen dituen sailetan pinua kablea baino altuago dago.
- *Interesgarria:* Bai.
- *Zergatik:* Kablearen berezitasun guztiak ditu eta gaur egun plantxuela bat zutik duen kablerik ez dagoelako.
- *Jabearen jarrera:* Momentuz zutik edukitzeko asmoa du kanpoko jendeak ikusi dezan.

KABLE ZENBAKIA **94** IZENA: **ELUTXE**

Baserria: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Jose Auzmendi Aierbe.

Helbidea: AZPIKOA LAUZTI baserria (San Gregorio).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin edo mandokin eta lekuren batetik gurdiarekin baina orokorrean gurdi biderik ez zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.956 urtea.
- *Nondik norakoa:* Elutxetik Arribasorora. Arribasoron bertako kablea behera jetsi eta eransten zitzaion.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 600 m.
- *Desnibela:* 60 m.
- *Lur eremuen izenak:* Elutxe.
- *Nork jarri zuen:* Eurek jarri zuten.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian haritz enbor bati zuloa egin eta kablea pasatu eta enbor atzean burnizko tanbor bat zuen. Arribasoko sailean belar sortak kable batetik bestera pasatzen ziren eta gero denak Arribasoko kablean iristen ziren etxeraino.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Burnizkoa, karrakaduna. Oriotik ekarria.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta azken aldera tailerlean eginak.
- *Nolakoak, materiala:* Erdian brontzezko kaskiloa zutenak eta denak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 50 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoiatan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 60 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5-6 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Zergatik:* Gaur egun ganaduekin larrean mozten dute.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen. Burnizko tanborra txatar-rrera bidali zuten.

KABLE ZENBAKIA

95

IZENA: MUSKI

Baserria: LAUZTI GARAKOA baserria (San Gregorio).*Jabearen izena:* Juan Mujika Zurutuza.*Helbidea:* LAUZTI GARAKOA baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin bi sorta bizkarrean jarrita.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.921 urtean.
- *Nondik norakoa:* Muskitik Lauzti Garakoa baserriaren ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 1.000 m.
- *Desnibela:* 270 m.
- *Lur eremuen izenak:* Muski.
- *Nork jarri zuen:* Artaditxuloko Bixente Eskasabelek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Muskiko punta baino pixka bat beherago haritz arbola bati erantsia zegoen. Bidean bost asto zituen eta etxe atzeko sailean, Eutera, 6 m ko plantxuela bat zuen kurba eginenez. Muskitik zetorren kableak plantxuelan zuen tanborra eta plantxuelatik etxeko ganbarara sartzen zenak ganbaran. Ganbaran sorta belarra lurraren parean gelditzen zen.
- *Kablea nondik ekarri:* Bixentek ekarria.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 16 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoric ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bost.
- *Plantxuelarik:* Bai, 6 m ko luzera batekoa.
- *Danborra zerez egina:* Plantxuelan zuena haritzezkoa gainetik txapa batekin forratuta. Ganbarakoa ere haritzezkoa.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta Astigarragako errementariak, Lontxok, eginak besteak.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsezkoak batzuk eta azkenak brontzezko kaskiloa zutenak. Gehienak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 40 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40-60 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak.):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.970 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.970 urtean.
- *Zergatik:* Pista ireki zen eta kamioiak pasatzerakoan kablea jotzen zuten. *Geroztik pinua sartu zuten.*

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen. Txatarreroak eraman zuen plantxuela eta astoak ustalduta erori ziren.

KABLE ZENBAKIA **96** IZENA: LAIOTZA

Baserria: LAUZTI GARAKOA baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Juan Mujika Zurutuza.

Helbidea: LAUZTI GARAKOA baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin, bueltako bi sorta ekarriaz.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.925 urte aldera.
- *Nondik norakoa:* Laiotzetik Lauzti Garako baserri atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 250 m.
- *Desnibela:* 75 m.
- *Lur eremuen izenak:* Laoitza.
- *Nork jarri zuen:* Gurasoek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen.* Berezitasunak: Goian egur bat kablea erantsia eta beheran beste poste bati erantsia.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 16 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez eginga:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta Astigarragako errementariak, Lontxok, eginak besteak.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsezkoak lehenak eta brontzezko kaskilodunak azkenak. Gehienak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 40 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai. Kable aldaketak.
- *Nork, noiz:* Juan Eskisabel, Errota Berrikoak.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitaion:* 40 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Eta kablea kendu:* Orain urte asko ez dela.
- *Zergatik:* Etxe aurretik kaminoa pasatzen zen eta kableak altura txikia zuenez beti botatzeko arriskua zegoen.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **97** IZENA: **EUTERA**

Baserria: LAUZI GARAKOA baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Juan Mujika Zurutuza.

Helbidea: LAUZI GARAKOA baserria (San Gregorio).

• *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Zaldikin. Bidai bakoitzean bi sorta ekarriaz

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* 1.925 urte aldera.
- *Nondik norakoa:* Euteratik Lauzi Garakoa baserriaren ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 200 m.
- *Desnibela:* 50 m.
- *Lur eremuen izenak:* Eutera.
- *Nork jarri zuen:* Gurasoek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egur bati erantsia eta ganbaran egurrezko tanbor batean bildua.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astorik ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Haritza.
- *Txirrikak nork eginak edo nondik ekarriak:* Oriotik ekarriak batzuk eta Astigarragako errementariak, Lontxok, eginak besteak.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsezkoak lehenak eta brontzezko kaskilodunak azkenak. Gehienak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 40 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai, kable aldaketa. Itsas kablea kendu eta altzairuzkoa jarri.
- *Nork, noiz:* Juan Eskisabel, Errota Berrikoak 1.976 urtean.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 40 Kgr
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 5 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Erosotasuna eta erreztasuna.
- *Arazoak(Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* Garu egun erabiltzen dute.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Kable guztia zutik dago.
- *Nolakoa da:* Kablea altzairuzkoa da. Goian egur bati erantsia dago eta ganbaran egurrezko tanborra du bere zuloekin palankakin estutu al izateko.
- *Materiala:* Kable altzairuzkoa. Tanborra egurrezkoa. Txirrikak burnizkoak, batzuk brontzezko kaskiloarekin eta gantxo jiratorioarekin.
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Lauzi Garakoa baserriaren atzean.
- *Kable osoaren egoera:* Egoera onean dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Martxan dago.
- *Jabearen jarrera:* Euren ibiltzeko gai diren bitartean behintzat zutik eutsiko diote.

KABLE ZENBAKIA **98** IZENA: **MAIZKO**

Baserria: LAUZTI BERRI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Miren Zurutuza Zurutuza.

Helbidea: LAUZTI BERRI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarrean sortaka edo kabaileriarekin aldiko bi sorta ekarriaz.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Maizkoko borda ondotik Lauzti Berri baserriaren ganbarara.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 400 m.
- *Desnibela:* 100 m.
- *Lur eremuen izenak:* Maizko- Telleri Erdiko saila- Arbotonetako saila.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Maizkon borda atarian poste bati lotua zegoen. Bidean bi asto zituen eta ganbaran disparto bidez txirrikak soltatzen ziren lurrera eroriaz.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 16 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bi.
- *Danborra zerez egina:* Ez zuen tanborrik.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsekoak eta gantxo fijosunak lehenak eta gerora gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai. Kable aldaketa.
- *Nork, noiz:* Juan Eskisabel, Errota Berrikoak.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara partean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* 30 Kgr.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4-5 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia. Bidea aldapatsua zen eta gurdiarekin ez zegoen joaterik. Kablearekin azkarrago lan egiten zen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.984 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Belardien erabilera beste bati eman zitzaiolako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Txirrika batzuk eta sorta egiteko sokak.

KABLE ZENBAKIA **99** IZENA: **JUANDANTXO**

Baserria: LAUZTI BERRI baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Miren Zurutuza Zurutuza.

Helbidea: LAUZTI BERRI baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarrean sortaka edo kabaileriarekin aldiko bi sorta ekarriaz.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Juandantxotik Lauzti Berri baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 200 m.
- *Desnibela:* 60 m.
- *Lur eremuen izenak:* Juandantxo.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egurrezko poste bati erantsia zegoen eta beheran zutikako bi egurren kontra tanborra lotua. Sorta belarra disparen saltatu ondoren tranpal gainean gelditzen zen eta bizkarrean hartu eta artegira sartzen zen.
- *Nolakoa:* Altzairuzkoa.
- *Diametroa:* 10 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astori ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsekoak eta gantxo fijodunak lehenak eta gerora gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Belar ondua eta berdea garraiatzeko.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4-5 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Haundia. Bidea aldapatsua zen eta gurdiaekin ez zegoen joaterik. Kablearekin azkarrago lan egiten zen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.986 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Pinua sartu zelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Ez da ezer gelditzen.

KABLE ZENBAKIA **100** IZENA: **ETXABURU**

Baserria: TELLETXE baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Luzio Aldasoro Aierbe.

Helbidea: TELLETXE baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarrean sortaka edo kabaileriarekin aldiiko bi sorta ekarriaz. Orokorrean auzoko guztiak bildu eta lagunduz egiten zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Etxaburutik Telletxe Berri baserriaren atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 50 m.
- *Desnibela:* 30 m.
- *Lur eremuen izenak:* Etxaburua.
- *Nork jarri zuen:* Gurasoek jarria.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian lurrean poste bat sartu eta kablea erantsia. Beheran egurrezko bi postei lotua tanborra eta tranpala. Denborarekin egurrezko posten ordeztu burnizkoak jarri ziren tanborrari eusteko.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 14 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Ez.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Txirrikak nork eginak deo nondik ekarriak:* Errementariari egin araziak.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsekoak lehenak eta azkenak brontzezko kaskilodunak. Denak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30-40 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Bai. Kable aldaketa bi aldiz.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Gehienbat belar ondua garraiatzeko eta noizbehinka berdea.
- *Urteko ze sasoietan:* Udara eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* Onduan 40 Kgr eta berdean 80 Kgr ere bai.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Gertuko sailetan handia eta urrutikoetan sinistu ezin daitekeena. Garai hartan biderik ez bait zegoen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.980 urtean.
- *Eta kablea kendu:* 1.992 urtean.
- *Zergatik:* Ganadua larrera ateratzen hasi zirelako.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Tanborra bere zutikako bi burniekin. Tranpala bidea zabaltzerakoan bota egin zen.
- *Nolakoa da:* Tanborra enbor moduko egur bat erdian zulo batzuekin palanka bidez kablea tiratu al izateko.
- *Materiala:* Tanborra egurrezkoa, gaztaina,
- *Egoera:* Egoera onean dago.
- *Kokapena:* Telletxe Berri baserriaren ondoan.
- *Kable osoaren egoera:* Kablea kendutan dago.
- *Martxa jartzeko moduan:* Ez.

KABLE ZENBAKIA

101IZENA: **TXANTXON***Baserria:* TELLETXE baserria (San Gregorio).*Jabearen izena:* Luzio Aldasoro Aierbe.*Helbidea:* TELLETXE baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarrean sortaka edo kabaileriarekin aldiko bi sorta ekarriaz. Orokorrean auzoko guztiak bildu eta lagunduz egiten zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Txantxon Hariztitik Bordaldera.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 500-600 m.
- *Desnibela:* 100 m.
- *Lur eremuen izenak:* Txantxon Harizti- Telleri Zaharre- Soabilla- Txoraluze.

Kable elementuak

- *Sorta belarrak ekartzeko erabiltzen diren elementuak eta nola jarria dagoen. Berezitasunak:* Goian egur bat lurrean sartu eta kablea erantsita zuen. Egurrezko tranpal bat ere bazuen sortak kablean erreago eransteko. Goi aldean bi asto zituen eta beheko aldean beste hiru. Beheran borda ondoan tanborra zuen bere dispartoarekin.
- *Nolakoa:* Itsas kablea.
- *Diametroa:* 14 mm.
- *Zuzena, angeluduna:* Zuzena.
- *Engrasatzen zenuten:* Ez.
- *Astoriak ba al zuen:* Bai. *Zenbat:* Bost.
- *Danborra zerez egina:* Egurrezkoa. Gaztaina.
- *Nolakoak, materiala:* Burni hutsekoak lehenak eta azkenak brontzezko kaskilodunak. Denak gantxo jiratorioarekin.
- *Zenbat txirrika erabiltzen ziren:* 30-40 txirrika.
- *Konponketarik egin zen:* Ez.

Erabilpena

- *Zertarako erabiltzen zenuten:* Gehienbat belar ondua garraiatzeko eta noizbehinka berdea.
- *Urteko ze sasoietan:* Uda eta udazkenean.
- *Zenbateko pisua jartzen zitzaion:* Onduan 40 Kgr eta berdean 80 Kgr ere bai.
- *Sorta zenbat hankarakin egiten zenituzten:* 4 hankarakin.
- *Beste erabilerarik bazuen:* Ez.
- *Ze abantail ekarri zuen:* Gertuko sailetan haundia eta urrutikoetan sinistu ezin daitekeena. Garai hartan biderik ez bait zegoen.
- *Arazoak (Suteak, istripuak..):* Ez.
- *Noiz utzi zitzaion erabiltzeari:* 1.980 urtean.
- *Eta kablea kendu:* Berehala.
- *Zergatik:* Sail batzutan pinua sartu zen eta bestetan ganadua larrera ateratzen hasi zen.

Aztarnak

- *Kablearen zein elementu gelditzen dira:* Tanborra bere postekin zutik dago eta goiko eranslekua ere bai.

KABLE ZENBAKIA **102** IZENA: **ALBIZUITZ**

Baserria: TELLETXE baserria (San Gregorio).

Jabearen izena: Luzio Aldasoro Aierbe.

Helbidea: TELLETXE baserria (San Gregorio).

- *Kablea jarri aurretik nola moldatzen ziren:* Bizkarrean sortaka edo kabaileriarekin aldiko bi sorta ekarriaz. Orokorrean auzoko guztiak bildu eta lagunduz egiten zen.

KABLEA

- *Jarri zeneko data:* Jarria ezagutu zuen.
- *Nondik norakoa:* Albizuitz'tik Telletxe Berriko atarira. Gerora beheragotik jarri zen: Oñatik Telletxe Berriko atarira.
- *Dokumentazioa baduzue edo ez (fotokopia):* Ez.
- *Luzera:* 1.500 m.
- *Desnibela:* 325 m.
- *Lur eremuen izenak:* Albizuitz- Oña- Txantxon Harizti- Meabita- Muskildi.
- *Nork jarri zuen:* Artaditxuloko Bixente Eskisabelek.

Kable elementuak

